

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

11714 22/2014 Legea, azaroaren 12koa, arrisku-kapitaleko erakundeak, inbertsio kolektiboko bestelako erakunde itxiak eta inbertsio kolektiboko erakunde itxien erakunde kudeatzaileak arautzen dituena, eta azaroaren 4ko 35/2003 Legea –Inbertsio kolektiboko erakundeena– aldatzen duena.

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau irakurtzen duten guztiek jakin dezaten.
Jakin ezazue: Gorte Nagusiek ondoko lege hau onetsi dutela, eta Nik, hemen, berretsi egiten dudala.

AURKIBIDEA

Atariko titulua. Xedapen orokorrak.

1. artikulua. Xedea.
2. artikulua. Inbertsio kolektibo itxia.
3. artikulua. Arrisku-kapitaleko erakundeak.
4. artikulua. Inbertsio kolektibo itxiko erakundeak.
5. artikulua. Ezarpen-eremua.
6. artikulua. Baztertutako erakundeak.
7. artikulua. Finantza-erakundearen eta enpresa ez-finantzarioaren kontzeptua.

I. titulua. Arrisku-kapitaleko erakundeen eta inbertsio kolektibo itxiko erakundeen araubidea.

I. kapitulua. Arrisku-kapitaleko erakundeen eta inbertsio kolektibo itxiko erakundeen eraketa.

8. artikulua. Arrisku-kapitaleko erakundeen eta inbertsio kolektibo itxiko erakundeen sorkuntza.

II. kapitulua. Arrisku-kapitaleko erakundeen araubide juridikoa.

1. atala. Arrisku-kapitaleko erakundeak

9. artikulua. Jarduera nagusia.
10. artikulua. Jarduera osagarriak.
11. artikulua. Izenaren erreserba.
12. artikulua. Inbertsio-politika.

2. atala. Arrisku-kapitaleko erakundeen inbertsioen araubidea

13. artikulua. Arrisku-kapitaleko erakundeen nahitaezko inbertsio-koefizientea.
14. artikulua. Inbertsioa arrisku-kapitaleko erakundeetan.
15. artikulua. Erabilera askeko koefizientea.
16. artikulua. Taldearen mugak eta inbertsioen dibertsifikazioa.
17. artikulua. Inbertsioetan ezarritako mugak aldi baterako ez betetzea.
18. artikulua. Aktibo konputagarria eta inbertsioen beste muga batzuk.
19. artikulua. Merkatu arautuetan kotizatutako enpresa ez-finantzarioetako partaidetzak eskuratzea.

3. atala. ETE-etako arrisku-kapitaleko erakundeen inbertsioen araubidea.
20. artikulua. ETE-etako arrisku-kapitaleko erakundeak.
21. artikulua. ETE-etako arrisku-kapitaleko erakundeen nahitaezko inbertsio-koefizientea.
22. artikulua. ETE-etako arrisku-kapitaleko erakundeen erabilera askeko koefizientea.
23. artikulua. Taldearen mugak eta inbertsioen dibertsifikazioa ETE-etako arrisku-kapitaleko erakundeen arloan.
24. artikulua. Inbertsioak aldi baterako ez betetzea.
25. artikulua. Inbertsioen beste muga batzuk.
- III. kapitulua. Arrisku-kapitaleko sozietateen araubide juridikoa.
26. artikulua. Definizioa eta araubide juridikoa.
27. artikulua. Ondarearen balorazioa eta likidazio-balioaren zehaztapena.
28. artikulua. Eraldaketa, bategitea, zatiketa eta gainerako sozietate-eragiketak.
29. artikulua. Kudeaketa eskuordetzea.
- IV. kapitulua. Arrisku-kapitaleko funtsen araubide juridikoa.
30. artikulua. Definizioa eta araubide juridikoa.
31. artikulua. Ondarea.
32. artikulua. Funtsaren eraketa.
33. artikulua. Funtsaren kudeaketarako erregelamenduaren edukia.
34. artikulua. Partaidetzak harpidetu eta itzultzeko araubidea.
35. artikulua. Administrazioa.
36. artikulua. Bategitea.
37. artikulua. Desegitea eta likidazioa.
- V. kapitulua. Inbertsio kolektibo itxiko erakundeen, Europako arrisku-kapitaleko erakundeen eta Europako gizarte-ekintzaitzako funtsen araubide juridikoa.
38. artikulua. Inbertsio Kolektibo Itxiko Sozietateen eta Inbertsio Kolektibo Itxiko Funtsen araubide juridikoa.
39. artikulua. Europako arrisku-kapitaleko funtsen araubide juridikoa.
40. artikulua. Europako gizarte-ekintzaitzako funtsen araubide juridikoa.
- II. titulua. Inbertsio kolektibo itxiko erakundeen sozietate kudeatzaileak.
- I. kapitulua. Jarduerari ekitea.
41. artikulua. Kontzeptua eta sozietate-xedea.
42. artikulua. Jarduerari ekiteko betekizunak.
43. artikulua. Zerbitzu osagarriak.
44. artikulua. Debekatutako jarduerak.
45. artikulua. Baimen eskaera.
46. artikulua. Baimenaren ebazpena.
47. artikulua. Inbertsio Kolektiboko Erakundeen sozietate kudeatzaileak.
48. artikulua. Baimentzeko baldintzak.
49. artikulua. Europar Batasuneko kide den beste Estatu bateko agintari gainbegiratzaille bati kontsultatzea.
50. artikulua. Gordailuzaina.
51. artikulua. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren baimentze-ahalmen espezifikoak.
52. artikulua. Baimentzeko baldintzen aldaketak.
53. artikulua. Errebokatzea.
54. artikulua. Baimenaren iraungitzea.

- 55. artikulua. Baimenari uko egitea.
 - 56. artikulua. Etetea.
 - 57. artikulua. Kudeatzaileak ordeztea.
 - 58. artikulua. Erregistroa.
- II. kapitulua. Jardueran aritzeko baldintzak.
1. atala. Baldintza operatiboak eta antolakuntzako baldintzak.
- 59. artikulua. Printzipio orokorrak.
 - 60. artikulua. Ordainketarako eta pizgarriak finkatzeko sistemarekin lotuta dauden politika eta prozedurak.
 - 61. artikulua. Interes-gatazkak.
 - 62. artikulua. Arriskuaren kudeaketa.
 - 63. artikulua. Likideziaren kudeaketa.
 - 64. artikulua. Balorazioa.
2. atala. Inbertsio kolektibo itxiko erakundeen sozietate kudeatzailearen eginkizunak eskuordetzea.
- 65. artikulua. Eginkizunak eskuordetzea.
 - 66. artikulua. Eginkizunak azpieskuordetzea.
3. atala. Gardentasun betekizunak.
- 67. artikulua. Informatzeko betebeharra eta auditoretza- eta kontabilitate-arloko betebeharrak.
 - 68. artikulua. Inbertsioa egin aurretik inbertsiogileei inbertsio-erakunde bakoitzaren gaineko informazioa emateko betebeharrak.
 - 69. artikulua. Inbertsiogileei aldi-aldi informazioa emateko betebeharrak.
 - 70. artikulua. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari aldi-aldi informazioa emateko betebeharrak.
 - 71. artikulua. Partaidetza handiak eta sozietateen kontrola eskuratzearen ondoriozko informazio-betebeharrak.
- III. kapitulua. Arrisku-kapitaleko erakundeen eta inbertsio kolektibo itxiko erakundeen kudeaketa-jarduerari ekiteko eta horretan aritzeko baldintzak, kasu berezi batzuetan.
- 72. artikulua. Arrisku-kapitaleko erakundeak edo inbertsio kolektibo itxiko erakundeak kudeatzen dituzten Inbertsio kolektibo itxiko erakundeen sozietate kudeatzaileen kudeaketa-jarduerari ekiteko eta horretan aritzeko baldintzak, atalase jakin batzuen azpitik.
 - 73. artikulua. Europako arrisku-kapitaleko funtsak kudeatzen dituzten inbertsio kolektibo itxiko erakundeen sozietate kudeatzaileen kudeaketa-jarduerari ekiteko eta horretan aritzeko baldintzak.
 - 74. artikulua. Europako gizarte-ekintzailtzako funtsak kudeatzen dituzten inbertsio kolektibo itxiko erakundeen sozietate kudeatzaileen kudeaketa-jarduerari ekiteko eta horretan aritzeko baldintzak.
- III. titulua. Arrisku-kapitaleko erakundeak eta inbertsio kolektibo itxiko erakundeak merkaturatzea.
- 75. artikulua. Arrisku-kapitaleko erakundeak eta inbertsio kolektibo itxiko erakundeak merkaturatzeko mugak.
 - 76. artikulua. Europar Batasuneko beste estatu kide batean eratu diren eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren babespean estatu kide batean kudeatzaile baimenduek kudeatzen dituzten arrisku-kapitaleko erakundeak eta inbertsio kolektibo itxiko erakundeak Espainian merkaturatzea.

77. artikulua. Europar Batasuneko kide ez den estatu batean eratu diren eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren babespean estatu kide batean kudeatzaile baimenduek kudeatzen dituzten arrisku-kapitaleko erakundeak edo inbertsio kolektibo itxiko erakundeak inbertsiogile profesionalentzat Espainian merkaturatzea.

78. artikulua. Helbidea Europar Batasunean ez duten kudeatzaileek kudeatutako arrisku-kapitaleko erakundeak edo inbertsio kolektibo itxiko erakundeak inbertsiogile profesionalentzat Espainian merkaturatzea.

79. artikulua. 5.1.e) artikuluan aipatzen diren arrisku-kapitaleko erakundeak inbertsiogile ez profesionalentzat Espainian merkaturatzea.

80. artikulua. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentaruak baimendutako sozietate kudeatzaileek kudeatzen dituzten arrisku-kapitaleko erakundeak edo inbertsio kolektibo itxiko erakundeak Europar Batasuneko esparruan merkaturatzea.

81. artikulua. Espainian baimendutako sozietate kudeatzaileek arrisku-kapitaleko erakundeak edo inbertsio kolektibo itxiko erakundeak mugaz haraindi kudeatzeko baldintzak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren arabera.

82. artikulua. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentaruak araututako eta Europar Batasuneko beste estatu kide batean baimendutako kudeatzaileek Espainiako arrisku-kapitaleko erakundeak edo inbertsio kolektibo itxiko erakundeak kudeatzeko baldintzak.

83. artikulua. Europar Batasuneko kide ez den estatu batean eratu diren eta Europar Batasuneko estatu kideetan merkaturatzen ez diren arrisku-kapitaleko erakundeak edo inbertsio kolektibo itxiko erakundeak kudeatzen dituzten inbertsio kolektibo itxiko erakundeen sozietate kudeatzaileei aplikatu beharreko baldintzak.

IV. titulua. Jokabide arauak, gainbegiratzea, ikuskatzea eta zehatza.

I. kapitulua. Jokabide arauak.

84. artikulua. Aplikatu beharreko araudia.

II. kapitulua. Gainbegiratzea eta ikuskatzea.

85. artikulua. Esparrua.

86. artikulua. Gainbegiratzeko eta ikuskatzeko ahalmenak.

87. artikulua. Palanka-efektuaren mugak eta kreditu-ebaluazioko prozesuen egokitzapena gainbegiratzea.

88. artikulua. Europar Batasuneko beste estatu kide batean baimenduta dauden eta arrisku-kapitaleko erakundeak edo inbertsio kolektibo itxiko erakundeak Espainian kudeatzen dituzten kudeatzaileak gainbegiratzea.

89. artikulua. Datu pertsonalak gainbegiratzearen eta ezeztatzearen arloko mugaz haraindiko lankidetzak.

90. artikulua. Kudeatzaileen jardueraren balizko ondorio sistemikoei buruzko informazioa elkartrukatzea.

III. kapitulua. Zehapen-araubidea.

1. atala. Xedapen orokorrak.

91. artikulua. Erantzukizuna.

92. artikulua. Prozedura.

2. atala. Arau-hausteak.

93. artikulua. Arau-hauste oso larriak.

94. artikulua. Arau-hauste larriak.

95. artikulua. Arau-hauste arinak.

3. atala. Zehapenak.

96. artikulua. Zehapenak arau-hauste oso larriak egiteagatik.

97. artikulua. Zehapenak arau-hauste larriak egiteagatik.

98. artikulua. Zehapenak arau-hauste arinak egiteagatik.

99. artikulua. Zehapenak administrazioko edo zuzendaritzako karguek egindako arau-hauste oso larriengatik.

100. artikulua. Zehapenak administrazioko edo zuzendaritzako karguek egindako arau-hauste larriengatik.

101. artikulua. Zehapenak erabakitzeke irizpideak.

102. artikulua. Esku hartzeko eta ordezkatzeko neurriak.

4. atala. Bestelako xedapenak.

103. artikulua. Bestelako xedapenak.

Lehenengo xedapen gehigarria. Arrisku-kapitaleko erakundeen sozietate kudeatzaileak inbertsio kolektibo itxiko erakundeen sozietate kudeatzaile bihurtzea.

Bigarren xedapen gehigarria. Arauen aipamenak.

Hirugarren xedapen gehigarria. Lehendik dauden erakundeak araudi berrira egokitzeke epea.

Xedapen indargabetzailea.

Azken xedapenetako lehenena. Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea aldatzea.

Azken xedapenetako bigarrena. Azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu batagina aldatzea.

Azken xedapenetako hirugarrena. Hazkuntzaren, lehiakortasunaren eta eraginkortasunaren aldeko premiazko neurriak onartzeko urriaren 15eko 18/2014 Legea aldatzea.

Azken xedapenetako laugarrena. Hornitzaileei egin beharreko ordainketak finantzatzeko funtsa aldatzeari buruzko uztailaren 14ko 13/2014 Legearen II. eranskina aldatzea.

Azken xedapenetako bosgarrena. Eskumen-tituluak.

Azken xedapenetako seigarrena. Europar Batasuneko zuzenbidea txertatzea.

Azken xedapenetako zazpigarrena. Arauak onartzeko gaikuntza.

Azken xedapenetako zortzigarrena. Indarrean jartzea.

HITZAURREA

I

Finantza-erregulazioaren helburu orokorra aurrezkoa inbertsio produktibora modu eraginkorrean bideratzea da; hala, merkatuen egonkortasuna eta inbertsiogilearen babesa bermatuko dira, eta enplegua sortzeko aukera emango duen hazkunde orekatua sustatuko da. Espainiako ekonomiaren ezaugarri tradizioaletako bat da banku-kredituko enpresen mendean dagoela modu nabarmenean, eta kreditu horrek gaur egungo egoeran murrizketa handiak izan ditu. Horregatik funtsezkoa da finantzaketa zuzeneko beste iturri batzuei mesede egitea. Horien artean inbertsio kolektiboa gero eta garrantzi handiagoa izaten ari den alternatiba da. Esparru horren barruan, Europar Batasunean harmonizatutako erregulazioa duten eta batik bat txikizkako inbertsiogileei zuzentzen zaizkien inbertsio kolektiboko erakundeak batetik eta inbertsio alternatibokotzat jotzen direnak bestetik bereizi ahal dira. Azken horien barruan hainbat erakunde daude, adibidez inbertsio askeko funtsak (hedge funds, ingelesez eman ohi zaien izenean), higiezin

arloko funtsak eta arrisku-kapitalekoak. Azken horien erregulazioa da lege honen helburu nagusia.

Azken urteotan arrisku-kapitalak garapen nabarmena izan du. Hala ere, haren araubidea berrikusi beha da, alde batetik funtsak errazago atzitzeko eta horrenbestez, ahalik eta enpresa gehien finantzatu ahal izateko; eta bestetik, arrisku-kapitala ahal dela tamaina txiki eta ertaineko enpresen finantzaketara bideratzeko, garapen eta hedapeneko lehenengo etapetan, batik bat horrelako enpresek baitute mugatuta finantzaketa lortzeko aukera.

Arrisku-kapitala honela definitzen da: inbertsio-estrategia mota batzuk dira, finantzaketa zuzenean edo zeharka enpresetara bideratzen dutenak, kudeaketa eta aholkularitza profesionala sortuz enpresaren balioa maximizatzen dutenak, eta inbertsiogileei gainbalio handiak ekartzeko helburuz enpresan bertan desinbertitzen dutenak. Arrisku-kapitala garrantzi handiko finantzaketa-iturria da enpresen garapenaren etapa guztietarako: ideia garatzen denetik, orduan hazi-kapitala funtsezkoa baita; ekoizpen-jarduerari ekiteko lehenengo faseetan, hedapen eta zabalkunde etapetan, orduan finantzaketak aukera eman ahal baitu dimentsio eta heldutasun eta heldutasun handiagoetara auzi kualitatiboa emateko, eta enpresa jada sendotuta daudeneko uneetaraino, orduan finantzaketa hainbat arazoirengatik izan ahal baita beharrezko, adibidez burtsara irteteko edo enpresa berregituratu edo saltzeko. Arrisku-kapitalaren barruan dago bai orain arte venture capital izenaz ezagutu dena, enpresen garapenaren lehenengo faseak xede dituen, bai private equity izenaz ezagutu dena; azken termino horrek barnean hartzen du jada helduak diren eta errentagarritasuneko ibilbide sendoa egina duten enpresetan egindako inbertsioa, beraz enpresa-berregituraketako eragiketa handiagoak dakartzana. Hain zuzen ere, alde horretatik, beharrezkoa da arrisku-kapitaleko erakundeek maileguak baliatzea halakoak finantzatu ahal izateko.

Arrisku-kapitaleko erakundeen esku-hartzeak abantaila dakar enpresek lortzen duten finantzaketaren aldetik, baina horrez gain, gaitutako profesionalak erakunde horien kudeaketan parte hartzen dute beren ezagutza eta esperientzia eskainiz. Hala, finantzaketako enpresen kudeaketan eta ezagutzaren zabalkundearen hobekuntza handiak lortzen dira eraginkortasun arloan.

II

Espanian arrisku-kapitalaren legeria arloko aurrekariak 1976an aurkitzen dira. Urte hartan, Neurri Ekonomikoei buruzko urriaren 8ko 18/1976 Errege Lege Dekretua onetsi zen. Errege Lege Dekretu hori industria-garapeneko sozietateen sustatzaile izan zen, arrisku-kapitaleko sozietateen aurrekari gisa. Gaur egungo arrisku-kapitalaren araubide juridikoaren jatorria administrazio, finantza, zerga eta lan neurriei buruzko martxoaren 14ko 1/1986 Errege Lege Dekretuaren 12. eta 16. bitarteko artikuluetan dago. Araubide hori sakon-sakonean eraldatu zuen Arrisku-kapitaleko erakundeek eta beren sozietate kudeatzaileei buruzko urtarrilaren 5eko 1/1999 Legeak.

Lege hark erakundeen bi modalitateak aurkeztu zituen, sozietateak eta funtsak (sozietate kudeatzaileek administratuak), eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren baimen, gainbegiratze, ikuskapen eta zehapen araubidearen mendean jarri zituen, finantza-merkatuan jarduten duten gainerako subjektuekin homologatzeko moduan. Gainera, inbertsioen araubidea ere ezarri zen. Xede diren enpresa ez-finantzario kotizatu gabeetan nahitaezko inbertsio-koefizientea eta erabilera askeko koefizientea bereizi ziren. Azkenik, taldearen mugak eta inbertsioen dibertsifikazioa ezarri ziren.

1999ko arauketa aurrerapen handia izan zen gure herriko arrisku-kapitalaren araubide juridikoan, baina ez zuen lortu industriari arrisku-kapitala gure inguruko herrien moduko lehiakortasun-mailan jartzeko beharrezkoak diren finantza-tresnak ematea. Arrisku-kapitaleko erakundeek finantza-arauketan bertan zurruntasuna eta muga batzuk ikusten ziren, eta horrek sektorearen behin betiko garapena moteltzen zuen.

Horregatik guztiairengatik, Arrisku-kapitaleko erakundeak eta beren sozietate kudeatzaileak arautzeko azaroaren 24ko 25/2005 Legeak bultzada handia eragin zuen Espainiako arrisku-kapitalean. Lege hori, urtarrilaren 5eko 1/1999 Legean bildutako

oinarrizko eskema errespetatuta, zutabe hauen inguruan egituratu zen: arrisku-kapitaleko erakundeen administrazio-araubidea arintzea, inbertsio-erregelak malguago egitea eta inguruko beste herri batzuetan daudenen antzeko finantza-figurak txertatzea. Hobekuntza horiek, arrisku-kapitaleko erakundeen bidez egindako inbertsioak duen zerga-araubide egokituarekin batera, lagungarriak izan dira sektoreak Espainiako finantza-sisteman duen posizioa sendotzeko.

III

Espainian sektorea modernizatu zuen arau hori agertu zenetik zortzi urte soilik igaro direla arau-esparrua berrikusteko arrazoiak hiru dira.

Lehenengoz, onetsi egin da Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentaraua, inbertsio alternatiboko funtsen kudeatzaileei buruzkoa, 2003/41/EE eta 2009/65/EE Zuzentarauak eta Europar Batasunaren 1060/2009 eta 1095/2010 zenbakidun Erregelamenduak aldatzen dituena. Arau horrek lehenengo aldiz txertatzen du inbertsio alternatiboko funtsen kudeatzaileen arauketa txertatzen du Europar Batasunaren barruan. Kudeatzaileen artean daude, besteak beste, inbertsio askeko inbertsio kolektiboko erakundeak (IAIKE), edo hedge funds ingelesezko ohiko izendapenean, inbertsio askeko inbertsio kolektiboko erakundeen inbertsio kolektiboko erakundeak (IAIKEIKE), higiezinaren arloko inbertsioak funts eta sozietateak eta arrisku-kapitaleko erakundeak.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentaraua onetsi arte, inbertsio kolektiboaren arloko Europako araudiak inbertsio kolektiboko erakunde (IKE) jakin batzuetarako arau homogeneo batzuk txertatzen zituen, besterik ez. Arau horiek hainbat arlori buruzkoak ziren, esate baterako erakundeak inbertitzeko gai diren aktiboak, kontzentrazio eta likideziaz mugak, bai eta antolaketako, kudeaketako eta gainbegiratzeko betekizunak, eta gordailuzainaren araubidea. Horien guztien ondorioz, balore higigarrietako inbertsio kolektiboko erakunde horiek txikizkako inbertsiogileek zabal erabiltzen zituzten produktuak ziren, dibertsifikatutako eta modu profesionalean kudeatutako finantza-tresnen multzo bat eskuratzeko modua ematen zutelako. inbertsio-funtsen harmonizazio horrek jatorria 1985ean du. Gerora apurka hobetu zen, eta 2009an testu batekin onetsi zen: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EE Zuzentaraua, balore higigarrietako inbertsio kolektiboko erakunde jakin batzuei buruzko lege, erregelamendu eta administrazio arloko xedapenak koordinatzeko.

Zuzentarau hori gure antolamendu juridikoan txertatu zen Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen aldaketaren bitartez. Horren bidez, zuzentarau hark harmonizatutako IKEak –izaera irekikoak– arautzen dira, bai eta gure merkatuan bereziki agertzen diren eta harmonizatuta ez dauden beste IKE batzuk ere.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EE Zuzentarauarekin gertatzen denaz bestela, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren ardatza erakundeen sozietate kudeatzaileak arautzea da, funtsari lotuen dauden alderdietan sartu gabe, adibidez inbertsio-politikan. Horren arrazoia da inbertsio alternatiboko funts horien xedea inbertsiogile profesionalak direla. Horrenbestez, arauketak interferentzia txikiagoa eragiten du babesari dagokionez, txikizkako inbertsiogileek parte hartzen dutenean baino, hain zuzen ere egoera horretan aldean desoreka ageriagokoa dela. Beraz, zuzentarauak askatasuna eman zuen, atzitutako baliabideak zein aktibotan inbertitu ahal ziren zehazterakoan. Hala ere, eta 2008an hasitako finantza-krisiari emandako erantzun orokorren ondorioz finantza-arauketaren arloan izandako bultzada kontuan hartuta, inbertsio alternatiboko funts horien sozietate kudeatzaileena arauketa harmonizatzea komenigarritzat jo zen, horien jarduerak finantza-egonkortasunean izan ditzakeen ondorioengatik.

Horrenbestez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentaraua zuzenbide nazionalean txertatu behar da, bai arrisku-kapitaleko erakundeei dagokienez, bai Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 13ko

2009/65/EE Zuzentarauan araututakoez bestelako inbertsio kolektiboko erakundeei dagokienez, horiek legeria nazionalak azaroaren 4ko 35/2003 Legean biltzen baititu.

Bigarrenez, ETE-en finantzaketari buruz legeria arloko beste alderdi berri bat sortu da Europar Batasunean, eta kontuan hartu behar da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko apirilaren 17ko 345/2013 zenbakidun Erregelamendua, Europako arrisku-kapitaleko funtsei buruzkoa, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko apirilaren 17ko 346/2013 zenbakidun Erregelamendua, Europako gizarte-ekintzailetzako funtsei buruzkoa. Horien edukia ez dago zertan gure legeriara ekarri behar, erregelamenduak izanik eraginkortasun zuzena dutelako. Hala ere, horien arauketa baliagarria izan da figura berri baten arauketa bideratzeko, ETE-etako arrisku-kapitaleko erakundeen arauketa, alegia.

Hirugarrenez, lehenago aipatu den moduan, arrisku-kapitalaren araubidea berrikusten da funtsen atzipen handiagoa sustatzeko, hala enpresa gehiago finantzatu ahal izango direlakoan, bereziki tamaina txiki eta ertaineko enpresak, garapen eta hedapeneko lehenengo etapetan. Zalantzarik ez dago, orain indargabetu den azaroaren 24ko 25/2005 Legea lagungarria izan dela arrisku-kapitaleko sektorea hazteko. Hala ere, hazkunde hori ez da kasu guztietan berdina izan. Arrisku-kapitalaren bitartez finantzaketa lortu duten enpresen garapen-maila kontuan hartzen badugu, argi eta garbi nagusi dira sendoak eta helduak izateaz gain private equity-ren eta palanka-efektuaren eraginpeko eragiketen onura jaso duten konpainiak, garapenaren hasierako etapetan dauden enpresei zuzendutako «venture capital» delakoaren kaltetan –hazi-kapitala eta hasierako kapitala–.

IV

Ondorioz, araubidea Europar Batasuneko araudi berrira egokitzeko eta sektorearen hazkunde orekatua sustatzeko beharizanak bultzatuta onetsiko da lege hau, eta bide batez, azaroaren 24ko 25/2005 Legea indargabetu egingo da.

Arrisku-kapitaleko erakundeen eta inbertsio kolektibo itxiko erakundeen lege hau, inbertsio kolektiboko erakundeei aplikatuko zaie, baldin eta kapitala hainbat inbertsiogilerengandik jasotzen badute, kapital hori inbertsio-politika definitu baten arabera inbertitzeko, beren desinbertsio-politiken arabera izaera itxia badute, eta batik bat inbertsio kolektibo irekiko erakundeak arautzen dituen azaroaren 4ko 35/2003 Legean araututa ez badaude. Berraz, lege hau ez zaie aplikatuko bestelako inbertsio kolektiboko erakunde batzuei, esate baterako Higiezin merkatuetan inbertitzeko sozietate anonimo kotizatua arautzen dituen urriaren 26ko 11/2009 Legean arautzen diren higiezin merkatuko inbertsioko sozietate anonimo kotizatuei, edo Balore-burtsa batean negoziatzeko baloreak dituzten finantza-arloko zorro-sozietateei. Dena dela, halako sozietateen ezaugarriak aztertzean ondorioztatu ahal bada inbertsio-politika definitua dutela eta merkataritza- edo industria-helbururik ez dutela, Lege hau aplikatuko zaie.

Halaber, lege horrek helbidea Espainian duten inbertsio kolektibo itxiko erakundeen sozietate kudeatzaileen kudeaketa-jarduerari ekiteko eta horretan aritzeko baldintzak arautzen ditu, eta sozietate kudeatzaile horiek atzerriko inbertsio-erakundeak kudeatu eta merkaturatu nahi dituztenean bete beharko dituzten baldintzak arautzen ditu. Era berean, atzerriko sozietate kudeatzaile orok atzerriko inbertsio-erakundeak Espainian merkaturatu nahi dituztenean bete beharko dituen baldintzak aurkezten ditu.

Lege honek hainbat alderdi berri sartzen ditu, aurreko legearekin alderatuta.

Lehenengoz, arrisku-kapitaleko erakundeen finantza-araubidea malguago egiten da. Alde horretatik, finantza-tresnen sorta zabalagoa –adibidez partaidetza-maileguak– erabiltzeko aukera ematen da, eta hala, malgutasun handiagoa ematen da nahitaezko inbertsio-koefizientea betetzeko epeen kalkuluetan eta bidea ematen da funtsek emaitzak aldi-aldi bana ditzaten.

Bigarrenez, ETE-etako arrisku-kapitaleko erakundeen figura sortzen da. Figura horri esker, erakunde horiek haien ondarearen % 70 ETE-en partaidetzetan inbertitu ahal dute, eta era berean enpresa horien kudeaketan parte hartu eta aholkularitza-lanak egin. Horrelako erakundeek finantza-araubide malguagoa izango dute. Hala, gehiagotan erabili ahal izango dituzte partaidetza-maileguak nahiz zorra, ETE horiek finantzaketaz

hornitzeko. Horien arauketaren helburua arrisku-kapitalaren sektorea bultzatzea da, enpresen garapenaren hasierako etapak xede direla, sektore horrek hazkunde txikiagoa izan baitu, bai eta horrelako enpresei banku-finantzaketaz bestelako alternatiba eraginkor bat eskaintzea ere.

Hirugarrenez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauak aginduta, legearen aplikazio-eremua hedatzen da inbertsio kolektibo itxiko erakunde oro barnean hartzeko, baldin eta aurretiaz definitutako inbertsio-politika badute eta itzulkinak inbertsiogileen artean banatzen badituzte. Ondorioz, arauaren esparruaren barruan sartzen dira Espainian lehenago merkataritza-sozietatearen formarekin eta kotizatu gabeko baloreetan inbertitzen aritu arren arrisku-kapitalaren inbertsioen eta dibertsifikazioaren araubidea betetzen ez zuten erakundeak. Kategoria horretako erakundeek, inbertsio kolektibo itxiko erakunde izenekoek, funtsen edo sozietateen forma hartu ahal izango dute, eta malgutasun operatiborik handiena baliatu ahal izango dute.

Laugarrenez, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak arrisku-kapitaleko erakundeetan eta inbertsio kolektibo itxiko erakundeetan administrazio-arloan esku-hartzeko araubidea ia osorik desagerrarazten da. Europar Batasuneko araudiaren arabera, baimena mantentzen da sozietate kudeatzaileentzat. Inbertsio kolektibo itxiko funts eta sozietateak, aldiz, haien kudeaketa sozietate kudeatzaile bati eskuordetu bazaio, erregistratu egingo dira, besterik ez.

V

Azken xedapenetako lehenak Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea aldatzen du, inbertsio kolektibo alternatiboko erakundeak kudeatzen dituzten sozietateen araubidea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentaraura egokitzeko.

Horrek esan nahi du diferentzia argia ezartzen dela 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EE Zuzentarauak harmonizatutako inbertsio kolektiboko erakundeen eta inbertsio kolektibo alternatiboko erakundeen artean. Hala, azaroaren 4ko 35/2003 Legearen egiturari eusten zaio, lege horrek inbertsio kolektibo irekiko erakundeen eta haien sozietate kudeatzaileen arauketa biltzen jarraitzen baitu; arrisku-kapitaleko erakundeen eta inbertsio kolektibo irekiko erakundeen eta haien sozietate kudeatzaileen arauketa Lege berriaren mendean uzten da.

Gainera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentaraan ezarrita dagoenaren arabera, lege honen III. tituluaren alderdi berri garrantzitsu bat sartzen da: mugaz haraindiko merkaturatze eta kudeaketarako baldintzak; horien artean dago Europar Batasuneko estatu kideetan baimendutako inbertsio alternatiboko funtsen kudeatzaileek kudeatutako Europar Batasuneko estatu kideetako inbertsio alternatiboko funtsetarako Europako pasaportearen izenekoak, gainera, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentaruaren arabera. Pasaporte horren helburua inbertsio-funtsen Europako barneko merkaturatzea da. Alde horretatik, inbertsio alternatiboko funts horiek merkaturatzeko askatasuna ematen da Europar Batasunean profesionalentzat, baita inbertsio-funts horiek Europar Batasuneko estatu kideetan mugaz haraindi kudeatzeko aukera ere. Ondorio horietarako, hainbat baldintza biltzen da, bai Europar Batasuneko funts eta kudeatzaile horiek Espainian merkaturatu eta kudeatzeko, bai Espainiako kudeatzaileak Europar Batasunean merkaturatu eta kudeatzeko. Halaber, inbertsio alternatiboko funts motaren arabera bereizitako araubide bat txertatzen da, funtsa edo haren kudeatzailea Europar Batasuneko estatu kide batekoak ez diren kasuetarako. Malgutasun horrek eraginkortasun arloan irabaziak bideratu ditzan, eta alde horretatik inbertsiogilearen babesa eta finantza-egonkortasuna ez murrizteko, agintari gainbegiratzaileren arteko lankidetzarako mekanismoak aurreikusten dira, gordailuzain bat egoteko betebeharra ezartzen da, sozietate kudeatzaileentzat baldintza berriak ezartzen dira, arriskuaren, likideziaren eta interes-gatazken kontrola bermatzeko egitura eta antolakuntza egokia eduki ditzaten, eta zehazki arrisku gehiegi hartzea eragotziko duen ordainketa-politika bat bete dezaten.

Halaber, sozietate kudeatzaileen zereginen artean beste erakunde bati zein eskuordetu ahal zaizkien zehazten da.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari sozietate kudeatzaileak baimentzeko eta errebokatzeko nahiz arau-hauste oso larriengatik zehapenak ezartzeko eskumenak ematen zaizkio.

Horrez gain, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 21eko 2013/14/UE Zuzentaraua estatuko legeriara ekartzeko baldintzak biltzen dira. Zuzentaru horrek aldatu egiten ditu enplegu-pentsioen funtsen jardueri eta gainbegiratzeari buruzko 2003/41/EE Zuzentaraua, balore higigarrietako inbertsio kolektiboko erakunde jakin batzuei buruzko lege, erregelamendu eta administrazio arloko xedapenak koordinatzeko 2009/65/EE Zuzentaraua, eta inbertsio alternatiboko funtsen kudeatzaileei buruzko 2011/61/UE Zuzentaraua, kreditu-kalifikazioekiko mendekotasun handiegari dagokionez; hala, mendekotasun hori murriztu dadila bultzatzen da.

VI

Azken xedapenetako bigarrenak azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bategina aldatzen du, enplegu-pentsioen funtsen jardueri eta gainbegiratzeari buruzko 2003ko ekainaren 3ko 2003/41/EE Zuzentaraua aldatzen duen inbertsio alternatiboko funtsen kudeatzaileei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentaruaren transposizioa betetzeko. Aldaketa horri esker, inbertsio alternatiboko funtsen kudeatzaileek pentsio-funtsen inbertsioak kudeatu ahal dituzte; dena dela, pentsio-plan eta -funtsen Erregelamendua aldatzeko gaur egungo proiektuan inbertsio alternatiboko funtsen kudeatzaileei buruzko beren beregiko aipamena agertuko da.

Halaber, bizi-aseguru zuzenaren arloko lege, erregelamendu eta administrazio arloko xedapenak koordinatzeari buruzko Kontseiluaren 1992ko azaroaren 10eko 92/96/EEE Zuzentaruari (79/267/EEE eta 90/619/EEE Zuzentaruak aldatu zituen horri) buruzko aipamena ezabatu da. Horren orde, bizi-aseguruari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko azaroaren 5eko 2002/83/EE Zuzentaraua agertuko da, eta hala, bizi-aseguru zuzena arautzen duen Zuzentaraura egokituko da Legea.

ATARIKO TITULUA

Xedapen orokorrak

1. artikulua. *Xedea.*

Lege honen xedea arrisku-kapitaleko erakundeen, bestelako inbertsio kolektibo itxiko erakundeen eta inbertsio kolektibo itxiko erakundeen sozietate kudeatzaileen araubide juridikoa arautzea da.

2. artikulua. *Inbertsio kolektibo itxia.*

1. Inbertsio kolektibo itxia izango da arrisku-kapitaleko erakundeek eta inbertsio kolektiboko gainerako erakundeek egiten dutena, baldin eta horietan bazkideen edo partaideen desinbertsio-politikak baldintza hauek betetzen baditu:

- a) Desinbertsioak inbertsiogile edo partaide guztientzat aldi berean egitea, eta
- b) inbertsiogile edo partaide bakoitzak hartzen duena haietariko bakoitzari dagozkion eskubideen araberakoa izatea, estatutu edo erregelamenduetan mota guztietako akzio edo partaidetzarako ezarrita dauden baldintzen arabera.

2. Nolanahi ere, lege honen ondorioetarako, inbertsio kolektibo itxiko erakundeak izango dira Batzordearen 2013ko abenduaren 17ko 694/2014 zenbakidun Erregelamendu Eskuordetuaren (EB) 1.2 artikuluan azaltzen direnez bestelako mota batekoak direnak.

Erregelamendu eskuordetu horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/61/UE Zuzentaraua osatzen da, inbertsio-funts alternatiboen kudeatzaileen motak zehazten dituzten arauketako arau teknikoetara dagokienez.

3. artikulua. *Arrisku-kapitaleko erakundeak.*

1. Arrisku-kapitaleko erakundeak (AKE) izango dira inbertsiogileentzat irabaziak edo etekinak sortzea helburu duen merkataritza-jarduera baten bidez hainbat inbertsiogilerengandik kapitala jasotzen duten inbertsio kolektibo itxiko erakundeak. Halako erakundeen xede nagusia lege honen 9. artikuluan dago definituta.

2. AKEak sozietate kudeatzaile baimenduek kudeatuko dituzte, lege honen xedatuta dagoenaren arabera.

3. AKE-ek arrisku-kapitaleko sozietateen (AKS) edo arrisku-kapitaleko funtsen (AKF) forma juridikoa izan ahal dute, eta haien inbertsio-araubidea I. tituluko II. kapituluko 2. atalean ezarrita dagoena izango da.

4. AKEak ETE-AKE deituko dira I. tituluko II. kapituluko 3. atalean inbertsio-araubidearen arloan ezarrita dagoena betetzen dutenean. ETE-AKEek ETE-entzako arrisku-kapitaleko sozietateen (ETE-AKS) edo ETE-entzako arrisku-kapitaleko funtsen (ETE-AKF) forma juridikoa hartu ahal dute.

4. artikulua. *Inbertsio kolektibo itxiko erakundeak.*

1. Inbertsio kolektibo itxiko erakundeak (IKIE) izango dira merkataritza- edo industria-helbururik izan gabe merkaturatze-jarduera baten bitartez kapitala hainbat inbertsiogilerengandik jasotzen duten eta mota guztietako aktibo finantzarioetan eta ez-finantzarioetan inbertitzen duten inbertsio kolektiboko erakundeak. Mota horretako erakundeek inbertsio-politika definitua dute.

2. IKIEak sozietate kudeatzaile baimenduek kudeatuko dituzte, lege honen xedatuta dagoenaren arabera.

3. IKIE-ek sozietateen forma juridikoa hartu ahal dute, eta inbertsio kolektibo itxiko sozietateak (IKIS) izango dira, edo funtsen forma, eta inbertsio kolektibo itxiko funtsak (IKIF) izango dira.

4. Lege honetan ezarrita dagoenaren ondorioetarako IKIEen kontzeptuaren barruan ez dira sartuko aurreko artikuluan aipatzen diren arrisku-kapitaleko erakundeak, ezta Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen arabera baimendutako erakundeetako bat ere.

5. artikulua. *Ezarpen-eremua.*

1. Lege hau inbertsio kolektiboko erakunde hauei aplikatuko zaie:

a) Sozietateen kasuan, sozietate-helbidea Espainian duten AKE eta IKIE-ei, edo, funtsen kasuan, Espainian eratu direnei.

b) Europar Batasuneko beste estatu kide batean eratu diren eta estatu kide batean baimendutako sozietate kudeatzaileek kudeatzen dituzten AKE eta IKIE-ei, 2003/41/EE eta 2009/65/EE Zuzentarauak eta 1060/2009 (KE) eta (EB) 1095/2010 zenbakidun Erregelamenduak aldatzen dituen inbertsio-funts alternatiboen kudeatzaileei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren babespean, baldin eta Espainian inbertsiogile profesionaleri merkaturatzen bazaizkie. Kasu horretan, Espainian egiten duten jardueran 76. artikulua aipatzen dituen arauak soilik aplikatuko zaizkie.

c) Hirugarren estatuetan eratu diren eta sozietate kudeatzaileek Europar Batasuneko estatu kide batean kudeatzen dituzten AKE eta IKIE-ei, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren babespean, baldin eta Espainian inbertsiogile profesionaleri merkaturatzen bazaizkie. Kasu horretan, Espainian egiten duten jardueran 77. artikulua aipatzen dituen arauak soilik aplikatuko zaizkie.

d) Helbidea Europar Batasuneko estatu kide batean ez duten sozietate kudeatzaileek kudeatzen dituzten AKE eta IKIE-ei, baldin eta Espainian inbertsiogile profesionaleri merkaturatzen bazaizkie. Kasu horretan, Espainian egiten duten jardueran 78. artikulua aipatzen dituen arauak soilik aplikatuko zaizkie.

e) Aurreko b), c) eta d) idatzi-zatietan azaldu diren AKE-ei, baldin eta Espainian inbertsiogile ez-profesionaleri merkaturatzen bazaizkie, Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 78 bis artikuluko 3. paragrafoan definituta dauden bezala. Kasu horretan, Espainian egiten duten jardueran 79. artikulua aipatzen dituen arauak eta 75. artikuluko 2. eta 4. paragrafoetan AKEak profesional ez diren inbertsiogileei merkaturatzearen gainean aurreikusita dagoena aplikatuko zaie.

f) Europako arrisku-kapitaleko funtsei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko apirilaren 17ko 345/2013 zenbakidun Erregelamenduak araututako Europako arrisku-kapitaleko funtsei, baldin eta sozietate-helbidea Espainian badute –sozietateen kasuan–, Espainian eratu badira –funtzen kasuan–, edo Espainian merkaturatzen badira Europako Erregelamendu horren arabera.

g) Europako gizarte-ekintzaitzako funtsei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko apirilaren 17ko 346/2013 zenbakidun Erregelamenduak araututako Europako gizarte-ekintzaitzako funtsei, baldin eta sozietate-helbidea Espainian badute –sozietateen kasuan–, Espainian eratu badira –funtzen kasuan–, edo Espainian merkaturatzen badira Europako Erregelamendu horren arabera.

2. Halaber, lege hau aplikatuko zaie II. tituluaren aurreikusitakoaren arabera eraturako erakunde itxien sozietate kudeatzaileei (EISK), AKEak, IKIEak, EAKFak edo EGEFak kudeatzen dituzten inbertsio kolektibo erakundeen sozietate kudeatzaileei (IKESK), erakunde horien gordailuzainei, bai eta AKE-ei edo IKIE-ei zerbitzuak ematen dizkieten beste erakunde batzuei, lege honetan ezarrita dauden baldintzetan.

6. artikulua. *Baztertutako erakundeak.*

Lege hau ez da aplikatuko ondoko erakunde hauetan:

1. Zorro-sozietateetan. Halakoak dira enpresa batean edo batzuetan partaidetzak dituzten sozietateak. Haien merkataritza-helburua da enpresa-estrategia bat edo batzuk gauzatzea haien enpresa filial, bazkidetu edo partaidetuen bitartez, epe luzean horien balioan ekarpena egiteko helburuz, baldin eta:

a) eragiketak beren kontura egiten dituzten eta haien balioak merkatu arautu batean negoziatzeko onartuta dauzkaten enpresak badira,

b) edo bestela, haien enpresa filial edo bazkidetuen desinbertsioaren bitartez inbertsiogileentzat etekinak sortzeko funtsezko helburuarekin ez badira sortu, eta hori agerian geratzen bada haien urteko txostenean edo bestelako agiri ofizial batzuetan.

2. Pentsio-funtsak, bidezkoa denaren arabera barnean direla funts horiek kudeatzeaz arduratzen diren eta haien izenean jarduten duten erakundeak, baldin eta aurreko artikuluan aipatutako inbertsio-erakundeak kudeatzen ez badituzte.

3. Estatuz gaidiko erakundeak, esate baterako Europako Banku Zentrala, Europako Inbertsio Bankua, garapenaren finantzaketarako Europako erakundeak, Munduko Bankua, Nazioarteko Moneta Funtsa eta alde biko garapen bankuak, eta antzeko beste estatuz gaidiko erakunde eta nazioarteko erakundeak, baldin eta halako erakundeek 1. paragrafoan aipatutako inbertsio-erakundeetako bat edo batzuk kudeatzen badituzte, eta inbertsio kolektiboko erakundeek interes publikoaren alde jarduten duten heinean.

4. Estatuetako banku zentralak.

5. Estatuetako, eskualdeetako eta udalerrietako gobernu eta erakundeak edo gizarte-segurantzako araubideei eta pentsioei laguntzeko funtsak kudeatzen dituzten beste erakunde batzuk.

6. Langileen partaidetza-araubideak edo langileen aurrezki-araubideak.

7. Titulizazio-funtsak.

8. Higiezin merkatuetan inbertitzeko sozietate anonimo kotizatuak arautzen dituen urriaren 26ko 11/2009 Legean arautzen diren higiezin merkatuko inbertsioko sozietate anonimo kotizatuak.

9. Kreditu-erakundeak berregituratzeari eta desegiteari buruzko azaroaren 14ko 9/2012 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian arautzen diren banku-aktiboen funtsak.

10. Kapital-atzipena estatuetan edo eraketa-agirietan inbertsiogile bakar batera mugatuta duten AKEak edo IKIEak.

11. Balore-burtsa batean negoziatzeko baloreak dituzten finantza-arloko zorro-sozietateak.

12. Sozietate kudeatzaileak, AKE edo IKIE bat edo gehiago kudeatzen dituzten heinean, eta haien inbertsiogile bakarra sozietatea kudeatzailea, enpresa nagusia edo kudeatzailearen filialak edo enpresa nagusi horren beste filial batzuk badira, baldin eta inbertsiogileetako bat ez bada aldi berean AKE edo IKIE. Hala ere, horiek IKIESK gisa baimena eskatu ahal izango dute eta hala lege honen mendean jarri.

7. artikulua. *Finantza-erakundearen eta enpresa ez-finantzarioaren kontzeptua.*

1. Lege honen ondorioetarako, finantza-erakunde izango dira kategoria hauetako batean daudenak:

- a) Kreditu-erakundeak eta kredituko finantza-establezimenduak.
- b) Kontsumitzaileekin hipoteka-maileguak edo -kredituak kontratatzea eta mailegu-edo kreditu-kontratuak egiteko bitartekaritza-zerbitzuak kontratatzea arautzeko martxoaren 31ko 2/2009 Legearen 1.1 artikuluan azaltzen diren enpresak.
- c) Inbertsio-zerbitzuetako enpresak.
- d) Erakunde aseguratzaile eta berraseguratzailak.
- e) Inbertsio kolektiboko sozietateak, finantza arlokoak zein finantza arlokoak ez direnak.
- f) IKESKak eta pentsio-funtsen edo titulizazio-funtsen sozietate kudeatzaileak.
- g) AKS, IKIS eta IKIESak.
- h) Finantza-erakundeek jaulkitako akzioak edo partaidetzak edukitzea jarduera nagusi duten erakundeak, paragrafo honetan definituta dauden moduan.
- i) Elkarren bermeko sozietateak.
- j) Diru elektronikoko erakundeak.
- k) Ordainketa-erakundeak.
- l) AKFak, IKIFak, inbertsio-funts irekiak, pentsio-funtsak eta titulizazio-funtsak.
- m) Atzerriko erakundeak, haien izendapena edo estatutua edozein dela ere, aplikatu ahal zaien araudiaren arabera aurrekoen ohiko jarduerak egiten dituztenak.

2. Lege honen ondorioetarako, finantza arlokoak ez diren enpresak hauek izango dira: aurreko paragrafoak aurreikusitako kategorietan ez daudenez gain, finantza arlokoak ez diren erakundeek jaulkitako akzioak edo partaidetzak edukitzea jarduera nagusi duten erakundeak.

I. TITULUA

Arrisku-kapitaleko erakundeen eta inbertsio kolektibo itxiko erakundeen araubidea

I. KAPITULUA

Arrisku-kapitaleko erakundeen eta inbertsio kolektibo itxiko erakundeen eraketa

8. artikulua. *Arrisku-kapitaleko erakundeen eta inbertsio kolektibo itxiko erakundeen eraketa.*

AKE edo IKIE bat eratzeko eta jarduerari ekiteko, IKIEsek hau egin beharko dute:

a) Inbertsio-erakundeari buruz 45.3 artikuluan aurreikusitako informazioa Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari bidali, dela sozietate kudeatzaile gisa baimentzeko prozesuan, dela erakundea eratzeko unean.

Agiri horiek eguneraturik egon behar dute, beti.

b) AKEa edo IKIEa eskritura publiko baten bidez eratu eta Merkataritza Erregistroan inskribatu. AKF eta IKIFentzat betekizun horiek aukerakoak izango dira.

c) Aurreko idatzi-zatietan azaldu diren agiriak aurkeztu, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erregistro egokian inskribatzeko. Aurkeztu beharreko agiri guztiak aurkeztu direla egiaztatutakoan, Batzorde horrek erregistroa egingo du.

II. KAPITULUA

Arrisku-kapitaleko erakundeen araubide juridikoa

1. atala. Arrisku-kapitaleko erakundeak

9. artikulua. *Jarduera nagusia*

1. AKE-en helburu nagusia da higiezinaren zein finantzen arlokoak ez diren enpresen kapitalean aldi baterako partaidetzak hartzea. Enpresa horiek, partaidetza hartzen den unean, ez dute kotizatuko balore-burtsako lehen merkatuan, ezta Europar Batasuneko edo Ekonomiako Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundeko gainerako herrietako beste merkatu arautu baliokide batean ere.

2. Aurrekoa gorabehera, helburu nagusi hau ere izan ahal izango dute:

a) Enpresek jaulkitako baloreetan inbertitzea. Enpresa horien aktiboaren % 50 baino gehiago higiezinenez osatuta egon behar da, baldin eta partaidetutako erakundearen higiezinaren kontabilitate-balio osoaren % 85 egiten duten higiezinak, baloreak edukitzen diren denboran, etengabe ekonomia jarduera bati lotuta badaude, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari eta Sozietateen gaineko Zergaren, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren eta Ondarearen gaineko Zergaren legeak partez aldatzeari buruzko azaroaren 28ko 35/2006 Legean aurreikusitako baldintzetan.

b) Finantza arlokoak ez diren enpresen kapitalean aldi baterako partaidetzak hartzea. Enpresa horiek, balore-burtsako lehen merkatuan kotizatuko dute, edo Europar Batasuneko edo Ekonomiako Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundeko gainerako herrietako beste merkatu arautu baliokide batean, baldin eta enpresa horiek kotizaziotik baztertzen badira partaidetza hartu eta hurrengo hamabi hilabeteen barruan.

c) Beste AKE batzuetan inbertitzea, lege honetan aurreikusita dagoenaren arabera.

ETE-AKEak mota berezi bateko AKEtzat hartuko dira I. tituluko II. kapituluko 3. atalean inbertsio-araubidearen arloan ezarrita dagoena betetzen dutenean.

10. artikulua. *Jarduera osagarriak.*

1. Beren funtsezko sozietate-xedea garatzeko, AKE-ek partaidetza-maileguak eman ahal izango dituzte, bai eta beste finantzaketa-forma batzuk ere, azken kasu horretan, eta ETE-AKE-etarako aurreikusita dagoenari kalterik egin gabe, soilik nahitaezko inbertsio-koefizientearen barruan dauden sozietate partaidetueterako. Halaber, aholkularitza-jarduerak egin ahal izango dituzte, aurreko artikulua arabera AKE-en inbertsioaren xede nagusia osatzen duten enpresentzat, AKE-ek beraiek partaidetuta egon zein ez. AKFen kasuan, aurreko jarduera horiek sozietate kudeatzaileek egingo dituzte. AKSen kasuan, beraiek egin ahal izango dituzte, edo bestela, beren sozietate kudeatzaileek.

2. AKSek, haien sozietate-xedean barruan, eta AKFek, haien xede nagusiaren barruan, ezin egingo dituzte lege honetan babestuta ez dauden jarduerak.

11. artikulua. *Izenaren erreserba.*

1. «Arrisku-kapitaleko sozietatea», «arrisku-kapitaleko funtsa», «ETE-entzako arrisku-kapitaleko sozietate», «ETE-entzako arrisku-kapitaleko funtsa» eta «inbertsio kolektibo itxiko erakundeen sozietate kudeatzailea» izendapenak, edo haien laburtzapenak, «AKE», «AKF», «ETE-AKS», «ETE-AKF» eta «IKESK», lege honen babespean eratu diren eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ondorio horretarako kudeatzen duen administrazio-erregistroan inskribatzen diren erakundeei erreserbatuko zaizkie.

2. Aurreko paragrafoko erakundeek beren sozietate-xedean nahitaez agerrarazi beharko dute beren izendapena edo izendapen horren laburtzapena.

3. Merkataritza Erregistroak eta gainerako erregistro publikoek ez dituzte inskribatuko lege honetan ezarritako araubidearen aurkako izendapena duten erakundeak. Hala eta guztiz ere, inskribatu egin badira, inskripzio horiek erabat erreboakaak izango dira zuzenbidearen arabera. Deuseztasun horrek ez ditu kaltetuko fede onez jokatu duten hirugarrenen eskubideak, dagozkien erregistroen edukiaren arabera eskuratu badituzte.

4. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erregistroetan inskribatutako pertsona edo erakunde batek ezin erabiliko du 1. paragrafoan aipatzen den izendapena edo horiekin nahastu ahal den beste adierazmolde bat.

5. Artikulu honetan ezarritakoa betetzen ez duten pertsona edo erakundeak IV. tituluan aurreikusita dagoenaren arabera zehatuko dira. Izendapenak erabiltzeari berehala uzteko agindeia egingo zaie. Hala ere erabiltzen jarraitzen badute, 300.000 eurora arte isun hertsatzaileak ezarri ahal izango zaizkie, eta gerora agindei gehiago egiten bazaizkie, isun horiek errepikatu ahal izango dira.

6. Aurreko paragrafoan aipatzen diren agindeiak egiteko eta isunak jartzeko eskuduna Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala izango da. Hark, halaber, jokaera horri buruzko ohar publikoak ere egin ahal izango ditu. Agindeiak egin baino lehen interesa duen pertsona edo erakundeari entzunaldia eskainiko zaio, eta isunak 92. artikuluan aurreikusitako prozeduraren arabera ezarriko dira.

7. Artikulu honetan xedatuta dagoena gorabehera, beste erantzukizun batzuk ere eskatu ahal izango dira, zigor-erantzukizunak barne direla.

12. artikulua. *Inbertsio-politika.*

Inbertsio-politika izango da xede bat betetzeko bideratutako erabaki koordinatuen multzoa. Erabaki horiek honako alderdi hauei buruzkoak izan ahal dira:

- a) Inbertsioen xede izango diren enpresa-sektoreak.
- b) Inbertsioen xede izango diren eremu geografikoak.
- c) Parte hartu nahi deneko sozietate motak eta sozietate horiek hautatzeko irizpideak.
- d) Eduki nahi diren gehieneko eta gutxienerako partaidetza-ehuneko orokorrak.
- e) Inbertsioak mantentzeko denborazko gehieneko eta gutxienerako irizpideak eta desinbertsio-formulak.

- f) Sozietate partaidetuei emango zaizkien finantzaketa-motak.
- g) Sozietate kudeatzaileak partaidetutako sozietateen alde egin ahal izango dituen prestazio osagarriak, adibidez aholkularitza edo antzeko zerbitzuak.
- h) Sozietate kudeatzaileak partaidetutako sozietateetan esku hartzeko modalitateak, eta sozietate horien administrazio-organoeetan agertzeko formulak.
- i) Egingo diren inbertsioen murrizketak.
- j) Inplementatu nahi den estrategia.
- k) Palanka-efekturako politika eta palanka-efekturako mugak.
- l) Hartu nahi diren arriskuei buruzko informazioa.

2. atala. Arrisku-kapitaleko erakundeen inbertsioen araubidea

13. artikulua. Arrisku-kapitaleko erakundeen nahitaezko inbertsio-koefizientea.

1. Nahitaezko inbertsio-koefizientea izango da aktibo konputagarriaren gutxieneko ehuneko bat aktibo jakin batzuetan inbertitzeko betebeharra. Ehuneko hori, 18. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera definituko da.

2. AKE-ek haien inbertsio-politika egokituko dute, haien estatutuetan edo kudeaketako erregelamenduetan ezarritako irizpideen arabera.

3. AKE-ek, gutxienez, haien aktibo konputagarrien % 60 mantendu beharko dute 18. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, honako aktibo hauetan:

a) Akzioak edo bestelako finantza arloko balore edo tresnak, akzioak harpidetzeko edo eskuratzeko eskubidea eman ahal dutenak, eta haien jarduera nagusiaren eremuaren barruan dauden enpresen kapitaleko partaidetzak, 9. artikuluekin bat etorritik.

b) Haien jarduera nagusiaren eremuaren barruan dauden enpresentzako partaidetza-maileguak, haien errentagarritasuna enpresaren etekin edo galerekin erabat lotuta badago; errentagarritasunik egon ezean enpresak ez du etekinik lortuko.

c) Haien jarduera nagusiaren eremuaren barruan dauden enpresentzako beste partaidetza-mailegu batzuk, aktibo konputagarriaren zenbateko osoaren % 30era arte.

d) AKE-en akzioak edo partaidetzak, 14. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

4. Nahitaezko inbertsio-koefizientearen barruan egongo dira honako hauek ere: aurreko b) eta c) idatzi-zatietako baldintzak betetzen dituen finantzaketa ematea, inbertsioak egitea Espainiako burtsa bateko bigarren merkatuan kotizatzen edo negoziatzen diren finantzaz bestelako enpresen akzio eta kapital-partaidetzetan, Espainiako negoziazio-sistema aldeanitz batean edo beste herri batzuetako merkatu baliokideetan, eta enpresa horiei partaidetza-maileguak ematea. Ondorio horietarako, aldi berean ezaugarri hauek betetzen dituzten merkatuak gai direla ulertuko da:

a) Segmentu berezia edo atzerriko merkatu bat izatea. Azken kasu horretan, merkatu horretan sartzeko baldintzak Espainiako araudian negoziazio-sistema aldeanitzetarako ezarritakoen antzekoak izango dira.

b) Enpresa txiki eta ertainen baloreetan espezializatutako merkatua izatea.

c) Europar Batasuneko estatu kide batean edo hirugarren herri batean egotea, baldin eta hirugarren herri hori ez bada agertzen Kapital Zuriketari buruzko Nazioarteko Finantza Ekintzako Taldeak ezarritako herri eta lurralde ez-laguntzaileen zerrendan, eta Espainiarekin hitzarmena sinatu badu ezarpen bikoitza saihesteko, informazioa elkartrukatzeko klausula batekin edo zerga arloko informazioa elkartrukatzeko akordio batekin.

5. AKE batek aurreko atalaren barruan ez dagoen merkatu batean kotizatzen onartu den erakunde bateko partaidetza badu, partaidetza hori nahitaezko inbertsio-koefizientearen barruan konputatu ahal izango da gehienez hiru urteko epean, erakundea kotizatzen onartu den datatik aurrera zenbatuta. Azaldutako epea igarotakoan, partaidetza hori erabilera askeko koefizientearen barruan konputatu beharko da. Aurreko hori aplikatuko da, halaber, AKEak aipatu den mota horretako erakunde bati partaidetza-mailegu bat eman badio.

6. Nahitaezko inbertsio-koefizientea sozietate-ekitaldi bakoitza amaitzean bete beharko da.

14. artikulua. *Inbertsioa arrisku-kapitaleko erakundeetan.*

1. AKE-ek gehienez haien aktibo konputagarrien % 100 inbertitu ahal izango dute nahitaezko inbertsio-koefizientea bete gabe, lege honen arabera eraturako beste AKE batzuetan eta 2. paragrafoko ezaugarriak betetzen dituzten atzerriko antzeko erakundeetan.

2. Atzerriko erakundeetan egindako inbertsioa, aurreko paragrafoan aipatu den hori, 13.3 artikuluan ezarritako nahitaezko inbertsio-koefizientearen barruan konputatu dadin, beharrezkoa izango da erakundeak beraiek edo haien sozietate kudeatzaileak Europar Batasuneko estatu kide batean edo hirugarren herri batean ezarrita egotea, baldin eta hirugarren herri hori ez bada agertzen Kapital Zuriketari buruzko Nazioarteko Finantza Ekintzako Taldeak ezarritako herri eta lurralde ez-laguntzaileen zerrendan, eta Espainiarekin hitzarmena sinatu badu ezarpen bakoitza saihesteko, informazioa elkartrukatzeko klausula batekin edo zerga arloko informazioa elkartrukatzeko akordio batekin; eta, haien izendapena edo estatutua edozein dela ere, lege honetan araututako AKE-en antzeko jarduerak egiten badituzte.

3. Nolanahi ere, arrisku-kapitaleko erakundeak 16. artikuluko inbertsioaren dibertsifikazioari buruzko koefizienteak bete beharko ditu.

15. artikulua. *Erabilera askeko koefizientea.*

13. artikuluan zehaztutako nahitaezko inbertsio-koefizientearen mendean ez dagoen aktiboaren gainerako zatia hemen mantendu ahal izango da:

a) Araututako merkatuetan edo antolatutako bigarren merkatuetan negoziatutako errenta finkoko baloreetan.

b) Jarduera nagusiaren eremuaren barruan ez dauden enpresen kapitaleko partaidetzak, 9. artikulua-rekin bat etorriz, barnean direla 14. artikuluan xedatuta betetzen ez duten inbertsio kolektiboko erakundeetan eta AKE-etan eta IKIE-etan egindako partaidetzak.

c) Eskudirua. Estatutuen edo erregelamenduen arabera aldizkako itzulketak aurreikusten diren kasuetan, likidezia-koefizientearen sartuko da, Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroak, edo berariaz eskuordeturik, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak zehazten dituen gainerako aktibo likidoekin batera.

d) Partaidetza-maileguak.

e) 9.1 artikuluan definitzen den bezala bere sozietate-xede nagusian sartzen diren enpresa partaidetuei mota guztietako finantzaketa ematea.

f) Autokudeatutako AKE-en kasuan, sozietate-kapitalaren % 20 gehienez, jarduera egiteko beharrezkoak diren ibilgetuko elementuetan.

16. artikulua. *Taldearen mugak eta inbertsioen dibertsifikazioa.*

1. AKE-ek gehienez haien aktibo konputagarriaren % 25 inbertitu ahal izango dute, enpresa batean inbertsioa egiteko unean, eta gehienez % 35 sozietate-talde berbereko enpreetan. Talde hori, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan definituta dagoena dela ulertuko da.

2. AKE-ek gehienez haien aktibo konputagarriaren % 25 inbertitu ahal izango dute haien taldeko edo haien sozietate kudeatzailearen taldeko enpresetan. Talde hori, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan definituta dagoena dela ulertuko da. Betiere, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Estatutuek edo erregelamenduek inbertsio horiek aurreikusi beharko dituzte.
- b) Erakundeak edo, bidezkoa bada, haren sozietate kudeatzaileak prozedura formal bat edukitzea, bere barneko jokabideko erregelamenduan bildua, interes-gatazkak saihesteko eta eragiketa eskusiboki erakundearen intereserako egiten dela egiaztatze bidea emango duena. Kontseiluaren barruan sortutako batzorde independente batek edo sozietate kudeatzaileak zeregin hori betetzeko agintzen dion organo independente batek egiaztatu beharko du baldintza horiek betetzen diren.
- c) Liburuxketan eta erakundearen aldizkako informazio publikoan taldeko erakundeetan egindako inbertsioaren berri zehatz-mehatz ematea.

Artikulu honetan aurreikusitako ondorioetarako –eta horietarako soilik–, 9. artikuluko baldintzak betetzen dituzten AKE-ek parte hartzen duteneko enpresak, dena delako AKEaren taldeko enpresak ez direla ulertuko da.

17. artikulua. *Inbertsioetan ezarritako mugak aldi baterako ez betetzea.*

1. Nahitaezko inbertsio-koefizientea aldi baterako ez betetzea:

a) AKE-ek 13.3 artikuluan aurreikusitako ehunekoa betetzeari utzi ahal izango diote epealdi hauetan:

1.a Lehenengo hiru urteetan, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erregistro egokian inskribatzen denetik aurrera.

2.a Hogeita lau hilabeteetan, ez betetzea eragiten duen desinbertsio bat gertatzen denetik aurrera (baldin eta nahitaezko koefizientearen konputatu ahal bada), betiere aurretiaz ez-betetzetik gertatu ez bada.

b) AKE batean kapitala handitzen bada baliabide berrien ekarpenarekin, edo AKFetan baliabideen ekarpen bat egiten bada, 13.3 artikuluan azaldutako ehunekoa urratu ahal izango da handitzea edo ekarpen berria egin eta hurrengo hiru urteetan, baina handitze hori edo ekarpen hori egin baino lehen koefizientea bete dadila eskatuko da. Denborazko muga hori, AKSetarako, handitzeari dagokion kapitala ordaintzen den datatik aurrera kalkulatu ahal izango da, baldin eta diru-kopurua kapitala handitu ondoko 6 hilabeteetan barruan ordaintzen bada.

2. Autokudeatutako AKS batean kapital-murrizketarik egonez gero, 15. artikuluko f) idatzi-zatian aurreikusitako ehunekoa urratu ahal izango da kapitala murriztu ondoko hiru urteetan.

3. Dibertsifikazio-koefizientea aldi baterako ez betetzea:

a) 16. artikuluan aurreikusitako ehunekoa AKE-ek lehenengo hiru urteetan urratu ahal izango dute, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erregistro egokian inskribatzen direnetik aurrera zenbatuta.

b) Partaide edo bazkideei ekarpenak itzuliz gero, ehuneko horiek konputatzean, itzulketa hori egin baino lehen zegoen ondare garbia kontuan hartuko da.

4. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, salbuespen gisa, artikulu honetako aurreko paragrafoetan aurreikusitako ehunekoak betetzetik salbuetsi ahal izango du, edo paragrafo horietan azaldu dituen epeak luzatzeko baimena eman, AKSek edo sozietate kudeatzaileak hala eskatuta, kontuan hartuta merkatuaren egoera eta aipatu den ehunekoa behar bezala betetzeko proiektuak aurkitzeko zailtasuna.

18. artikulua. *Aktibo konputagarria eta inbertsioen beste muga batzuk.*

1. Lege honen ondorioetarako, arrisku-kapitaleko sozietateen eta arrisku-kapitaleko funtsen aktibo konputagarria izango da ondare garbiaren, jasotako partaidetza-maileguen eta ezarpen-efektuko ezkutuko gainbalio garbien zenbatekoak batzearen emaitza, 2. paragrafoan aurreikusita dagoenaren arabera aurreikusten diren doikuntzekin.

2. Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroak, edo, berariazko gaikuntzarekin, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, aurreko paragrafoan bildutako aktibo konputagarria osatzen duten kontabilitate-kontzeptuak doitu, zedarritu eta zehaztu ahal izango dituzte, eta inbertsiorako mugak ere ezarri, aktiboen edo jardueren mota jakin batzuetan, likideziako gutxieneko koefiziente bat, bidezkoa izanez gero AKE-ek mantendu beharko dutena, bai eta AKE-ek besterengandik jaso ahal duten finantzaketarako mugak.

3. Nolanahi ere, AKE-ek inbertsioak titulizazioetan egin ahal izango dituzte baldin eta titulazio horiek sortu dituenak gutxienez % 5 atxikitzen badu, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/61/UE Zuzentaraua salbuespenei, jardueran aritzeko baldintza orokorrei, palanka-efektuari, gardentasunari eta gainbegiratzeari buruz osatzen duen Batzordearen 2012ko abenduaren 19ko 231/2013 zenbakidun Erregelamendu Eskuordetuan aurreikusitako titulizazio-posizioen mugen mende egingo dira.

19. artikulua. *Merkatu arautuetan kotizatutako enpresa ez-finantzarioetako partaidetzak eskuratzea.*

AKE-ek 13.4 artikuluan zerrendatutakoez bestelako merkatu arautu batean kotizatzen duten finantzaz bestelako enpresen partaidetzak eskuratzea 13.3 artikuluko nahitaezko inbertsio-koefizientearen barruan konputatzeko, AKEak edo, bidezkoa bada, sozietate kudeatzaileak partaidetutako enpresa kotizaziotik bazter dadila lortu beharko du partaidetza hartu eta hurrengo hamabi hilabeteen barruan. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak epe horren luzapena baimendu ahal izango du AKEak edo sozietate kudeatzaileak hala eskatuta, zailtasun teknikoak edo merkatuaren eskariaren zailtasunak kontuan hartuta, horiek bazterketa alde ekonomikoak bideraezin bihurtzen baitute.

3. atala. *ETE-etako arrisku-kapitaleko erakundeen inbertsioen araubidea*

20. artikulua. *ETE-etako arrisku-kapitaleko erakundeak.*

ETE-AKE-ek uneoro bete beharko dituzte 1. atalean eskatzen diren baldintzak, eta bereziki, atal horretan aurreikusita dagoen inbertsio-araubidea. Halaber, partaidetuta dituzten erakundeekin aholkularitza-harremana ezarri beharko dute.

21. artikulua. *ETE-etako arrisku-kapitaleko erakundeen nahitaezko inbertsio-koefizientea.*

1. ETE-etako AKE-ek haien inbertsio-politika egokituko dute, haien estatutuetan edo kudeaketako erregelamenduetan ezarritako irizpideen arabera. Inbertsio-politika, 12. artikuluan definituta dagoena dela ulertuko da.

2. Nolanahi ere, haien aktibo konputagarriaren % 75 gutxienez –aktibo konputagarri hori 18. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera definituta– honako finantza-tresna hauetan eduki beharko dute, haien jardueraren xede diren enpresak finantzaketaz hornitzeko:

a) Akzioak edo bestelako finantza arloko balore edo tresnak, akzioak harpidetzeko edo eskuratzeko eskubidea eman ahal dutenak, eta kapitaleko partaidetzak.

b) Partaidetza-maileguak.

c) Finantza-tresna hibridoak, baldin eta tresna horien errentagarritasuna enpresaren etekin edo galerekin lotuta badago, eta konkurtsorik egonez gero printzipalaren berreskurapena ez badago osorik bermatuta.

d) Zor-tresnak, ETE-AKEak aurreko idatzi-zatietako tresnetako baten bitartez partaidetzaren bat lehendik daukaneko enpresen bermearekin edo bermerik gabe.

e) Akzioak edo partaidetzak lege honen arabera eratutako beste ETE-AKE batzuetan.

3. ETE-AKE-en jardueraren xede diren enpresek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Inbertsioa egiterakoan, bigarren mailako merkatu arautu batean edo negoziazio-sistema aldean batean kotizatze onartuta ez egotea.

b) Inbertsioa egiterakoan, 250 langile baino gutxiago izatea.

c) Inbertsioa egiterakoan, urteko aktiboa gehienez 43 milioi euro izatea, edo urteko negozio-bolumena gehienez 50 milioi euro izatea.

d) Inbertsio kolektiboko erakundea ez izatea.

e) Finantza-enpresak edo higiezin arlokoak ez izatea.

f) Europar Batasuneko estatu kide batean edo hirugarren herri batean egotea, baldin eta hirugarren herri hori ez bada agertzen Kapital Zuriketari buruzko Nazioarteko Finantza Ekintzako Taldeak ezarritako herri eta lurralde ez-laguntzaileen zerrendan, eta Espainiarekin hitzarmena sinatu badu ezarpen bikoitza saihesteko, informazioa elkartrukatzeko klausula batekin edo zerga arloko informazioa elkartrukatzeko akordio batekin.

4. Nahitaezko inbertsio-koefizientea sozietate-ekitaldi bakoitza amaitzean bete beharko da.

22. artikulua. *ETE-etako arrisku-kapitaleko erakundeen erabilera askeko koefizientea.*

Aurreko artikuluan zehaztutako nahitaezko inbertsio-koefizientearen mendean ez dagoen aktiboren gainerako zatia hemen mantendu ahal izango da:

a) Araututako merkatuetan edo antolatutako bigarren merkatuetan negoziatutako errenta finkoko baloreetan.

b) Haien jardueraren xede direnez bestelako enpresen kapitaleko partaidetzak, 21.3 artikuluaekin bat etorritz, barnean direla ETE-AKE ez diren inbertsio kolektiboko erakundeetan eta IKIE-etan egindako partaidetzak.

c) Eskudirua. Estatutuen edo erregelamenduen arabera aldizkako itzulketak aurreikusten diren kasuetan, likidezia-koefizientearen sartuko da, Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroak, edo berariaz eskuordeturik, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak zehazten dituen gainerako aktibo likidoekin batera.

d) 9. artikuluan definitzen den bezala bere sozietate-xede nagusian sartzen diren enpresei mota guztietako finantzaketa ematea.

e) Autokudeatutako ETE-AKE-en kasuan, sozietate-kapitalaren % 20 gehienez, jarduera egiteko beharrezkoak diren ibilgetuko elementuetan.

23. artikulua. *Taldearen mugak eta inbertsioen dibertsifikazioa ETE-etako arrisku-kapitaleko erakundeen arloan.*

ETE-AKE-ek gehienez haien aktibo konputagarriaren % 40 inbertitu ahal izango dute, enpresa batean inbertsioa egiteko unean, eta gehienez % 40 sozietate-talde berbereko enpresetan. Talde hori, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan definituta dagoena dela ulertuko da.

24. artikulua. *Inbertsioak aldi baterako ez betetzea.*

21.2, 22.e) eta 23. artikuluetan aurreikusita dauden ez-betetzei 17. artikuluan bildutako erregelak aplikatuko zaizkie.

25. artikulua. *Inbertsioen beste muga batzuk.*

1. Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroak, edo, berariazko gaikuntzarekin, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, aktibo edo jardueren mota jakin batzuetan mugak ezarri ahal izango dituzte, bai horrez gain likideziako gutxieneko koefiziente bat, bidezkoa izanez gero ETE-AKE-ek mantendu beharko dutena; aktibo konputagarria –hau da, ETE-AKE-en aktiboa– osatzen duten kontabilitate-kontzeptuak zehaztu, aurreko artikuluetan aurreikusitako ehunekoak kalkulatzeko, eta ETE-AKE-ek besterengandik jaso ahal duten finantzaketarako mugak ezarri.

2. Nolanahi ere, ETE-AKE-ek titulizazioetan inbertitu ahal izango dute baldin eta titulazio horiek sortu dituenak gutxienez % 5 atxikitzen badu, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/61/UE Zuzentaraua salbuespenei, jardueran aritzeko baldintza orokorre, palanka-efektuari, gardentasunari eta gainbegiratzeari buruz osatzen duen Batzordearen 2012ko abenduaren 19ko 231/2013 zenbakidun Erregelamendu Eskuordetuan aurreikusitako titulizazio-posizioen mugen mende egongo dira.

III. KAPITULUA

Arrisku-kapitaleko sozietateen araubide juridikoa

26. artikulua. *Definizioa eta araubide juridikoa.*

1. AKSak sozietate anonimoen forma duten arrisku-kapitaleko erakundeak dira. 9. eta 10. artikuluetan zerrendatutako jarduerak egin ahal izango dituzte, beren kabuz edo IKIESK baten bitartez.

2. AKSak lege honetan ezarrita dagoenak eraenduko ditu, eta legean ezarrita ez dauden gauzetan, uztailearen 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginak.

3. Harpidetutako gutxieneko sozietate-kapitala 1.200.000 euro izango da (900.000 euro ETE-AKE-en kasuan). Eratzen diren unean gutxienez % 50 ordaindu behar da, eta gainerakoa behin edo hainbat alditan, hiru urteko epearen barruan, sozietatea eratzen denetik aurrera. Gutxieneko sozietate-kapitalaren ordainketak eskudirutan egin beharko dira, AKE-en inbertsioa egiteko gai diren aktiboetan, 13. eta 14. artikuluen arabera, edo haien ibilgetua osatzen duten ondasunetan.

Gutxieneko sozietate-kapitalaren ordainketa gehigarriak edo geroagoko kapital-gehikuntzak eskudirutan egin ahal izango dira, eta horrez gain, AKE-en inbertsioa egiteko gai diren aktiboetan edo ibilgetuan, 13. eta 14. artikuluen arabera.

4. Sozietate-kapitalaren akzioak tituluek ordezkatzeko dituzte (kasu horretan akzio izendunak izango dira), edo kontuko idatzoharrek.

5. Sozietatearen mota orokorrekoak ez diren beste akzio batzuk jaulkitzea onartu ahal izango da, baldin eta edukitzaileek izan dezaketen lehentasunezko tratua eta tratu hori lortzeko baldintzak behar bezala ageri badira sozietatearen estatutuetan.

6. Haien sozietate-estatutuetan, uztailearen 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginean aurreikusitako zehaztapenez gain, inbertsio-politika bilduko da, 12. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, bai eta inbertsioen kudeaketa eskuordetzan emateko aukera ere, 29. artikuluan aurreikusita dagoenaren arabera.

27. artikulua. *Ondarearen balorazioa eta likidazio-balioaren zehaztapena.*

1. AKSaren ondarearen balioa kontu hartzekodunen aktibo errealeen baturatik kontu horien balioa kenduz aterako da. Kontu horien eta aktiboen balioa Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroak, edo, berariazko gaikuntzarekin, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak zehazten dituzten irizpideen arabera ezarriko da.

2. Akzio bakoitzaren balioa honela aterako da: serie bakoitzari esleitutako ondare garbia zati serie bakoitzak zirkulazioan dituen akzioen kopurua.

28. artikulua. *Eraldaketa, bategitea, zatiketa eta gainerako sozietate-eragiketak.*

AKS batek egindako eraldaketa, bategitea, zatiketa eta gainerako sozietate-eragiketak, edo AKS bat sortzeko egiten diren eragiketak, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinarazi beharko zaizkio, 8. artikulua arabera. Autokudeatutako AKS bat bada, baimentzeko baldintzen aldaketaren berri eman beharko da, 52. artikulua arabera.

Bategitearen truke-ekuazio bat ezarri behar bada, sozietatearen estatutueta bategitea eta truke-ekuazio hori egiteko definitutako prozedura hartuko da oinarri.

29. artikulua. *Kudeaketa eskuordetzea.*

1. AKSek haien sozietate-estatutueta aukera hau agerrarazi ahal izango dute: batzar orokorrak erabakia hartuta, edo eskuordetze bidez, administrazio-kontseiluak, aktiboen kudeaketa IKIE batek edo IKESK batek egitea, edo uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 63.1.d) artikuluan aipatzen den inbertsio-zerbitzua emateko gaitutako erakunde batek.

Hartu ahal den erabaki hori eskritura publiko batean agerraraziko da eta Merkataritza Erregistroan eta dagokion administrazio-erregistroan inskribatuko da. Erabaki hori hartu arren, sozietateko administrazio-organoei indarreko araudiak ezartzen dizkien betebeharrak eta erantzukizun guztiak bete beharko dituzte.

2. Sozietate kudeatzailearen izendapenak indarra hartuko du batzar orokorraren erabakia –edo eskuordetze bidez, administrazio-kontseiluarena– administrazio-erregistroan inskribatzen denetik aurrera.

IV. KAPITULUA

Arrisku-kapitaleko funtsen araubide juridikoa

30. artikulua. *Definizioa eta araubide juridikoa.*

1. AKFak ondare bereziak dira, izaera juridikorik gabeak, hainbat inbertsioren jabetzakoak. Ondare horien kudeaketaz eta ordezkapenez sozietate kudeatzaile bat arduratzen da, eta sozietate kudeatzaile horrek jabari-ahalmenak baliatzen ditu funtsaren jabe izan gabe. Funtsaren jarduerak, nagusia eta osagarria, 9. eta 10. artikuluan definitzen diren arrisku-kapitaleko erakundeentzat orokorrean aurreikusten direnak dira, eta jarduera horiek sozietate kudeatzaileak egin behar ditu.

2. Partaide izaera funts komunean ekarpen bat eginez hartzen da.

31. artikulua. *Ondarea.*

1. AKFetako gutxieneko ondare konprometitua, eratzten diren unean, 1.650.000 euro izango da.

2. Ondarearen hasierako eraketarako eta geroko eraketetarako ekarpenak eskudirutan edo 13. eta 14. artikuluen arabera inbertsioa egiteko gai diren aktiboetan egingo dira, baldin eta funtsaren kudeaketako erregelamenduak aurreikusten badu gauzazko ekarpenak zein prozedura eta baldintzaren mendean egin behar diren, ekarritako aktiboak baloratzeko prozedura ere kontuan hartuta.

3. AKFen ondarea partaideek egindako ekarpenekin eta etekinekin eratuko da, horiek banatu ez badira. Partaideek ez die erantzungo funtsaren zorrei, ez bada funtsaren ondarearen mugara arte. Funtsaren ondareak ez die erantzungo partaideen edo sozietate kudeatzaileen zorrei.

4. Ondarea partaidetzetan zatituko da. Partaidetza horiek haien titularrari ondarearen gaineko jabetza-eskubidea emango diote. Partaidetzak ez dira izendunak izango, balore negoziagarriak izango dira, eta ziurtagiri izendunen bidez edo kontuko idatzoharren bidez adierazi ahal izango dira.

Partaidetza bakoitzaren balioa honela aterako da: funtsaren ondarea zati zirkulazioan dauden partaidetzen kopurua. Kopuru hori, bidezkoa bada, partaidetza-motari dagozkion eskubide ekonomikoen arabera doituko da. Baloratzeko, Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroak, edo, berariazko gaikuntzarekin, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ezartzen dituen irizpideei jarraituko zaie.

Funtsaren partaidetza orokorrenaz bestelako ezaugarriak dituzten partaidetzak jaulkitzea baimenduko da, baldin eta aukera hori, partaidetza horiek ezaugarriak eta horiek eskuratzeko baldintzak funtsaren erregelamenduan behar bezala agertzen badira.

32. artikulua. *Funtsaren eraketa.*

1. Funtsa eratzeko, eskudirua edo gai diren aktiboak bateratuko dira, 31.2 artikuluan ezarrita dagoenaren arabera. Hain zuzen ere, eskudiruak edo aktiboek osatuko dute ondarea.

2. Eraketa-kontratua eskritura publikoan edo agiri pribatu batean egin ahal izango da. Kontratu horretan hau agertu beharko da espresuki:

- a) Funtsaren izendapena.
- b) Xedea, 9. eta 10. artikuluetan aurreikusitako jardueri soilik dagokiena.
- c) Funtsak eraketaren unean duen funtsa.
- d) Sozietate kudeatzailearen izena eta helbidea.
- e) Funtsaren kudeaketarako erregelamendua.

33. artikulua. *Funtsaren kudeaketarako erregelamenduaren edukia.*

AKFren kudeaketarako erregelamenduan gutxienez alderdi hauek agertu beharko dira:

- a) Funtsaren iraupen-epea, bidezkoa bada.
- b) Partaidetzen jaulkipen- eta itzulketa-araubidea; bidezkoa bada, araubide horretan agertuko dira bermatzen diren itzulketen kopurua, itzulketen aldizkakotasuna, eta aurreabisuen araubidea, aurreabisurik egonez gero.
- c) Harpidetzen eta itzulketen debekuaren iraupen-epea, harpidetza edo itzulketarik egonez gero.
- d) Partaidetzen balioa kalkulatzeko aldizkakotasuna, harpidetza eta itzulketarako.
- e) Funtsaren administrazioarako, zuzendaritzarako eta ordezkapenerako arauak.
- f) Emaizten banaketaren zehaztapena eta modua.
- g) Eraketako kontratua eta kudeaketako erregelamendua aldatzeko baldintzak.
- h) Sozietate kudeatzailea ordezteko hipotesiak eta beharrezko mekanismoak.
- i) Funtsa bategiteko, desegiteko eta likidatzeko hipotesiak eta beharrezko mekanismoak.
- j) Sozietate kudeatzailearen ordainketa-motak.
- k) 12. artikuluan aipatzen den inbertsio-politika.
- l) Emaizak banatzeko politika.

34. artikulua. *Partaidetzak harpidetu eta itzultzeko araubidea.*

1. Funtseko partaidetzak jaulki eta itzultzeko, sozietate kudeatzaileak bere kudeaketako erregelamenduan ezarrita dauden baldintzak kontuan hartuko ditu.

2. Sozietate kudeatzaileak AKFeko partaidetzen harpidetza eta itzulketa jaulkitzailearen kontura kudeatu ahal izango ditu, eta partaidetzen eskualdaketa besteren kontura; azken kasu horretan, salmenta egin duen partaidearekin adostutako komisio bat jaso ahal izango du horregatik. Kasu guztietan, funts bakoitzaren erregelamenduan ezarrita dagoena hartuko da kontuan.

35. artikulua. *Administrazioa.*

1. AKFen zuzendaritza eta administrazioa funtsa bakoitzaren kudeaketako erregelamenduan xedatuta dagoenak eraenduko du. Zuzendaritza eta administrazio-jarduera hori nahitaez IKIESK batek egin beharko du, edo IKESK batek, lege honen azken kasu horretan ezarrita dauden baldintzetan.

2. Funtsaren sozietate kudeatzaileak lege honetan aurreikusitakoaren arabera dagozkion eskumenak erabiliz hirugarrenekin egindako egintza eta kontratuak inola ere ezin izango dira aurkaratu, administrazio- eta erabilera-eskumenen akatsak alegatuta.

36. artikulua. *Bat-egitea.*

1. AKFak bat egin ahal izango dira, dela xurgapen bidez, dela funts berri bat sortuz.

2. Bat egiteko, bat egingo duten funtsen sozietate kudeatzaileak ados jarri beharko dira aldez aurretik.

37. artikulua. *Desegitea eta likidazioa.*

1. Mugaeguna heltzeagatik edo epea amaitzeagatik desegingo da funtsa, edo funtsaren kudeaketako erregelamenduan ezartzen diren kausengatik, eta betiere, kudeatzaileak kargua utzi ondoren beste kudeatzaile bat kudeaketaz arduratzen ez bada. Ondorioz, likidazio-aldia hasiko da. Kudeaketako erregelamenduan desegiteko erabakia hartzeko mekanismoak bilduko dira, bai eta funtsa desegin eta likidatzeko arauak ere. Desegiteko erabakia berehala jakinarazi beharko zaio Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari. Batzorde horrek erabaki hori argitaratuko du, eta gainera, erabakia berehala jakinarazi beharko zaie partaideei.

2. Funtsa desegiteko erabakia hartu ondoren, likidazio-aldia hasiko da, eta partaidetzak harpidetzeko eskubideak etenda geratuko dira. Sozietate kudeatzaileak edo funtsaren kudeaketako erregelamenduan aurreikusita dagoenaren arabera izendatutako beste edozein erakundek likidatuko du funtsa.

3. Sozietate kudeatzaileak prestasunik handienarekin eta ahalik eta epe laburrenean besterenduko ditu funtsaren balore eta aktiboak, bai eta kredituak ordaindu eta jaso ere. Eragiketa horiek egin ondoren, egokiak diren finantza-egoerak prestatuko ditu eta gerakin positiboa zehaztuko du, funtsaren kudeaketako erregelamenduaren arabera hori jaso behar duten pertsona edo erakundeentzat.

Finantza-egoerak prestatu baino lehen, aurreko paragrafoan aurreikusi denaren arabera izendatutako likidatzaileak funtsaren aktiboak besterenduz lortutako eskudirua konturako likidazioen kontzeptuan banatu ahal izango du funtseko partaide guztien artean, modu proportzionalan, baldin eta hartzekodun guztiei ordaindu bazaie –edo nonbait agerrarazi bada– mugaeguneratutako kredituen zenbatekoa.

4. Funtsaren kudeaketako erregelamenduan aurreko paragrafoaren salbuespenak ezarri ahal izango dira, gerakina gauzatan banatu ahal izateko, baldin eta merkatuko balioaren arabera baloratzen bada.

5. Finantza-egoerak lege honetan aurreikusita dagoen moduan ikuskatu beharko dira. Balantzea eta irabazien eta galeren kontua informazio esanguratsu gisa jakinarazi beharko zaizkie hartzekodunei.

6. Aurreko paragrafoan aipatu den jakinarazpena egin eta hilabete igaro ondoren erreklamaziorik egin ez bada, gerakina benetan banatu egingo da, kudeaketako erregelamenduan xedatuta dagoenaren arabera.

7. Erreklamaziorik egonez gero, epaile edo auzitegi eskudunak xedatzen duenari jaramon egingo zaio.

8. Ondarearen banaketa guztiz egin ondoren, funtsaren sozietate kudeatzaileak funtsa Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erregistroan ezeztatzeko eskatuko du.

V. KAPITULUA

Inbertsio kolektibo itxiko erakundeen, Europako arrisku-kapitaleko erakundeen eta Europako gizarte-ekintzailtzako funtsen araubide juridikoa

38. artikulua. *Inbertsio Kolektibo Itxiko Sozietateen eta Inbertsio Kolektibo Itxiko Funtsen araubide juridikoa.*

1. IKISei eta IKIFei aplikatu ahal zaien araubidea AKSei eta AKFei hurrenez hurren ezartzen dena izango da, hurrengo paragrafoetan biltzen diren berezitasunekin.

2. IKISei eta IKIFei ez zaizkie aplikatuko 26.3 eta 31.1 artikuluetan hurrenez hurren ezartzen diren gutxienerako kapitalari buruzko baldintzak.

3. IKISei eta IKIFei ez zaie aplikatuko 26.1 eta 30.1 artikuluetako azken tartekian hurrenez hurren xedeari eta jarduera osagarrii buruz xedatuta dagoena.

4. IKIFetako ondarearen hasierako eraketarako eta geroko eraketetarako ekarpenak eskudirutan soilik egingo dira.

5. Kasu guztietan, IKIE-ek titulizazioetan inbertitu ahal izango dute baldin eta titulazio horiek sortu dituenak gutxienez % 5 atxikitzen badu, eta Batzordearen 2012ko abenduaren 19ko 231/2013 zenbakidun Erregelamendu Eskuordetuan aurreikusitako titulizazio-posizioen mugen mende egongo dira.

39. artikulua. *Europako arrisku-kapitaleko funtsen araubide juridikoa.*

1. Europar Batasunean merkaturatzen direla-eta «EAKF» izendapena erabili nahi duten erakundeei Europako arrisku-kapitaleko funtsei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko apirilaren 17ko 345/2013 zenbakidun Erregelamenduan bildutako arauak aplikatuko zaizkie.

2. «Europako arrisku-kapitaleko funtsak» edo haien laburtzapena, «EAKF», aurreko paragrafoan aipatutako erregelamenduaren babespean eratu diren eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ondorio horretarako kudeatzen duen administrazio-erregistroan inskribatzen diren erakundeei erreserbatuko zaie. Ondorio horietarako, 11. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

40. artikulua. *Europako gizarte-ekintzailtzako funtsen (EGEF) araubide juridikoa.*

1. Europar Batasunean merkaturatzen direla-eta «EGEF» izendapena erabili nahi duten erakundeei Europako gizarte-ekintzailtzako funtsei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko apirilaren 17ko 346/2013 zenbakidun Erregelamenduan (EB) bildutako arauak aplikatuko zaizkie.

2. «Europako gizarte-ekintzailtzako funtsak» edo haien laburtzapena, «EGEF», aurreko paragrafoan aipatutako erregelamenduaren babespean eratu diren eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ondorio horretarako kudeatzen duen administrazio-erregistroan inskribatzen diren erakundeei erreserbatuko zaie. Ondorio horietarako, 11. artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

II. TITULUA

Inbertsio kolektibo itxiko erakundeen sozietate kudeatzaileak

I. KAPITULUA

Jarduerari ekitea

41. artikulua. *Kontzeptua eta sozietate-xedea.*

1. IKIESKak sozietate anonimoak dira. Haien sozietate-xedea AKE eta IKIE baten edo batzuen inbertsioak kudeatzea da, bai eta horien arriskua kontrolatu eta kudeatzea ere.

2. AKE eta IKIE bakoitzak kudeatzaile bakarra izango du. Kudeatzaile hori IKIESK bat izango da. AKSen eta IKISen kasuan, sozietatea bera izan ahal izango da sozietate kudeatzailea, gobernu-organoak kanpoko kudeatzaile bat ez izendatzea erabakitzen badu. Kasu horretan lege honetan aurreikusita dagoen IKIESKen araubidearen mendean geratuko dira, legeak autokudeatutako sozietate horietarako araubide diferente bat aurreikusten duten kasuetan izan ezik.

3. IKIESK arduratuko da berak kudeatzen dituen erakundeek lege honetan aurreikusita dagoena bete dezatela.

IKIESK batek ezin badu bermatu berak kudeatzen duen erakundeak, edo berak eskuordetu duen erakunde batek, lege honetan ezarrita dagoena bete dezala, berehala jakinaraziko dio hori Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari, eta bidezkoa den neurrian, dena delako inbertsio-erakundearen gainean eskumena duen Europar Batzordeko agintariei. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak IKIESKari eskatuko dio lege honetan ezarritako betebeharrak berriro betetzeko beharrezkoak diren neurriak har ditzala.

Neurri horiek hartu arren, betebeharrak bete gabe jarraituz gero, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak betebeharrak betetzen ez dituen erakundearen kudeaketa-jarduerari utzi diezaiola eskatuko dio, edo, bidezkoa bada, berehala horren berri emango die sozietate kudeatzaileari harrera egiten dion estatu kideko agintari eskudunei. Hala gertatzen bada eta, halaber, betebeharrak betetzen ez dituen erakundea Europar Batasuneko estatu kide batean ezarritako sozietate kudeatzaile batek kudeatutako Europar Batasuneko kide ez den estatu batean ezarritako inbertsio itxiko erakunde bat bada, inbertsio-erakundea ezin jarraituko da Europar Batasunean merkaturatzen.

4. IKIESKak lege honetan aurreikusita dagoenak eraenduko ditu, eta legean ezarrita ez dauden gauzetan, azaroaren 4ko 35/2003 Legeak eta uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginak.

42. artikulua. *Jarduerari ekiteko betekizunak.*

1. Sozietate kudeatzaile batek ere ezin kudeatuko du edo ditu AKE edo IKIE bat edo batzuk, baldin eta horretarako baimenduta ez badago, lege honetan aurreikusita dagoenaren arabera.

2. IKIESKek uneoro bete beharko dituzte baimena lortzeko baldintzak, eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari beharrezkoa den informazioa eman beharko diote betebeharrak betetzeari buruz.

3. IKIESKak baimenduta egon beharko dira, gutxienez, inbertsio-zorroak kudeatzeko eta arriskuak kontrolatu eta kudeatzeko zereginak egiteko, kudeatzen dituzten AKE, IKIE, EAKF eta EGEFei dagokienez; dena dela, 65. artikuluan aurreikusita dagoen eskuordetze-aukera baliatu ahal izango dute.

4. IKIESKek gainera beste zeregin batzuk ere egin ahal izango dituzte kudeatzen dituzten AKE edo IKIE-ei dagokienez, edo, eskuordetze bidez, beste AKE edo IKIE batzuei dagokienez:

- a) Erakundearen administrazioa, horren barruan hauek daudela:
 - 1.a Zerbitzu juridikoak eta kontabilitatea,
 - 2.a bezeroen kontsulten tratamendua,
 - 3.a likidazio-balioa baloratu eta zehaztea, baita dagokion zerga-araubidea aplikatzea ere,
 - 4.a aplika daitekeen araudia betetzeari buruzko kontrola,
 - 5.a partaideen edo akziodunen erregistroa eramatea,
 - 6.a etekinen banaketa, bidezkoa bada,
 - 7.a partaidetzak harpidetu eta itzultzea, eta akzioak eskuratu edo besterentzea,
 - 8.a kontratuak likidatzea, baita egiaztagiriak jaulkitzea ere, eta
 - 9.a erregistroak edukitzea.
- b) Erakundea merkaturatzea.
- c) Erakundearen aktiboekin lotutako jarduerak, bereziki, kudeatzaileen betebeharrak fiduziarioak betetzeko beharrezkoak diren zerbitzuak, jardueran erabilitako higiezinak eta zerbitzuen kudeaketa, ondasun higiezinak administratzeko jarduerak —enpresentzako aholkularitza kapital-egiturei dagokienez—, estrategia industrialak eta zerikusia duten gaiak, enpresen bategiteei eta eskuraketei dagozkien aholkularitza eta zerbitzuak, bai eta erakundearen nahiz inbertsioak egin dituen enpresa eta aktiboen kudeaketarekin lotutako beste zerbitzu batzuk ere.

5. AKS autokudeatuek eta IKIS autokudeatuek ezin egingo dituzte aurreko bi paragrafoetan zerrendatutako jarduerak beste erakunde batzuei dagokienez. Halaber, 43.1. artikuluan aurreikusitako jarduerak ere ezin egingo dituzte.

43. artikulua. *Zerbitzu osagarriak.*

1. Zerbitzu osagarri gisa, IKIESKek honako hauek egin ahal izango dituzte:
 - a) Inbertsio-zorroen zuzentzearen kudeaketa, barne direla pentsio-funtsen eta enpleguko pentsio-funtsen jabetzakoak direnak enplegu-pentsioen funtsen jarduerari eta gainbegiratzeari buruzko 2003/41/EE Zuzentarauaren 19. artikuluko 1. paragrafoaren arabera, inbertsiogileek zuzentzeaz eta banan-banan emandako aginduekin bat etorritik. Kasu horretan kudeatzaileak ezin inbertitutako du bezeroaren zorroa osorik edo zati batean berak kudeatzen dituen erakundeetan, baldin eta bezeroa orokorrean alde aurretik ados agertzen ez bada.
 - b) Inbertsioaren arloko aholkularitza eman.
 - c) AKE edo IKIE-en eta, bidezkoa bada, EAKFen eta EGEFen partaidetza eta akzioak zaindu eta administratu.
 - d) Bezeroen aginduak jaso eta transmititu, finantza-tresna bati edo batzuei buruz.
2. 1. paragrafoko zerbitzu osagarriak emateko baimenduta dauden IKIESKei Balore Merkaturari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legean eta lege hori garatzeko xedapenetan aurreikusitako arauak aplikatuko zaizkie. Bereziki, eta erregelamendu bidez ezarri ahal diren berezitasunak gorabehera, uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 70 ter, 70 quater, 78., 78 bis, 79., 79 bis, 79 ter eta 79 quater artikulua aplikatuko zaizkie.
3. IKIESKek Inbertsioen Berme Funtzarekin bat egin beharko du 1. paragrafoan aurreikusita dauden inbertsio-zerbitzuak ematen badituzte. Jarduera hasi aurretik egin beharko du bat. Nolanahi ere, inbertsiogileen kalte-ordain sistemari buruzko abuztuaren 3ko 948/2001 Errege Dekretuan eta dekretu hori garatzeko xedapenetan ezarritako dagoena aplikatu beharko da.

44. artikulua. *Debekatutako jarduerak.*

IKIESKak ez daude baimenduta hau egiteko:

- a) Aurreko artikuluan aipatu diren zerbitzuak eskusiboki emateko.
- b) Aurreko artikuluko 1. paragrafoko b) eta d) bitarteko idatzi-zatietan aipatu diren zerbitzu osagarriak emateko, baldin eta paragrafo horretako a) idatzi-zatian aipatu diren zerbitzuak ez baditu ematen.
- c) 42. artikulua 4. paragrafoan aurreikusitako jarduerak soilik egiteko.
- d) 42. artikuluko 3. paragrafoan aipatu den zorroaren kudeaketa-zeregina egiteko, baldin eta paragrafo horretan bertan aipatu den arriskuen kudeaketako zeregina ere egiten ez badu, eta alderantziz.

45. artikulua. *Baimen eskaera.*

1. Haien jarduera egiteko, Espainiako IKIESKek eta Espainiako AKS edo IKIS autokudeatuek Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren baimena lortu beharko dute, eskritura publiko baten bidez eratu, eta Merkataritza Erregistroan eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erregistroan inskribatu.

Baimen eskabidean honako informazio hau agertu beharko dira:

a) Sozietate kudeatzailean edo AKS edo IKIS autokudeatuetan administrazio eta zuzendaritza karguak dauzkaten pertsonen buruzko informazioa.

b) Partaidetza handiak dituzten sozietate kudeatzaileko edo AKS edo IKIS autokudeatuko bazkide edo kideen nortasunari eta partaidetza horien zenbatekoari buruzko informazioa, bazkide edo kide zuzenak zein zeharkakoak izan, pertsona fisikoak edo juridikoak. Partaidetza handiak, Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 69.1 artikulua araberaren arabera ulertuko dira.

c) Sozietate kudeatzailearen edo AKS edo IKIS autokudeatuaren estatutuen proiektua eta antolaketa-egitura azalduko duen jarduera-programa bat. Lege honek ezartzen dituen betebeharrak sozietateak zein modutan beteko dituen azaldu beharko da, eta jardueren eta baliabide teknikoaren eta giza baliabideen zerrenda bat agertu beharko da.

d) Zereginak hirugarrenei eskuordetzeko hartutako xedapenei buruzko informazioa, 65. artikuluan aurreikusita dagoenaren arabera.

e) Goi-zuzendaritzako kideei, arriskuak beren gain hartzeko arduradunei, kontrol-zereginak egiten dituztenei eta aurrekoen ordainketa-talde berean dauden langile guztiei ordaintzeko politika eta jardunbideei buruzko informazioa. Politika eta jardunbide horiek arriskuaren kudeaketa arrazoizko eta eraginkorrek bat etorri beharko dute; bide horretatik, kudeatzen diren AKE edo IKIE-en arrisku-profilarekin bateragarriak ez diren arriskuak ez dira hartuko, 60. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.

2. Lege honetan aurreikusita dauden ondorioetarako, goi-zuzendaritzako kideak izango dira sozietate kudeatzailean administrazioko edo zuzendaritzako karguak dituzten pertsonak, sozietate kudeatzailearen administratzaileak edo sozietate kudeatzaileko administrazioko kide anitzeko organoetako kideak, bai eta zuzendari nagusiak eta horien parekoak. Parekoak izango dira erakundearen administrazio-organoen mendean zuzenean edo batzorde betearazleen edo administrazio-organoko kontseilari eskuordetuen mendean goi-zuzendaritzako zereginak betetzen dituzten pertsonak.

3. Espainiako IKIESKek eta AKS edo IKIS autokudeatuek, baimena eskatzen badute, halaber Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari informazio hau aurkeztu beharko diote kudeatu nahi dituzten AKE eta IKIE-ei buruz:

a) Inbertsio-estrategiei buruzko informazioa, barnean direla azpiko funts motak eta sozietate kudeatzaileak palanka-efektuaren erabilerari buruz duen politika, bai eta arrisku-profilak eta kudeatzen dituen edo kudeatu nahi dituen erakundearen beste ezaugarri batzuk ere, ezarrita dauden edo ezartzea aurreikusi duten lurraldeko estatu kideei edo hirugarren herriei buruzko informazioarekin.

b) Erakunde nagusia ezarrita dagoen lekuari buruzko informazioa, kudeatu nahi duen erakundea mendeko erakundea bada.

c) Sozietate kudeatzaileak kudeatu nahi duen erakunde bakoitzaren erregelamendua edo eraketa-agiriak.

d) Gordailuzaina izendatzeko hartutako xedapenei buruzko informazioa, 50. artikuluan arabera, sozietate kudeatzaileak kudeatu nahi duen erakunde bakoitzerako.

e) 68. artikuluan aurreikusita dagoen informazio gehigarri guztia, sozietate kudeatzaileak kudeatzen duen edo kudeatu nahi duen erakunde bakoitzari buruz.

f) Bidezkoa bada, AKSen eta IKISen kudeaketa eskuordetzeko kontratua.

4. Erregelamendu bidez zehaztuko da noiz den erakunde bat mendeko erakundea.

46. artikulua. *Baimenaren ebazpena.*

1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren baimenaren ebazpena, kasu guztietan arrazoitua izan behar dena, hiru hilabeteren barruan jakinarazi beharko da, eskaria aurkezten denetik edo eska daitezkeen agiriak osatzen direnetik aurrera zenbatuta.

Epe hori hiru hilabete luzatu ahal izango du arrazoietan oinarritutako ebazpen baten bidez, beharrezkotzat jotzen bada, kasuaren inguruabar bereziengatik, baldin eta alde zurretik IKIESKari jakinarazten bazaio. Epe hori igarota, ebazpen espresurik eman ez bada, eskabidea onartuzat joko da administrazio-isilbidez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 92. artikuluan aurreikusitako ondorioekin.

2. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak artikulua honen arabera dagokion baimen-ahalmena baliatuz ematen dituen ebazpenek amaiera emango diote administrazio-bideari.

3. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak Baloreen eta Merkatuaren Europako Agintaritzari hiru hilean behin emango dio titulu honen arabera emandako edo errebokatutako baimenen berri.

47. artikulua. *Inbertsio Kolektiboko Erakundeen sozietate kudeatzaileak.*

1. AKE eta IKIEak ere IKESKek kudeatu ahal izango dituzte Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen arabera.

2. AKE edo IKIEak kudeatzeari dagokionez, IKESKak lege honetan IKIESKetarako bilduta dauden aurreikuspenek eraenduko dituzte.

3. AKE edo IKIEak kudeatu nahi dituzten IKESKek Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalean agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Sozietate-estatutuak aldatzeko baimenaren eskaria.

b) Azalpen-memoria, 45.3 artikuluan azaltzen den informazioa biltzen duena, kudeatu nahi dituen AKE edo IKIE guztiei buruz. Memoria horretan egiaztatu beharko da 48. artikuluko baldintzak betetzen direla.

48. artikulua. *Baimentzeko baldintzak.*

Hauek dira IKIESKen betekizunak:

a) Hasierako sozietate-kapitala eta baliabide propio gehigarri batzuk izatea honako honen arabera:

1.a Gutxieneko hasierako sozietate-kapitala, osorik ordaindua, hau izango da:

i) 300.000 euro IKIS autokudeatuen kasuan.

ii) 125.000 euro IKIESKen kasuan.

2.a Horrez gain, kudeatutako zorroen balio osoa 250 milioi eurotik gorakoa denean, sozietate kudeatzaileek baliabide propioak gehitu beharko dituzte. Baliabide propioen

kopuru gehigarri hori, sozietate kudeatzailearen zorroen balioak 250 milioi euroko kopurua gainditzen dueneko zenbatekoaren % 0,02 izango da. Hori gorabehera, hasierako kapitalerako eta kopuru gehigarriko eska daitezkeen kopurua gehienez 10 milioi euro izango da.

Aurreko paragrafoan xedatuta dagoenaren ondorioetarako, sozietatearen zorroak izango dira lege honen babespean dauden eta sozietateak kudeatzen dituen erakundeen zorro guztiak, 65. artikulua arabera sozietate kudeatzaileak zeregin bat edo batzuk eskuordetu dien edo dizkien erakundeak direnean ere bai. Dena dela, sozietate kudeatzaileak beste sozietate kudeatzaile baten eskuordetze bidez kudeatzen dituen inbertsio-zorro guztiak baztertuko dira.

IKIESKak 42.4.b) eta 43.1 artikuluetan aurreikusitako jardueretako bat egiten duenean, baliabide propioen eskakizuna aplikatuko zaie, azaroaren 4ko 35/2003 Legean aurreikusitako jarduera horiei dagokienez.

Aurreko paragrafoetan Azaldu den baliabide propioen kopuru gehigarria kreditu-erakunde baten edo aseguru-erakunde baten bermearekin estali ahal izango da % 50ean.

IKIESKaren baliabide propioak gutxienez aurreko ekitaldiko egiturazko gastuen laurden bat izango dira.

paragrafo honen eta 1. paragrafoaren arabera eska daitezkeen gutxieneko baliabide propioak, hurrengo paragrafoan aurreikusitako baliabide propio gehigarriak barne direla, aktibo likidoetan edo epe laburrean eta modu errazean eskudiru bihurtu ahal diren aktiboetan inbertituko dira, eta ez dira kontuan hartuko espekulazio-posizioak. Gainerako baliabide propioak sozietate-xedea betetzeko egokia den edozein aktibotan inbertitu ahal izango dira; horien artean lege honetan aurreikusitako erakundeak egongo dira, baldin eta inbertsioa irauteko asmoz egiten bada.

IKIESKetak baliabide propio konputagarrien definizioari Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legean eta lege hori garatzeko araudian aurreikusita dagoena aplikatuko zaio.

Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroak, edo, berariazko gaikuntzarekin, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, bidezkoa bada, IKESKen baliabide propioen araubidea eta kaudimen-arauak garatu ahal izango dituzte.» Araubide horretan, kudeatutako ondarearen bolumena eta arriskua kontuan hartu ahal izango dira. Betebehar horiei dagokienez Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari bidali behar dizkioten informazioen forma, aldizkakotasuna eta edukia ere ezarri ahal izango dituzte.

3.a IKIESK-ek edo AKS eta IKIS autokudeatuak egin ditzaketen jardueri dagokienez lanbide-erantzukizunaren ondorioz sortu ahal diren arriskuak estaltzeko, hau egin beharko dute:

i) Baliabide propio gehigarriak eduki, lanbide-erantzukizunaren ondorioz sortu ahal diren arriskuak estaltzeko, lanbide-zabarkeria egonez gero.

Lanbide-zabarkeria egonez gero lanbide-erantzukizunaren ondorioz sortu ahal diren arriskuak estaltzeko egokiak diren baliabide propio gehigarriak kudeatutako ondarearen % 0,01 izango da.

ii) Edo lanbide erantzukizun zibileko aseguru bat harpidetu lanbide-zabarkeriaren ziozko erantzukizunari aurre egiteko, estalitako arriskuarekin bat etorritik.

Ondorio horietarako, IKIESK-ek Batzordearen 2012ko abenduaren 19ko 231/2013 zenbakidun Erregelamendu Eskuordetuan (EB) aurreikusita dagoena bete beharko dute.

b) Sozietate-kapitala adierazten duten akzioak titulu izendunen edo kontuko idatzoharren bidez adierazi ahal izango dira.

c) Administrazio- eta kontabilitate-arloko antolaketa ona eduki beharko du, bai eta giza baliabideak eta baliabide teknikoak ere, informatika arloko segurtasun-mekanismoak eta barne-kontrolako eta kudeaketako prozedurak, arriskuen kontrolakoak, kapital-zuriketa prebenitzeko prozedura eta organoak, eta jokabide-arauak, beren jardueren ezaugarrietarako eta bolumenerako egokiak.

d) Barneko jokabide-erregelamendu bat eduki beharko du, eta halaber, besteak beste, langileen transakzio pertsonalak edo norbere kontura inbertitzeko helburua duten inbertsioak eduki edo kudeatzea eraenduko dituzten arauak, gutxienez bermatzeko AKE edo IKIE batekin lotutako transakzio bakoitza berreraiki ahal izan dadila, jatorriari, partaideei, izaerari eta egin deneko une eta lekuari dagokienez, eta sozietate kudeatzaileak kudeatzen dituen AKE edo IKIE-en aktiboak AKE edo IKIEaren erregelamenduaren edo estatutuen arabera eta indarreko lege-araudiaren arabera inberti daitezela.

e) Administrazio-kontseilua gutxienez hiru kidek eta haien kontseilukideek osatu beharko dute, baita zuzendari nagusiek eta parekoek ere, eta kide horiek zintzotasun aintzatetsia izan beharko dute merkataritza, enpresa edo lanbide arloan.

Zintzotasuna dute erakundearen kudeaketa on eta zuhurra egiteko gaitasunari buruzko zalantzarik sortzen ez duen jokabide pertsonal, komertzial eta profesionala azaldu duten pertsonak. Zintzotasuna ebaluatzeko aintzat hartu beharko da eskura dagoen informazio guztia, erregelamendu bidez ezarritako parametroen arabera.

f) Administrazio-kontseiluko edo batzorde betearazleetako kide gehienek, kontseilari delegatu guztiek eta zuzendari nagusiek eta parekoek ezagutza eta esperientzia egokia izan beharko dituzte finantza-arloan edo enpresa-kudeaketako arloan. Ondorio horietarako ezagutza eta esperientzia egokia dituztela ulertuko da finantza-erakundearen edo 7. artikuluan agertzen diren enpresen goi-administrazioko, zuzendaritzako, kontroleko edo aholkularitzako zereginak edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuetan goi-administrazioko eta kudeaketako zereginak gutxienez hiru urtean bete dituztenek.

g) Partaidetza handiak dituzten sozietate kudeatzaileko bazkideak egokiak izan beharko dira, kontuan hartuta sozietate kudeatzailearen kudeaketa osasuntsu eta zuhurra bermatu behar dela. Partaidetza handiak, Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 69.1 artikulua arabera ulertuko dira.

h) Sozietate kudeatzailearen administrazio zentrala eta sozietate-helbidea Espainian egon beharko dira.

49. artikulua. *Europar Batasuneko kide den beste Estatu bateko agintari gainbegiratzaile bati kontsultatzea.*

IKESK baterako baimena eman aurretik, Europar Batasuneko dagokion estatu kideko erakunde ikuskatzaile eskudunari kontsulta egin beharko zaio, honako egoera hauetakoren bat gertatzen bada:

a) Sozietate kudeatzailea beste balore higigarrietako inbertsio kolektiboko erakunde jakin batzuei buruzko lege, erregelamendu eta administrazio arloko xedapenak koordinatzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EE Zuzentarauaren arabera edo Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren arabera inbertsio-zerbitzuetako enpresa baten, kreditu-erakunde baten edo Europar Batasuneko beste estatu kide batean baimendutako erakunde aseguratzaile eta berraseguratzaila baten filiala izatea.

b) Sozietate kudeatzailea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EE Zuzentarauaren arabera baimendutako beste sozietate kudeatzaile baimendu baten edo Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren arabera inbertsio-zerbitzuetako enpresa baten, kreditu-erakunde baten edo Europar Batasuneko beste estatu kide batean baimendutako erakunde aseguratzaile eta berraseguratzaila baten enpresa nagusiaren filiala izatea.

c) Sozietate kudeatzailea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EE Zuzentarauaren edo Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren arabera baimendutako beste sozietate kudeatzaile baimendu bateko, inbertsio-zerbitzuetako enpresa bateko, kreditu-erakunde bateko edo Europar Batasuneko beste estatu kide batean baimendutako

erakunde aseguratzaile eta berraseguratzaile bateko pertsona fisiko edo juridiko berberak kontrolatzea.

50. artikulua. *Gordailuzaina.*

IKIESKek gordailuzain bat izendatu beharko dute kudeatzen duten AKE edo IKIE bakoitzerako, baldin eta kudeaketapean dituzten aktiboek 72.1 artikuluan ezarritako atalaseak gainditzen badituzte edo 72.5 edo 72.6 artikuluen arabera jarduten badute.

Izendatutako gordailuzaina Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legean eta lege hori garatzeko araudian aurreikusitako araubide juridikoaren eta erantzukizun-araudiaren mende egongo da.

51. artikulua. *Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren baimentze-ahalmen espezifikoak.*

1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak baimena ematean esparrua eta norainokoa mugatu ahal izango ditu, bereziki sozietate kudeatzaileak kudeatzeko baimena duen inbertsio-erakundeen inbertsio-estrategiei dagokienez.

2. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak baimena ukatuko du baldin eta faktore hauetako batengatik gainbegiratze-zereginak modu eraginkorrean egin ezin baditu:

a) Sozietate kudeatzailearen eta beste pertsona fisiko edo juridiko batzuen artean lotura estuak egotea.

b) Inbertsio-enpresarekin lotura estuak dituzten pertsona fisiko edo juridikoak eraentzen dituzten Europar Batasuneko kide ez den estatu bateko legezko xedapenak, erregelamendu bidezkoak edo administratiboak bete beharagatik, edo haien aplikaziorako dauden arazoengatik ikuskapen-eginkizunak betetzeko dauden eragozpenak.

52. artikulua. *Baimentzeko baldintzen aldaketak.*

1. Hasierako baimena emateko baldintzen aldaketa nabarmenak egonez gero, eta bereziki, 45.1 artikuluan arabera emandako informazioaren aldaketa nabarmenak egonez gero, IKIESKek Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari guztiak jakinaraziko dizkiote, benetan aldaketa egin baino lehen baimentzeko.

2. Lege honen esparruan baimendu diren sozietate kudeatzaileen estatutu aldaketak baimentzeko eskaria administratzaileek egin ahal izango dute, baldintzapean, akziodunen batzar nagusiak onartu baino lehen.

3. Sozietate kudeatzaileen estatutu aldaketak egiteko ez da alde aurretiko baimenik beharko aldaketaren xedea hau bada (dena dela, gerora Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari guztiak jakinarazi beharko zaizkio):

a) Lurralde nazionalean helbidea aldatzea eta izena aldatzea.

b) Agindu edo debeku izaerako legezko edo erregelamenduzko manuak txertatzea.

c) Ebazpen judizialak edo administratiboak betetzea.

d) Erreserben konturako kapital-handitzeak eta diruzkoak.

e) Beste aldaketa batzuk, baldin eta horietarako Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, aurretiazko kontsulta bati erantzunez edo ebazpen orokor baten bidez baimen-izapidea alferrikakotzat jo badu, garrantzi txikikoa izateagatik.

4. Sozietate kudeatzaileen administrazio-kontseiluaren barruan egiten diren aldaketak, eta zuzendari nagusien eta haien parekoen aldaketak, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinaraziko zaizkio batzorde horrek zehaztutako forma eta edukiarekin.

5. Artikulu honetan adierazitako kasuen ebazpena hilabeteko epean jakinarazi beharko zaie interesdunei, eskaria aurkeztu denetik hilabeteko epean, edo agiriak osatu diren unetik. Epe hori hilabete luzatu ahal izango da beharrezkotzat jotzen denean, IKIESKari alde aurretik jakinarazi bazaio. Epe hori igarota, ebazpen espresurik eman ez

bada, eskabidea onartutzat joko da administrazio-isilbidez, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 92. artikuluan aurreikusitako ondorioekin.

53. artikulua. *Errebokatzea.*

1. IKIESKei emandako baimena Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak errebokatu ahal izango du kasu hauetan:

a) Lege honetan aurreikusita dagoenaren arabera baimena lortzeko eta jardueran airtzeko ezarritako baldintzetako edozein urratzeagatik. Hala ere, sozietate kudeatzaile baten baliabide propioek behera egiten badute ezarritako mugen azpitik, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, salbuespen gisa eta arrazoiak emanda, gehienez sei hilabeteko epea eman ahal izango du egoera zuzentzeko edo sozietate kudeatzailearen jarduerak bertan behera uzteko.

b) Baimenari espresuki uko egiteagatik, beste erakunde bat bihurtzen dela edo desegitea erabakitzen dela ere.

c) Baimena lortzeko deklarazio faltsuak egin badira edo beste bide irregular bat erabili bada.

d) IKIESK batean partaidetza handia duten pertsonen eragina kudeaketa on eta zuhurraren kalterako izan daitekeela eta erakundearen egoera finantzarioa larriki honda dezakeela irizteko arrazoi oinarridun eta egiazatuak daudenean.

e) Sozietate kudeatzaileari dagokionez beste konkurtso-prozedura bat irekitzea erabakitzen bada.

f) Uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 363. artikuluan aurreikusitako nahitaezko desegiteko kausetako bat gertatzen denean.

g) Lege honetan aurreikusita dagoenaren arabera ezarritako zehapen baten ondorioa denean.

h) Urtebetetik gorako epe batean bere sozietate-xedean agindutako jardueran aritzen ez bada. IKIESKen kasuan, hori gertatu dela ulertuko da epe hori igarotzen bada AKE edo IKIE bat kudeatu gabe.

i) Betebeharrak larriki eta sistematikoki urratzea partaideen edo akziodunen erregistroa eramateri dagokionez.

j) Balore Merkatuei buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 2. artikuluan aurreikusitako Inbertsioen Berme Funtzarekiko betebeharrak hiru hilabetean ez betetzea.

k) Urteko kontuen auditoretza-txostena iritzi ukatuarekin eman denean.

l) Lege honetan edo IKIESKen araubide juridikoa arautzen duten gainerako arauetan aurreikusitako xedapenak modu larri edo sistematikoan urratzen direnean.

2. Errebokatzeko prozedura ofizioz edo aldeetako batek eskatuta hasiko da, eta hasten denetik sei hilabeteko epean ebatzi beharko da. Epe hori igarota ebazpenik eman ez bada, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan aurreikusitako ondorioak gertatuko dira. Baimena errebokatzeak erregistro berezietatik baztertzea dakar.

3. IKIESK batek, AKS autokudeatu batek edo IKIS autokudeatu batek nahitaez desegitea erabakitzen badu uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 363. artikuluan aurreikusitako kausetako batengatik, baimena errebokatu dela ulertuko da. Erabaki hori Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinarazi beharko zaio, eta Batzorde horrek sozietate horren inskripzioak ezabatuko ditu administrazio-erregistroetatik. Gauza bera ulertuko da erakundeak baimenari beren beregi uko egin badio, eta izapide bereberei jarraituko zaie.

4. Errebokatzeko prozedura Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen 50. artikuluan xedatuta dagoenak eraenduko du.

54. artikulua. *Baimenaren iraungitzea.*

1. Baimena iraungiko da jakinarazpenaren ondorengo hamabi hilabeteko epealdian ez badira hasi sozietate kudeatzailearen sozietate-xedearen berriarazko jarduerak, erakundeari berari egotzitako zioengatik.

2. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak berriaz jakinaraziko du iraungitzea, erregelamendu bidez ezarriko den prozedurari jarraituz.

55. artikulua. *Baimenari uko egitea.*

Sozietateak baimenari beren beregi uko egin izana, beste sozietate kudeatzaile bat bihurtzen dela edo desegitea erabakitzen duela, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinarazi beharko zaio. Batzorde horren uko hori beren beregi onartuko du, baldin eta arrazoi oinarritunak badaude uste izateko jarduera bertan behera utziz merkatuaren egonkortasunean arrisku larriak sortu ahal direla.

56. artikulua. *Etetea.*

1. IKIESK bati, AKS autokudeatu bati edo IKIS autokudeatu bati emandako baimena Merkatuaren Batzorde Nazionalak guztiz edo zati batean eten ahal izango du, errebokatzeko prozedura baten bidez, baldin eta lege honetan ezarritako xedapenak modu larrian urratzen badira edo arau-hauste larria edo oso larria egiteagatik zehapen-espeditentea ireki bada. Zati batean eteten bada, eragina jardueretako batek edo jarduerak baimentzeko norainokoak jasango du.

2. Eteteko prozedura Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen 51. eta 52. artikuluetan xedatuta dagoenak eraenduko du.

57. artikulua. *Kudeatzaileak ordezteak.*

1. IKIESKek ordeztuz eskatu ahal izango dute. Horretarako, eskaria egin beharko diote Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari, sozietate berriarekin batera. Eskari horretan sozietate kudeatzaile berriak haren zereginak onartzeko prest dagoela adierazi beharko du.

2. AKE-etako edo IKIE-etako partaide edo akziodunek, haien erregelamenduan edo estatutuetan bildutako baldintza eta prozeduren arabera, sozietate kudeatzailea ordezteko eskatu ahal izango diote Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari, baldin eta zereginak onartzeko prest dagoela adierazten duen ordeztoko bat aurkezten badute.

3. Sozietate kudeatzailearen konkurtsoa deklaratu bada, konkurtso-administrazioak aldaketa eskatu beharko du aurreko paragrafoan azaldutako prozeduraren arabera. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ordezkapen hori egitea erabaki ahal izango du, bai konkurtso-administrazioak eskatu ez badu –orduan berehala emango dio horren berri konkurtsoaren epaileari–, bai edozein kausarengatik jarduera bertan behera utzi bazaio. Kudeatzaile berria hilabeteko epean onartzen ez bada, kudeatutako AKF eta IKIFak desegiteari ekingo zaio.

4. Ordezkapenaren ondorioak erregelamenduen edo estatutuen aldaketa Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalan inskribatzen den unetik sortuko dira.

58. artikulua. *Erregistroa.*

1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak honako erregistro publiko hauek mantenduko ditu:

- a) Inbertsio kolektibo itxiko erakundearen sozietate kudeatzaileen erregistroa.
- b) Arrisku-kapitaleko sozietatearen erregistroa.
- c) Arrisku-kapitaleko funtsen erregistroa.
- d) Inbertsio kolektibo itxiko sozietatearen erregistroa.
- e) Inbertsio kolektibo itxiko inbertsio-funtsen erregistroa.

- f) ETE-entzako arrisku-kapitaleko funtsen erregistroa.
- g) ETE-entzako arrisku-kapitaleko sozietateen erregistroa.
- h) Liburuxken eta urteko txostenen erregistroa.
- i) Europako arrisku-kapitaleko funtsen erregistroa.
- j) Europako gizarte-ekintzaitzako funtsen erregistroa.
- k) Balorazio-zeregina egiten duten erakundeen erregistroa.
- l) Eragiketak Espainian egiten dituzten atzerriko sozietate kudeatzaileen erregistroa.
- m) Merkataritza-jarduera Espainian egiten duten atzerriko erakundeen erregistroa.
- n) Gertakari nabarmenen erregistroa.

2. 1. paragrafoan ageri diren izendapenak eta haien laburtzapenak lege honen babespean baimendutako edo inskribatutako erakundeei erreserbatuko zaizkie.

II. KAPITULUA

Jardueran aritzeko baldintzak

1. atala. Baldintza operatiboak eta antolakuntzako baldintzak

59. artikulua. *Printzipio orokorrak.*

1. IKIESKak, haien jardueran aritzean, printzipio hauen mendean egongo dira:

a) Partaideen edo akziodunen interesen alde eta merkatuaren osotasunaren alde jardungo dute kudeatzen dituzten inbertsio eta ondareetan, eta lege honen eta Europako araudiaren xedapenak beteko dituzte.

b) Haien jardueran aritzen direnean behar bezala zintzotasunez, gaitasunez, arretaz eta arduraz eta leialtasunez jokatu dute.

c) Haien enpresa-jarduera behar bezala burutzeko beharrezkoak diren baliabide eta prozedurak eduki beharko dituzte, baita baliabide horiek eraginkortasunez erabili ere.

d) Arrazoizko modu batean espero daitezkeen neurri guztiak hartuko dituzte interes-gatazkak saihesteko, eta gatazkak saihestu ezin direnean, interes-gatazka horiek detektatzeko, kudeatzeko eta kontrolatzeko, eta bidezkoa bada, agerrarazteko, gatazkek inbertsio-erakundeen eta inbertsiogileen interesei kalte egin ez diezaieten, eta kudeatzen dituzten inbertsio-erakundeen berdintasunezko tratua jaso dezaten.

e) Modu berdinean tratatuko dituzte kudeatzen dituzten inbertsio-erakundeetako inbertsiogile guztiak. Inbertsio-erakundeko inbertsiogile batek ere ezin jasoko du lehentasunezko tratua, baldin eta dena delako inbertsio-erakundearen erregelamenduetan edo eraketa-agirietan hala ezartzen ez bada.

2. Ondorio horietarako, IKIESKek Batzordearen 2012ko abenduaren 19ko 231/2013 zenbakidun Erregelamendu Eskuordetuan (EB) ezarrita dagoena bete beharko dute.

3. Betiere, IKIESKek lege honen arabera eta kudeatzen dituzten AKE edo IKIE-en erregelamendu edo estatutuetan bete behar dituzten betebeharrak urratzen badituzte, horregatik partaide edo akziodunei egiten dizkieten kalteen erantzule izango dira.

60. artikulua. *Ordainketarako eta pizgarriak finkatzeko sistemarekin lotuta dauden politika eta prozedurak.*

1. IKIESKek, langileen kategorietarako, barnean direla goi-zuzendaritzako kideak, arriskuak beren gain hartzeko arduradunak, kontrol-zereginak egiten dituztenak eta jasotzen duten ordainketengatik goi-zuzendaritzako kideen eta arriskuak beren gain hartzeko arduradunen ordainketa-talde berean dauden langile guztiak, eta haien lanbide-jarduerak kudeatzen diren inbertsio-erakundeen arrisku-profilean eragin nabarmena badute, ordainketa arloko politika eta prozedura jakin batzuk ezarriko dituzte. Politika eta prozedura horiek:

a) arriskuak kudeaketa arrazoizko eta eraginkorrekarekin bat etorri behar dira, eta

b) arrisku-profilak edo erregelamendua edo kudeatzen dituzten inbertsio-erakundeen eraketa-agiriak betetzen ez dituzten arriskuak har daitezela eragotziko dute.

2. IKIESKei Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legean eta lege hori garatzeko araudian aurreikusita dagoena aplikatuko zaie, ordainketa arloko politika eta jardunbideei dagokienez bete behar dituzten errekerimenduen eremuan.

61. artikulua. *Interes-gatazkak.*

1. IKIESKek administrazio eta antolaketa arloko prozedura eraginkorrak eduki eta aplikatu beharko dituzte gertatu ahal diren interes-gatazkak detektatzeko, saihesteko, kudeatzeko eta kontrolatzeko, AKE-en edo IKIE-en interesei eta haien partaide edo akziodunen interesei kalterik ez egiteko.

2. Bereziki, arrazoizkoak diren neurriak hartuko dituzte kudeaketa-jarduerak egiten diren bitartean sortu ahal diren interes-gatazkak detektatzeko:

a) Sozietate kudeatzailearen –horren barnean direla zuzendariak, enpleguak edo sozietatearekin kontrol-harreman baten bidez zuzenean edo zeharka lotuta dagoen edozein pertsona, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aurreikusi bezala–, eta haiek kudeatzen dituzten inbertsio-erakundeen edo erakunde horien partaide edo akziodunen artean.

b) Sozietate kudeatzaileak kudeatutako inbertsio-erakunde baten edo erakunde horren partaide edo akziodunen eta sozietate horrek berak kudeatutako beste inbertsio-erakunde baten edo haren partaide edo akziodunen artean.

c) Sozietate kudeatzaileak kudeatutako inbertsio-erakunde baten edo erakunde horren partaide edo akziodunen eta sozietate kudeatzailearen beste bezero batzuen artean.

d) Sozietate kudeatzaileko bi bezeroren artean.

3. IKIESK, bere eragiketa-esparruan bertan, beren artean bateraezintzat jo daitezkeen edo interes-gatazka sistematikoak sorrarazi ahal dituzten zeregin eta erantzukizunak bereiziko dituzte, eta bere jarduera egiteko baldintzek bestelako interes-gatazka nabarmen batzuk sorrarazi ahal dituzten ebaluatuko du, eta horren berri emango die kudeatzen dituen erakundeetako partaide edo akziodunei.

4. Interes-gatazkak detektatzeko, saihesteko, kudeatzeko eta kontrolatzeko hartzen diren antolaketa arloko neurriek arrazoizkoa den modu batean eta arrazoizko ziurtasunarekin ez badute bermatzen arriskuen prebentzioa, gatazka horien eraginpean dauden partaide edo akziodunen kalterako, sozietate kudeatzaileak, partaide edo akziodunen kontura jardun baino lehen, argi eta garbi esan beharko die zein den interes-gatazka horien izaera edo jatorria eta gatazka horiek nahiz kalte-arriskuak saihesteko egokiak diren politika eta prozedurak garatu beharko ditu.

Ondorio horietarako, IKIESKek Batzordearen 2012ko abenduaren 19ko 231/2013 zenbakidun Erregelamendu Eskuordetuan (EB) ezarrita dagoena bete beharko dute.

62. artikulua. *Arriskuaren kudeaketa.*

1. IKIESKek zeregin eta hierarkia arloan bereiziko dituzte eragiketa-unitateen arriskuaren kudeaketako eginkizunak, zorroak kudeatzeko zeregina barne dela.

2. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, lege honek eta gainerako antolamendu juridikoak esleitzen dizkieten gainbegiratze eta ikuskapen ahalmenak baliatuz, arriskua kontrolatzeko eginkizunen zeregin eta hierarkia arloko bereizketa kontrolatuko du. Kontrol hori proportzionaltasun-printzipioaren arabera egingo da eta bereziki egiaztatuko da interes-gatazken aurkako berme espezifikoei arriskuaren kudeaketako jarduerak modu independentean egiteko aukera ematen dutela eta arriskua kudeatzeko prozesua koherentea eta eraginkorra dela.

3. IKIESKek arriskua kudeatzeko egokiak diren sistemak ezarriko dituzte, AKE edo IKIE bakoitzaren inbertsio-estrategian egokiak diren arrisku guztiak behar bezala zehaztu,

neurtu, kudeatu eta kontrolatzeko, baldin eta inbertsio-erakunde bakoitza arrisku horien eraginpean badago edo egon ahal bada.

Bereziki, IKIESKa, AKE-en edo IKIE-en aktiboen kaudimena ebaluatzean, ez da egongo Kreditu-kalifikazioko agentziei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko irailaren 16ko 1060/2009 Erregelamenduaren 3. artikuluko 1. paragrafoko b) idatzi-zatian definituta dauden kreditu-kalifikazioko agentziek emandako kreditu-kalifikazioen mendean, ez esklusiboki, ez automatikoki.

4. IKIESKek hau egin beharko dute, gutxienez:

a) behar bezalako ardurazko prozesu bat inplementatu, inbertsioen azterketa eta ebaluazio egoki, dokumentatu eta eguneratua egiteko, AKEren edo IKIEaren inbertsio-estrategia, helburuak eta arrisku-profila kontuan hartuta;

b) AKE edo IKIEaren inbertsio-posizio bakoitzari lotutako arriskuak eta arrisku horiek AKE edo IKIEaren zorroan duten eragin orokorra etengabe zehaztu, neurtu, kudeatu eta kontrolatu ahal daitezela bermatu, bereziki muturreko egoeren aurkako erresistentziaren proba egokiak edo muturreko kasuen simulazioak aplikatuz, eta

c) AKE edo IKIEaren arrisku-profila bere dimentsioekin, bere zorroaren egiturekin eta bere estrategiekin eta inbertsio helburuekin bat etor dadila bermatzea, AKE edo IKIEaren erregelamenduan edo eraketa-agirietan eta liburuxketan ezarrita dagoen bezala.

5. IKIESKek palanka-efektuaren gehieneko maila bat ezarri ahal izango dute (maila horretara joan ahal izango dute kudeatzen duten AKE edo IKIE bakoitzaren kontura), baita albokoan edo bermeen berrerabilerarako eskubidearen norainokoa ere, hauek bereziki kontuan hartuta:

- a) AKEaren edo IKIEaren mota,
- b) AKEaren edo IKIEaren inbertsio-estrategia,
- b) AKEaren edo IKIEaren palanka-efektuaren iturriak,
- d) arrisku sistemikoa planteatu ahal duten finantza-erakundeekiko harreman nabarmenak,
- e) edozein kontrako alderdirekiko esposizioa mugatzeko beharrezkoak,
- f) palanka-efektua zein neurritan dagoen estalita,
- g) aktiboen eta pasiboen proportzioa eta
- h) sozietate kudeatzailearen jarduerak dena delako merkatuan dituen maila, izaera eta garrantzia.

Ondorio horietarako, IKIESKek Batzordearen 2012ko abenduaren 19ko 231/2013 zenbakidun Erregelamendu Eskuordetuan (EB) ezarrita dagoena bete beharko dute.

6. IKIESKek arriskuaren kudeaketako sistemak nahikoa den maiztasunarekin berrikusiko dituzte, gutxienez urtean behin, eta sistema horiek egokituko dituzte beharrezkoa denean.

63. artikulua. *Likideziaren kudeaketa.*

1. Kudeatzen duten AKE edo IKIE bakoitzari dagokionez, palanka-efektua jasan ez dutenen funtsak bazter utzita, IKIESKak likidezia kudeatzeko sistema egoki bat ezarriko du eta AKEaren edo IKIEaren likidezia-arriskua kontrolatu ahal izateko prozedurak hartuko ditu, sortu ahal duen palanka-efektuari dagokionez oraingo eta etorkizuneko betebeharrak bete ahal dituela bermatzeko.

2. IKIESKek aldizka muturreko egoeren aurkako erresistentziaren proba egokiak edo muturreko kasuen simulazioak egingo dituzte, bai likidezia-egoera normaletan, bai salbuespenetzko egoeretan, AKEaren edo IKIEaren likidezia-arriskua ebaluatu ahal izateko, aurreko paragrafoan aurreikusita dagoenarekin bat etorritik.

Ondorio horietarako, IKIESKek Batzordearen 2012ko abenduaren 19ko 231/2013 zenbakidun Erregelamendu Eskuordetuan (EB) ezarrita dagoena bete beharko dute.

64. artikulua. *Balorazioa.*

1. IKIESKek ziurtatuko dute, kudeatzen duten AKE edo IKIE bakoitzerako, prozedura egoki eta koherenteak ezar daitezela AKE edo IKIEaren aktiboak behar bezala eta modu independentean baloratu ahal izateko, artikulua honen, aplikatu daitezkeen legeriaren eta arabera eta AKE edo IKIEaren erregelamendu edo estatutuen arabera.

2. Aktiboen balorazioari eta AKE edo IKIEaren akzio edo partaidetzen likidazio-balioaren kalkuluari aplikatu ahal zaizkion arauak AKE edo IKIEaren erregelamendu edo estatutuetan aurreikusita daudenak izango dira, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak zehazten dituen irizpideekin bat etorritik.

3. Erabiltzen diren balorazio-prozedurek bermatu egingo dute aktiboak baloratzen direla eta likidazio-balioa gutxienez urtero kalkulatzeko dela, eta gainera, beti AKE edo IKIEaren kapitala gehitu edo murrizten dela. Inbertsiogileei balorazioen eta kalkuluen berri emango zaie, dena delako AKE edo IKIEaren erregelamendu edo estatutuetan ezarrita dagoen bezala.

4. IKIESKek bermatu egingo dute balorazio-eginkizunak honako hauek egin dezatela:

a) Kanpoko baloratzailerik batek. Hori independentea izan beharko da AKE edo IKIEarekiko nahiz AKE, IKIE edo IKIESKarekin lotura estuak mantentzen dituen beste edozein pertsonarekiko, edo

b) sozietate kudeatzailea bera, baldin eta balorazio-eginkizuna zereginen aldetik zorroaren kudeaketako eginkizunarekiko independentea bada eta ordainketa arloko politikak eta beste neurri batzuek bermatzen badute interes-gatazkak saihestuko direla eta langileengan behar ez bezalako eragina eragotziko dela.

AKE edo IKIE baterako izendatutako gordailuzaina ezin izendatuko da AKE edo IKIE horren kanpoko baloratzailerik, baldin eta eginkizun eta hierarkia aldetik kanpoko baloratzailerik eginkizunetatik bereizi ez bada eta egon litezkeen interes-gatazkak ez badaude behar bezala identifikatuta, kudeatuta, kontrolatuta eta AKE edo IKIE-etako inbertsiogile edo partaideei behar bezala jakinarazita.

5. Kanpoko baloratzailerik bat balorazio-eginkizuna egiten ari denean, IKIESK hau frogatzeko gai izan beharko da:

a) kanpoko baloratzailerik legeak aintzatetsitako lanbide-erregistro batean erregistratu beharko dela edo lanbide-jokabidearen arloko arauak edo legezko edo erregelamenduzko xedapenei men egin beharko diela,

b) kanpoko baloratzailerik dagokion balorazio-eginkizuna artikulua honen 1., 2. eta 3. paragrafoen arabera behar bezala egiteko gaitasunaren lanbide-berme nahikoak ekarri ahal dituela, eta

c) kanpoko baloratzailerik izendapenak 1.a), b), e) eta f) idatzi-zatiaren, 2. paragrafoaren eta 65. artikuluko 3.b) paragrafoaren baldintzak betetzen dituela.

6. Kanpoko baloratzailerik ezin eskuordetuko dio bere balorazio-eginkizuna hirugarren bati.

7. IKIESKek kanpoko baloratzailerik izendapenaren berri eman beharko diote Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari. Batzorde horrek beste baloratzailerik bat izenda dadila eskatu ahal izango du 5. paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen ez badira edo betetzeari utzi bazaio.

8. Balorazioa inpartzialtasunez egingo da, behar bezalako gaitasuna, arreta eta ardura zainduta.

9. Baloratzailerik eginkizuna kanpoko baloratzailerik independente batek betetzen ez duenean, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak sozietate kudeatzaileari eskatu ahal izango dio haren balorazio-prozedurak eta balorazioak kanpoko baloratzailerik batek edo, bidezkoa bada, auditore batek egiazta ditzala.

10. IKIESKak AKE edo IKIEaren aktiboak behar bezala baloratzeaz, likidazio-balioa kalkulatzeko eta hori argitaratzeko arduratu beharko dira. Horrenbestez, nahiz eta

sozietate kudeatzaileak kanpoko baloratzaille bat izendatu, kudeaketa arloko erantzukizuna AKE edo IKIEaren aurrean ez inola ere da aldatuko.

Aurreko paragrafoa gorabehera, kanpoko baloratzaillearen zabarkeriarengatik edo eginkizunak erruz urratzeagatik sozietate kudeatzaileak galerak baditu, kanpoko baloratzailleak bere erantzukizunari aurre egin beharko dio.

Ondorio horietarako, IKIESKek Batzordearen 2012ko abenduaren 19ko 231/2013 zenbakidun Erregelamendu Eskuordetuan (EB) ezarrita dagoena bete beharko dute.

2. atala. Inbertsio kolektibo itxiko erakundeen sozietate kudeatzailearen eginkizunak eskuordetzea

65. artikulua. Eginkizunak eskuordetzea.

1. IKIESKek haien eginkizun bat edo batzuk hirugarren erakundeei eskuordetu ahal izango diete edo dizkiete, eta baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Eskuordetzeko antolaketa-egitura arrazoi objektiboekin justifikatu beharko du. Arrazoi horietako bat bere jarduera betetzean eraginkortasuna handitzea izan daiteke.

b) Eskuordetutakoak bitarteko nahikoak eta giza baliabide eta baliabide material nahikoak eduki behar ditu dagozkion eginkizunak betetzeko, eta jokabideko eta kontroleko arauak ere bete behar ditu. Administrazio eta zuzendaritza arloko karguak dauzkaten pertsonak behar bezala ohore eta esperientzia eduki beharko dituzte.

c) Eskuordetzearen xedea zorroak kudeatzea edo arriskua kudeatzea bada, aktiboak kudeatzeko baimenduta edo erregistratuta dauden eta zuhurtziazko gainbegiratzearen mendean dauden erakundeei soilik eman ahal izango zaie. Baldintza hori betetzea ezinezkoa denean, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren aurretiazko baimena beharko da.

IKIESKek zorroak kudeatzeko edo arriskuak kudeatzeko eginkizunak hauei eskuordetu ahal izango dizkiete: beste IKIESK batzuei, azaroaren 4ko 35/2003 Legean araututako IKESKei, uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 63.1.d) artikuluan aipatzen den inbertsio-zerbitzua emateko gaitutako erakundeei edo antzeko erakundeei.

d) Eginkizunak helbidea Europar Batasuneko kide ez den estatu batean daukan erakunde bati eskuordetzen bazaizkio, akordio idatzi baten bidez bermatuta egon beharko da kudeatzailearen jatorriko herriko agintari eskudunen eta kudeaketa eskuordetu zaion erakundea gainbegiratzeko agintarien arteko lankidetzaz.

e) Eskuordetu arren, IKIESKa benetan gainbegiratu ahal izango da, eta sozietate kudeatzaileak bere jarduera egin ahal izango du, edo AKE edo IKIEak kudeatu ahal izango dira, haien inbertsiogileen interesen alde.

f) IKIESKak honako hauek frogatzeko gai izan beharko du: eskuordetutakoak dena delako eginkizuna egiteko gaitasuna eta kualifikazioa dauzkala, behar bezalako arduraz hautatu dutela eta sozietate kudeatzailea bera eskuordetutako jarduera uneoro kontrolatzeko gai dela, eskuordetutakoari jarraibide berriak uneoro emateko gai dela eta eskuordea berehala errebotatzeko gai dela, baldin eta horrela inbertsiogileen interesei on egiten bazaie.

IKIESKak etengabe ebaluatuko ditu eskuordeetako bakoitzak emandako zerbitzuak.

2. IKIESKak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari eskuordetze-erabakien berri eman beharko dio erabakiek ondorioak izan baino lehen.

3. Zorroak kudeatzeko edo arriskua kudeatzeko zereginak ezin eskuordetuko zaizkie honako hauei:

a) Gordailuzainari edo gordailuzainak bere eginkizunak eskuordetzan eman dizkion beste erakunde bati.

b) IKIESKen interesekin edo AKE edo IKIEaren inbertsiogileen interesekin gatazka sorrarazi ahal duten interesak dauzkan erakunde bati, baldin eta erakunde horrek inbertsioak kudeatzeko edo arriskuak kudeatzeko eginkizunak gatazkatsuak izan daitezkeen beste eginkizun batzuetatik bereizi ez baditu eginkizun eta hierarkia aldetik, eta egon litezkeen interes-gatazkak behar bezala identifikatu, kudeatu eta kontrolatu badira eta AKE edo IKIEaren inbertsiogileei jakinarazi bazaizkie.

4. Sozietate kudeatzaileak AKE edo IKIEaren aurrean edo haien inbertsiogileen aurrean duen erantzukizuna ez aldatuko nahiz eta eginkizunak hirugarrenei eskuordetzan eman edo berriro azpieskuordetzarik eman. Sozietate kudeatzaileak gainera bere eginkizunak ezin emango ditu eskuordetzan, hutsik dagoen edo edukirik ez duen erakunde bihurtu arte, funtsean AKEaren edo IKIEaren sozietate kudeatzailetzat ez hartzeko moduan.

66. artikulua. *Eginkizunak azpieskuordetzea.*

1. Aurreko artikulua araberak eginkizunak eskuordetzan emanda dituen hirugarren erakundeak era berean hari eman zaizkion eginkizunetako edozein eskuordetzan eman ahal izango ditu, baldintza hauek betetzen badira:

- a) Azpieskuordetzan eman aurretik IKIESKak adostasuna adieraztea,
- b) IKIESKak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinaraztea azpieskuordetza-erabakiek ondorioak sortu baino lehen eta
- c) 65.1.b) artikuluan aurreikusitako baldintza guztiak betetzea; ulertzen da «eskuordetutakoa»ri buruzko aipamenak «azpieskuordetutakoa»ri buruzkoak direla.

2. Zorroak kudeatzeko edo arriskua kudeatzeko zereginak ezin azpieskuordetuko zaizkie honako hauei:

- a) Gordailuzainari edo haren ordezkari bati.
- b) IKIESKen interesekin edo AKE edo IKIEaren inbertsiogileen interesekin gatazka sorrarazi ahal duten interesak dauzkan erakunde bati, baldin eta erakunde horrek zorroa kudeatzeko edo arriskuak kudeatzeko eginkizunak gatazkatsuak izan daitezkeen beste eginkizun batzuetatik bereizi ez baditu eginkizun eta hierarkia aldetik, eta egon litezkeen interes-gatazkak behar bezala identifikatu, kudeatu eta kontrolatu badira eta AKE edo IKIEaren inbertsiogileei jakinarazi bazaizkie.

Eskuordetutakoak etengabe ebaluatuko ditu azpieskuordeetako bakoitzak emandako zerbitzuak.

3. Azpieskuordetutakoak era berean hari eskuordetu dizkioten eginkizunetako bat eskuordetzen badu, 1. paragrafoan aurreikusitako baldintzak aplikatuko dira, beharrezkoak diren egokitzapenekin.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eginkizunen eskuordetze eta azpieskuordetzeak bete behar dituen beste baldintza batzuk ezarri ahal izango ditu. Betiere bermatu beharko da aktiboen administrazioak aurrera jarraituko duela; horrela, kontratu haiek ez dira suntsiaraziko IKIESKak ordezte hutsarengatik, baldin eta ordezkapen hori erabakitzean erakundearen aktiboak kudeatzen dituen erakundea ere ordezkatzea erabaki ez bada.

Ondorio horietarako, IKIESKek Batzordearen 2012ko abenduaren 19ko 231/2013 zenbakidun Erregelamendu Eskuordetuan (EB) ezarrita dagoena bete beharko dute.

3. atala. Gardentasun betekizunak

67. artikulua. *Informatzeko betebeharra eta auditoretza- eta kontabilitate-arloko betebeharrak.*

1. IKIESKek, kudeatzen duten AKE edo IKIE bakoitzeko, partaide eta akziodunen artean zabaltzeko, urteko txosten bat eta informazio-liburuxka bat argitaratu beharko dituzte, zehaztaperen hauen arabera:

a) Erakundeak informazio-liburuxka editatu beharko du administrazio-erregistroan inskribatu baino lehen.

b) Urteko txostena honakoez osatuta egongo da: urteko kontuak, kudeaketa-txostena, auditoretza-txostena, txostenaren xede den ekitaldian partaide edo akziodunei emandako informazioan gertatu diren aldaketa material guztiak eta 5. paragrafoan aipatzen den ordainketei buruzko informazioa. Sozietatearen ekitaldia urte naturalarekin bat etorriko da.

2. Urteko txostena Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari bidali beharko zaio hark erregistro eginkizunak bete ditzan, eta partaide eta akziodunen eskura jarri beharko da sozietate kudeatzailearen sozietate-helbidean ekitaldia amaitu eta hurrengo sei hilabeteen barruan.

3. AKE edo IKIE-en administratzaileek, ekitaldi bakoitzeko lehenengo bost hilabeteetan, urteko kontuak, emaitzak banatzeko proposamena eta kudeaketa-txostena egin beharko dituzte. AKF edo IKIFen kasuan, haien sozietate kudeatzailearen administratzaileek, epe berebean, funtsaren urteko kontuak, emaitzak banatzeko proposamena eta kudeaketa-txostena onetsi beharko dituzte.

4. Aurreko paragrafoan aipatu diren kontabilitate-agirien auditoretza egin beharko da kontuen auditoretzari buruzko araudian ezarrita dagoenaren arabera.

5. Kudeatzailearen ordainketa arloko politikari buruzko informazioa urteko txostenean agertu beharko da. Informazio horretan hau bildu beharko da:

a) Sozietate kudeatzaileak bere langileei ordaindutako kopuru guztiak, honela banakaturik: ordainketa finko eta aldakorak, onuradunen kopurua eta, bidezkoa denean, IKIESKak kudeaketagatiko konpentsazio gisa jasotako AKE edo IKIEaren etekinotako partaidetzan oinarritzen diren ordainketak, eta bazter utzita IKIESKak AKEan inbertitutako kapitalaren etekin gisa jasotako AKE edo IKIEaren etekinotako partaidetza guztiak.

b) Ordainketaren zenbateko agregatua, sozietate kudeatzaileko goi kargudunen eta langileen artean banakaturik, baldin eta horien jarduketak eragina badauka AKE edo IKIEaren arrisku-profilean.

6. Kontuen auditoreak AKS edo IKISen Batzar Nagusiek edo AKF edo IKIFen sozietate kudeatzaileen administratzaileek izendatuko dituzte. Izendapena sei hilabete epean egin beharko da AKE edo IKIEa eratzen den unetik aurrera, eta betiere, aztertu beharreko lehen ekitaldi ekonomikoko abenduaren 31 baino lehen, eta ardura uztailearen 1eko 1/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kontuen Auditoretzari buruzko Legearen testu bateginean aipatzen diren pertsona edo erakundeetako batek izango du.

AKE edo IKIE-en auditoretza-txostena eta urteko kontu auditatuak publikoak izango dira.

7. AKE edo IKIE baten partaide eta bazkideek eskubidea dute erakundeari buruz, partaidetzei buruz eta akziodunak edo partaideak erakundearen duen posizioari buruz informazio osoa, egiazkoa, zehatza eta etengabea eskatzeko eta jasotzeko.

8. IKIESKek haien kontabilitate-agiriei buruzko auditoretza-txostena egin beharko dute, kontuen auditoretzari buruzko araudian ezarrita dagoenaren arabera.

Halaber, txosten hori Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari bidali beharko diote ekitaldi bakoitzeko lehen sei hilabeteen barruan.

9. Arrisku sistemikoa benetan kontrolatzeko beharrezkoa bada, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak artikulua honetan adierazi denez gain informazio gehiago eskatu ahal izango du, bai aldizkakoa bai apartekoa.

Ondorio horietarako, IKIESKek Batzordearen 2012ko abenduaren 19ko 231/2013 zenbakidun Erregelamendu Eskuordetuan (EB) ezarrita dagoena bete beharko dute.

68. artikulua. *Inbertsioa egin aurretik inbertsiogileei inbertsio-erakunde bakoitzaren gaineko informazioa emateko betebeharrak.*

1. IKIESKek, administratzen duen AKE edo IKIE bakoitzerako, inbertsioa egin baino lehen, inbertsiogileen eskua liburuxka bat jarri beharko dute. Liburuxka horretan AKE edo IKIE-en estatutuak edo erregelamenduak –bidezkoa dena– bildu beharko dira, eta gutxienez informazio hau jaso beharko da:

a) Kudeatzen dituzten AKE edo IKIE-en estrategiaren eta inbertsio-politikaren azalpena; erakundearen ezarlekuari eta azpikoen ezarlekuari buruzko informazioa, baldin eta AKEak beste erakunde batzuetan inbertsioak egiten baditu; AKE edo IKIEak inbertsioak egin ahal dituen aktiboen moten azalpena, erabili ahal dien teknikak eta lotutako arrisku guztiak; bai eta, bidezkoa izanez gero, aplikatu daitezkeen inbertsiorako murriztapenak; AKE edo IKIEak palanka-efektua erabili ahal izateko inguruabarrak, baimenduta dauden palanka-efektuaren motak eta iturriak eta lotutako arriskuak; bidezkoa bada, palanka-efektuaren baliabideari eta alde biko akordioei eta aktiboak berrerabiltzeko akordioei aplikatzen zaizkien murriztapenak, eta IKIESKak AKE edo IKIEaren kontura erabili ahal izango duen palanka-efektuaren gehieneko maila.

b) Bere estrategia edo inbertsio-politika –edo biak– aldatzeko jarraitu ahal izango dituen prozeduren azalpena.

c) Inbertsio-xederako ezarritako kontratu-harremanaren ondorio nagusien azalpena, honako informazio honekin: gaitasun judiziala, aplikatu daitezkeen legeria eta AKE edo IKIEa dagoen lurraldean epaien aintzatespen eta betearazpena ezartzen dituzten tresna juridikoak dauden ala ez.

d) Bidezkoa bada, IKIESKaren gordailuzainaren nortasuna, auditorearena eta zerbitzuen beste zerbitzu-hornitzaile guztiena, eta haien betebeharren eta inbertsiogileen eskubideen azalpena.

e) IKIESKak lanbide-erantzukizunetik eratorritako arriskuak estaltzen dituen modua.

f) Sozietate kudeatzaileak eskuordetzan eman dituen kudeaketa-eginkizunen eta gordailuzainak eskuordetzan emandako eginkizunen azalpena, eskuordetza jaso dutenen nortasuna eta eskuordetza horien ondorioz sor daitezkeen interes-gatazka guztiak.

g) AKE baloratzeko prozeduraren eta aktiboak baloratzeko prezioen zehaztapenerako metodologiaren azalpena, barnean direla balorazio zaileko aktiboak baloratzeko erabilitako metodoak, 64. artikulua araberak.

h) AKE edo IKIEaren likidezia-arriskuaren kudeaketaren azalpena, barnean direla egoera arruntean eta aparteko egoeretan itzulketak egiteko eskubideak, bai eta inbertsiogileekin dauden itzulketa-akordioak ere.

i) Inbertsiogileen kontura zuzenean edo zeharka doazen komisio, zama eta gastu guztien azalpena, gehieneko zenbatekoa adierazita.

j) Sozietate kudeatzaileak inbertsiogileen berdintasunezko tratua bermatzen duen moduaren azalpena, eta inbertsiogileetako batek lehentasunezko tratua jasotzen badu edo tratua hori jasotzeko eskubidea lortzen badu, lehentasunezko tratua horren azalpena, lehentasunezko tratua hori lortzen duten inbertsiogileen mota eta, bidezkoa bada, inbertsiogile horiek sozietate kudeatzailearekin edo kudeatutako AKE-ekin duten harreman juridikoa edo ekonomikoa.

k) Partaidetzak jaulki eta saltzeko prozedura eta baldintzak.

l) AKE edo IKIE-en errentagarritasun historikoa, informazio hori eskuragarri badago.

m) Finantzaketa eta beste zerbitzu batzuk ematen dituzten finantza-bitartekarien nortasuna, halakorik badago. Finantza-bitartekari hori kreditu-erakunde bat, araututako inbertsio-enpresa bat edo beste edozein erakunde izan ahal da, zuhurtziazko arauketaren

eta etengabeko gainbegiratzearen mendean dagoena, inbertsiogile profesionaleri zerbitzuak eskaintzen dizkiena batik bat finantza-tresnetako eragiketak kontrako alde gisa finantzatu edo egikaritzeko; halaber, beste zerbitzu batuk ere eman ahal ditu, adibidez eragiketak konpentsatu eta likidatzea, zaintza-zerbitzuak, baloreen mailegua, neurrirako teknologia eta laguntza operatiborako bitartekoak.

n) Hainbat gauzaren azalpena: finantzaketa eta beste zerbitzu batzuk ematen dituzten finantza arloko bitartekariak, bidezkoa bada, eta horri buruz interes-gatazkak kudeatzen diren modua, gordailuzainarekiko kontratuak aktiboak transferitzeko eta berrerabiltzeko aukerari buruz aurreikusita dagoena, eta finantza arloko bitartekari horrentzat egon daitezkeen erantzukizun-lagapen guztiei buruzko informazioa.

ñ) 69. artikuluko 1. eta 3. paragrafoetan aurreikusitako informazioa zabaltzeko moduaren eta unearen azalpena.

2. Liburuxkaren eguneraketak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari bidali beharko zaizkio.

3. Halaber, inbertsioa egin baino lehen, inbertsiogileen eskura jarri beharko dituzte azken urteko txostena 67.1.b) artikulua araber, AKE edo IKIE-en likidazio-balioa kalkulurik berrienaren araber edo AKE edo IKIE-etako partaidetza baten merkatuko preziorik berrienaren araber, 64. artikulua araber, eta kudeaketaren eskuordetzeari buruzko akordioa, 29. artikuluan aipatzen dena.

69. artikulua. *Inbertsiogileei aldian-aldian informazioa emateko betebeharrak.*

1. IKIESKek inbertsiogileei aldizka emango diete informazioa, erregelamenduetan edo estatutuetan ezarritako maiztasunarekin, eta nolana ere, gutxienez urtero, hauei buruz:

a) AKE edo IKIEaren aktiboetatik likideziarengatik neurri berezien mendean dagoen ehunekoa, eta

b) AKE edo IKIEaren benetako arrisku-profila eta kudeatzaileak arrisku horiek kudeatzeko erabilitako sistemak.

2. Horrez gain, AKEaren edo IKIEaren likidezia kudeatzeko neurri berri guztien berri emango diete inbertsiogileei berehala, bai eta palanka-efektuaren gehieneko muga eta albokoa berrerabiltzeko eskubideetan gertatutako aldaketan berri ere.

3. Palanka-efektua erabiltzen duten AKE edo IKIEak kudeatzen dituzten IKESKek inbertsiogileei hau jakinaraziko diete aldian-aldian, erregelamendu edo estatutuetan ezarritako maiztasunarekin eta, nolana ere, gutxienez urteko txostenean:

a) AKE edo IKIEaren kontura sozietate kudeatzaileak erabili ahal duen palanka-efektuaren gehieneko mailaren aldaketak, bai eta albokoak edo bermeak berrerabiltzeko eskubide guztiak, eta

b) AKE edo IKIEak erabilitako palanka-efektuaren zenbateko osoa.

Ondorio horietarako, IKIESKek Batzordearen 2012ko abenduaren 19ko 231/2013 zenbakidun Erregelamendu Eskuordetuan (EB) ezarrita dagoena bete beharko dute.

70. artikulua. *Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari aldian-aldian informazioa emateko betebeharrak.*

1. IKIESKek eskatzen zaien informazio guztia eman beharko diete Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari, bereziki kudeatzen dituzten AKE edo IKIE-en kontura negoziazioak egiten dituzteneko merkatu eta tresnei buruz, negoziatzen ari direneko tresnarik behinenei buruz, kide direneko edo aktiboki negoziatzen duteneko merkatuei buruz, eta kudeatzen duten AKE edo IKIE bakoitzaren esposizio eta kontzentrazio garrantzitsuenei buruz. Informazio hori Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroak, edo, berriazko gaikuntzarekin, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ezartzen dituen maiztasun, norainoko eta edukiarekin emango da.

2. IKIESKek, kudeatzen duten AKE edo IKE bakoitzeko, informazio guztia eman beharko diote Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari hauei buruz:

- a) Erakundearen aktiboetatik likideziarengatik neurri berezien mendean dagoen ehunekoari buruz.
- b) Erakundearen likidezia kudeatzeko edozein neurri berriri buruz.
- c) Erakundearen benetako arrisku-profilari eta sozietate kudeatzaileak merkatuaren arriskua, likidezia-arriskua, kontrako aldearen arriskua eta beste arrisku batzuk –arrisku operatiboa barne dela– kudeatzeko erabilitako arriskuen kudeaketako sistemei buruz.
- d) Erakundeak inbertsioa egin dueneko aktiboen kategoria nagusiei buruz.
- e) 62.4.b) artikulua eta 63.2 artikulua araberako arabera egindako muturreko egoeren aurkako erresistentziaren proben emaitzei buruz.

Informazio hori Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroak, edo, berariazko gaikuntzarekin, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ezartzen dituen maiztasun, norainoko eta edukiarekin emango da.

3. IKIESKek Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari agiri hauek emango dizkiote, hark eskatzen duenean:

- a) Kudeatutako Europar Batasuneko inbertsio-erakunde bakoitzaren eta IKIESKak Europar Batasunean merkaturatutako inbertsio-erakunde bakoitzaren urteko txostena, ekitaldi bakoitzari dagokiona, 67.1.b) artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, eta
- b) hiru hilabete natural bakoitza amaitu aurretik, sozietate kudeatzaileak kudeatutako inbertsio-erakunde guztien zerrenda, xehetasun eta guzti.

4. Palanka-efektua modu nabarmenean erabiltzen duten AKE edo IKIEak kudeatzen dituzten IKIESKek Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari informazioa emango diote kudeatzen duten inbertsio-erakunde bakoitzaren palanka-efektuaren maila orokorrari buruz, eskudiruko mailegua hartzearen ondoriozko palanka-efektuaren zatia eta finantza-eratorrietan inplizituki dagoena banakatuta, bai eta inbertsio-erakundeko aktiboak berrerabili diren mailari buruzko informazioa ere.

Informazio horretan sartuko dira eskudiruko maileguaren bost iturririk handien nortasuna edo sozietate kudeatzaileak kudeatutako inbertsio-erakunde bakoitzaren baloreak, eta haietariko bakoitzetik lortutako palanka-efektua.

5. AKE edo IKIE-entzako gertakari nabarmenak izango dira akzio edo partaidetzen balioari buruzko iritzian eragin handia duten edo izan ahal dutenak, eta bereziki, partaidetutako erakundeen negozioen bilakaeran, haien errentagarritasunean eta haien finantza-egoeran eragin nabarmena duten edo izan ahal duten izaera kontingenteko inguruabar guztiak, baldin eta eraginpean dagoen erakundearen egindako inbertsioa gutxienez arrisku-kapitaleko erakundearen aktiboaren % 5 gutxienez bada.

Ondorio horietarako, IKIESKek Batzordearen 2012ko abenduaren 19ko 231/2013 zenbakidun Erregelamendu Eskuordetuan (EB) ezarrita dagoena bete beharko dute.

71. artikulua. *Partaidetza handiak eta sozietateen kontrola eskuratzearen ondoriozko informazio-betebeharrak.*

1. IKIESKek, gehienez 10 laneguneko epean, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinarazi beharko diote emaitza gisa atera den boto-eskubideen ehunekoak, haien kudeaketapeko AKE edo IKIEak kotizatu gabeko sozietate baten akzioak edo partaidetzak eskuratzen edo zuzenean nahiz zeharka eskualdatzen baditu, bai banaka bai akordio bat oinarri hartuta beste AKE edo IKIE batzuekin edo haien sozietate kudeatzaileekin batera, eta baldin eta negozio juridiko horien emaitza gisa daukaten boto-eskubideen proportzioa % 10, % 20, % 30, % 50 edo % 75eko atalaseetara heltzen edo horietatik gora igotzen bada edo atalase horietatik behera murrizten bada.

2. Haien kudeaketapeko AKE edo IKIE batek kotizatu gabeko sozietate baten akzioak edo partaidetzak eskuratzen edo zuzenean nahiz zeharka eskualdatzen baditu, bai banaka bai akordio bat oinarri hartuta beste AKE edo IKIE batzuekin edo haien

sozietate kudeatzaileekin batera, eta baldin eta eskurapen horren emaitza gisa kotizatu gabeko sozietatearen boto-eskubideen % 50 baino gehiago lortzen badu, IKIESKak betebeharrak bete beharko ditu:

a) Horren berri eman beharko dio Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari, kotizatu gabeko sozietateari, bai eta bazkideei ere, haien nortasunak eta helbideak badakizki edo eskuratutako sozietatearen edo erregistro baten bitartez horien berri badu. Jakinarazpena gehienez 10 languneko epean egin beharko da. Jakinarazpen horretan informazio hau bildu beharko da:

1.a Ondorioz sortu den egoera, boto-eskubideei dagokienez.

2.a kontrola eskuratu deneko baldintzak, honako hauek azalduta: eraginpean dauden bazkideen nortasuna, haien izenean boto-eskubidea baliatzeko ahalmena duten pertsona fisiko edo juridiko guztiena eta, bidezkoa bada, boto-eskubideak beten baliatzeko bitarteko gisa erabiltzen diren sozietateen katea, eta

3.a kontrola hartu den data.

b) Jarraian azalduko den informazioa Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari eman beharko dio, kotizatu gabeko sozietateari, bai eta bazkideei ere, haien nortasunak eta helbideak badakizki edo eskuratutako sozietatearen edo erregistro baten bitartez horien berri badu:

1.a Banaka edo beste sozietate batzuekiko akordioen bitartez kontrola hartu duen inbertsio-erakundea kudeatzen duen IKIESKaren nortasuna,

2.a interes-gatazkek prebenitu eta kudeatzeko politika, bereziki, IKIESKaren, inbertsio-erakundearen eta kotizatu gabeko sozietatearen arteko interes-gatazkei dagokienez, barnean dela IKIESKaren, AKEaren edo IKIEaren eta kotizatu gabeko sozietatearen artean egindako akordio guztiak elkarrekiko independentzia-egoeretan egin dela bermatzeko ezarritako babes espezifikoetako buruzko informazioa barne dela, eta

3.a kotizatu gabeko sozietateari dagokion kanpoko eta barneko komunikazio-politika, bereziki, langileei dagokienez.

c) Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari eta AKE edo IKIEko akziodun eta partaideei eskurapenaren finantzaketari buruzko informazioa eman beharko die.

d) Bermatu beharko du AKEak edo IKIEak, edo berak, horien kontura jarduten duenean, kotizatu gabeko sozietateari eta haren bazkideei informazioa eman diezaiela kotizatu gabeko sozietatearen etorkizuneko jardueri buruz dituen asmoei buruz eta jarduera horiek enpleguan izango duten eraginari buruz, enpleguaren baldintzen aldaketa nabarmen guztiak barne direla.

e) Kontrola hartzen duen AKE edo IKIEaren urteko txostenean kotizatu gabeko sozietateari buruzko informazio hau bildu beharko du:

1.a Ekitaldia amaitu ondoren sozietatearentzat garrantzia izan duten gertakarien azalpena, horiek izan dezaketen bilakaera azalduta,

2.a sozietatearen negozioen bilakaeraren azalpen fidela. Azalpen horretan, txostenaren xede den ekitaldiaren amaieran dagoen egoera azalduko da,

3.a sozietateak izan dezakeen bilakaera, eta

4.a akzio propioak eskuratu badira, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 148.d) artikuluan aipatzen den informazioa.

3. Aurreko paragrafoaren kasuan, IKIESKak, kotizatu gabeko sozietateari jakinarazpena bidaltzean, administrazio-kontseiluari eskatuko dio langileen legezko ordezkariari informazioa eman diezaiela AKE edo IKIEak kontrola eskuratu izanari buruz eta paragrafo horretako a), b), d) eta e) idatzi-zatietan aurreikusitako informazioa haien eskura jar dezala.

4. 2. paragrafoan aurreikusitako kasuan, IKIESKak ondoko muga hauek bete beharko ditu kotizatu gabeko sozietateari dagokionez 24 hilabeteko epean, AKE edo IKIEak kontrola eskuratzen duenetik aurrera:

a) Ezin egingo du kapital-murrizketako eragiketarik, harpidetutako sozietate-kapitala murriztuz galerak konpentsatzea edo erreserba eskuragarriak handitzea helburu duten eragiketak bazter utzita, baldin eta eragiketa horren ostean handitutako erreserbaren zenbatekoa gehienez murriztu ondoren harpidetutako kapitalaren % 10etik gorakoa bada.

b) Ezin erabakiko da dibidenduen banaketa honako egoera hauetako bat gertatzen bada:

1.a Azken ekitaldia amaitzean, ondare garbiaren zenbatekoa harpidetutako kapitala baino txikiagoa bada edo emaitzen banaketaren ondorioz kapital hori (gehi legearen eta estatutuen arabera eskuragarriak diren erreserbak) baino txikiagoa bada txikiagoa bada. Ondorio horietarako, harpidetutako eta ordaindu gabeko kapitala balantzaren aktiboan konputatu ez bada, bere zenbatekoa harpidetutako kapitaletik kendu beharko da.

2.a Dibidenduen banaketa amaitutako azken ekitaldiko emaitzen zenbatekoa gehi banatu gabeko etekinak eta helburu hori duten erabilera askeko erreserbei egotzitako gastuak ken metatutako galerak eta legearen eta estatutuen arabera eskuragarriak diren erreserben kargurako zuzkidurak baino handiagoa bada.

c) Ezin erabakiko du akzio edo partaidetza propioak bazkideentzako itzulketen bidez eskuratzea edo amortizatzea, baldin eta eskurapenaren ondorioz ondare garbiaren zenbatekoa aurreko b) idatzi-zatiko 1. zenbakian aurreikusitako zenbatekotik behera geratzen bada. Ondorio horietarako, kotizatu gabeko sozietateak lehenago eskuratutako akzio edo partaidetzak eta bere izenean baina haien kontura jarduten duen pertsona batek eskuratutakoak ere konputatuko dira. Akzio edo partaidetza propioak eskuratu ahal badira, eskurapen horrek uztailearen 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 140.1 eta 144.b), c) eta d) artikuluetan xedatutakoa bete beharko du.

5. AKE edo IKIE eskuratzaileren sozietate kudeatzaileak beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko ditu kotizatu gabeko sozietateak aurreko paragrafoan azaldu diren eragiketak egin ditzala eragozteko, eta administrazio-kontseiluan ordezkaritza badauka, boto-eskubidea baliatuko du eragiketa horiek saihesteko.

6. 2.b) paragrafoan aurreikusitako informazio-betebeharra eta 4. eta 5. paragrafoetan bildutako debeku eta betebeharrak ere aplikatu beharko dira baldin eta AKE edo IKIE batek bigarren mailako merkatu arautu batean edo Europar Batasunean helbideratutako beste merkatu arautu batean onartutako baloreak dituen jaulkitzaile baten kontrola eskuratzen badu bai banaka bai akordio bat oinarri hartuta beste AKE edo IKIE batzuekin edo haien sozietate kudeatzaileekin batera. Ondorio horietarako, kontrolaren eskurapena Balore Merkatuei buruzko uztailearen 28ko 24/1988 Legearen arabera zehaztuko da.

IKIESKak jaulkitzailearen administrazio-organoari eskatuko dio langileen legezko ordezkariei 2.b) paragrafoan aurreikusitako informazioa eman diezaiela.

7. Aurreko paragrafoetan ezarritako boto-eskubideen ehunekoak kalkulatzeko, boto-eskubideak ematen dituzten akzio edo partaidetza guztiak ere konputatuko dira, eskubide horiek baliatzeko aukera etenda badago ere, bai eta akzioak eskuratzeko eskubidea ematen duten beste finantza-tresna batzuk ere, baldin eta horiek boto-eskubidea ematen badute.

8. Artikulu honetan aurreikusitako betebeharrak eta mugak ez dira aplikatuko kotizatu gabeko sozietateak edo jaulkitzaileak honako hauek badira:

a) Mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioaren eranskineko 2. artikuluko 1. paragrafoaren arabera enpresa txiki eta ertain gisa hartzen diren erakundeak, edo

b) ondasun higiezinak eskuratu, eduki edo administratzeko sortutako helburu bereziko erakundeak.

III. KAPITULUA

Arrisku-kapitaleko erakundeen eta inbertsio kolektibo itxiko erakundeen kudeaketa-jarduerari ekiteko eta horretan aritzeko baldintzak, kasu berezi batzuetan

72. artikulua. *Arrisku-kapitaleko erakundeak edo inbertsio kolektibo itxiko erakundeak kudeatzen dituzten Inbertsio kolektibo itxiko erakundeen sozietate kudeatzaileen kudeaketa-jarduerari ekiteko eta horretan aritzeko baldintzak, atalase jakin batzuen azpitik.*

1. II. kapituluan aurreikusita dagoen guztia IKIESKei ez zaie aplikatuko, kudeaketapean dituzten aktiboak atalase hauetatik behera badaude:

- a) 100 milioi euro, palanka-efektua erabiliz eskuratutako aktiboak barne direla, edo
- b) 500 milioi euro, kudeatzen dituzten inbertsio-erakundeek palanka-efekturik jasan ez badute eta hasierako inbertsioaren datatik aurrera zenbatutako bost urteko epean baliatu ahal den itzulketa-eskubiderik ez badute.

Kalkulu horren ondorioetarako IKIESKarene kudeaketapeko aktibo gisa konputatuko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren arabera eraturako inbertsio-erakundeetako aktibo guztiak, sozietate kudeatzaileak berak zuzenean kudeatzen dituenak nahiz zeharka, baterako kudeaketaren edo kontrolaren arrazoiengatik kudeatzailearekin harremana duen enpresa baten bitartez, edo zuzenean edo zeharkako partaidetza adierazgarri baten bitartez.

2. II. kapituluan aurreikusita dagoena ez zaie aplikatuko IKESKei, AKE edo IKIE bat edo gehiago kudeatzen dituzten heinean, eta haien inbertsiogile bakarra IKESK, enpresa nagusia edo kudeatzailearen filialak edo enpresa nagusi horren beste filial batzuk badira, baldin eta inbertsiogileetako bat ez bada aldi berean AKE edo IKIE, eta borondatez lege honen mende jarri badira.

3. 1. eta 2. paragrafoetako IKIESKek hau egin beharko dute:

a) Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari kudeatzen dituzten AKE edo IKIE-en berri ematea eta inbertsio-estrategiei buruzko informazioa ematea. Halaber, aldian-aldian informazioa emango diote Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari inbertitzen duteneko tresnarik behinenei buruz, bai eta arrisku eta kontzentrazioari behinenei buruz, 70.1. artikuluan ezarrita dagoen bezala.

b) Inbertsiogile edo partaideen eskura jartzea kudeatzen duten AKE eta IKIE bakoitzari buruz 68. eta 69. artikuluetan azaldutako informazioa, 67.5. artikuluan xedatuta dagoenean azaltzen den informazioa izan ezik.

c) Bere kontabilitate-agiriak auditoretzarako aurkeztea kontu-auditoretzari buruzko araudian ezarrita dagoenaren arabera, eta ekitaldi bakoitzaren lehenengo sei hilabeteetan auditoretza-txostena Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren esku jartzea.

4. Kudeatzaile horiek, 1. paragrafoan ageri diren baldintzak betetzeari uzten diotenean, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari horren berri eman beharko diote.

5. Artikulu honetako 1. paragrafoan aurreikusita dagoena ez zaie aplikatuko AKEak inbertsiogile ez-profesionalentzat merkaturatzen dituzten IKESKei, 75.2 artikuluan aurreikusita dagoenaren arabera.

6. Kudeaketapeko aktiboak aurreko atalaseetatik behera dituzten IKIESKak borondatez jarri ahal izango dira II. kapituluan aurreikusitako araubidearen mende, eta ondorio horretarako jakinarazi beharko diote Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari. Kasu horretan, inbertsio-erakundeak mugaz haraindi kudeatzeko eta merkaturatzeko 80. eta 81. artikuluetan aurreikusitako eskubideen onura jaso ahal izango dute.

Ondorio horietarako, IKIESKek Batzordearen 2012ko abenduaren 19ko 231/2013 zenbakidun Erregelamendu Eskuordetuan (EB) ezarrita dagoena bete beharko dute.

73. artikulua. *Europako arrisku-kapitaleko funtsak kudeatzen dituzten inbertsio kolektibo itxiko erakundeen sozietate kudeatzaileen kudeaketa-jarduerari ekiteko eta horretan aritzeko baldintzak.*

Europar Batasunean Europako arrisku-kapitaleko funtsak edo sozietateak merkaturatzen dituztela-eta «EAKF» izendapena erabili nahi duten IKIESKek Europako arrisku-kapitaleko funtsei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko apirilaren 17ko 345/2013 zenbakidun Erregelamenduan aurreikusita dagoena bete beharko dute.

74. artikulua. *Europako gizarte-ekintzailtzako funtsak kudeatzen dituzten inbertsio kolektibo itxiko erakundeen sozietate kudeatzaileen kudeaketa-jarduerari ekiteko eta horretan aritzeko baldintzak.*

Europar Batasunean Europako gizarte-ekintzailtzako funtsak edo sozietateak merkaturatzen dituztela-eta «EGEF» izendapena erabili nahi duten IKIESKek Europako gizarte-ekintzailtzako funtsei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko apirilaren 17ko 346/2013 zenbakidun Erregelamenduan aurreikusita dagoena bete beharko dute.

III. TITULUA

Arrisku-kapitaleko erakundeak eta inbertsio kolektibo itxiko erakundeak merkaturatzea

75. artikulua. *Arrisku-kapitaleko erakundeak eta inbertsio kolektibo itxiko erakundeak merkaturatzeko mugak.*

1. e) Espainiako AKE edo IKIE-en akzioak edo partaidetzak bezero profesionaltzat hartzen diren inbertsiogileen artean soilik merkaturatuko dira, Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 78 bis artikuluko 2. eta 3. paragrafoetan definituta dauden bezala.

2. Halaber, Espainiako AKE-en akzioak edo partaidetzak beste inbertsiogile batzuen artean merkaturatu ahal izango dira honako baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Inbertsiogile horiek gutxienez 100.000 euro inbertitzeko konpromisoa hartzea, eta
b) inbertsiogile horiek inbertsio-konpromisoari buruzko kontratua ez den beste agiri batean idatziz deklaratzeko aurreikusitako konpromisoari lotutako arriskuak ezagutzen dituztela.

Paragrafo honetan eta 4. paragrafoan aurreikusitako inbertsiogile ez-profesionalentzat merkaturatzen direnean, harpidetu edo eskuratu baino lehen informazio-liburuxka entregatu beharko da. Liburuxka horretan bilduko da kudeaketako erregelamendua edo sozietate-estatutuak, urteko txostena eta, sozietateen kasuan, kudeaketa eskuordetzan emateko erabakia. Horiek guztiak 67. eta 68. artikuluetan aipatzen dira. Gerora, urteko txostena partaideei bidali beharko zaie ekitaldi bakoitzeko lehenengo 6 hilabeteetan, 69. artikuluan ezarrita dagoena gorabehera.

3. Horrez gain, AKE edo IKIE-en akzioak edo partaidetzak profesionaltzat hartzen ez diren inbertsiogileek harpidetu edo eskuratu ahal izango dituzte, baldin eta aurreko paragrafoko a) eta b) idatzi-zatietan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

4. Espainiako AKE-en akzioak edo partaidetzak artikuluko honetako 2. paragrafoko a) eta b) baldintzak gertatu behar izan gabe ere merkaturatu ahal izango dira:

a) Sozietate kudeatzaileko edo erakunde autokudeatuetako administratzaile, zuzendari edo langileen artean, erakundeari berari dagokionez edo sozietate kudeatzaileak kudeatzen edo aholkatzen dituen erakundeei dagokienez,

b) inbertsiogileek inbertsioak balore-burtsetan kotizatutako AKE-etan egiten dituztenean, eta

c) inbertitu nahi duenaren antzeko AKE-etan inbertsioan, kudeaketan edo aholkularitzan esperientzia dutela justifikatzen duten inbertsiogileen artean.

5. Lege honetan xedatuta dagoenaren ondorioetarako, AKE edo IKIE bat merkaturatzea izango da AKEaren edo IKIEaren kontura edo haren izenean edo haren merkaturatzaileetako baten izenean jarduten duen edozein erakunderen kontura publizitate-jardueraren bidez bezeroak atzitzea, AKEra edo IKIEra funtsak, ondasunak edo eskubideak ekar ditzaten.

Ondorio horietarako, publizitate-jarduerak izango dira inbertsiogile izan daitezkeenentzat egindako komunikazio guztiak. Helburua, zuzenean edo AKEaren edo IKIEaren edo IKIESKaren kontura jarduten hirugarrenen bitartez zeharka, AKEaren edo IKIEaren partaidetzak edo akzioak harpidetu ditzatela edo eskura ditzatela sustatzea da. Nolanahi ere, publizitate-jarduera dago jendearengana jotzeko erabilitako bitartekoak hauek badira: AKEak edo IKIEak edo haren sozietate kudeatzaileak hasitako telefono-deiak, bizilekura egindako bisitak, gutun pertsonalizatuak, posta elektronikoa edo beste bide telematiko guztiak, zabalkunde, merkaturatze edo sustapen kanpaina baten barruan.

Kanpaina lurralde nazionalen egin dela ulertuko da Espainian bizi diren inbertsiogileei zuzenduta badago. Posta elektronikoen edo beste bide telematiko guztien kasuan, eskaintza Espainian bizi diren inbertsiogileei zuzentzen zaiela uste izango da baldin eta AKEak, IKIEak edo haien sozietate kudeatzaileak, edo haien kontura baliabide informatikoan jarduten duen edozein pertsonak, akzioak edo partaidetzak erostea edo harpidetzea proposatzen badu edo Espainiako lurraldean bizi direnei beharrezkoa den informazio guztia ematen badie jaulkipenaren edo eskaintzaren ezaugarriak ikusteko eta jaulkipen edo eskaintza horrekin bat egiteko.

Nolanahi ere, AKE-en edo IKIE-en kapitala edo ondarea adierazten duten akzioen, partaidetzen edo baloreen salmenta, besterentze, bitartekotza, harpidetza, geroagoko itzulketa edo eskualdaketa jarduerak (erakunde merkaturatzearekin zerikusia dutenak) finantza-bitartekarien bitartez egin beharko dira, lege honetan eta lege hau garatzeko xedapenetan aurreikusita dagoenaren arabera.

76. artikulua. *Europar Batasuneko beste estatu kide batean eratu diren eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren babespean estatu kide batean kudeatzaile baimenduek kudeatzen dituzten arrisku-kapitaleko erakundeak eta inbertsio kolektibo itxiko erakundeak Espainian merkaturatzea.*

1. 5.1.b) artikuluan aipatzen diren AKE eta IKIE-en akzioak eta partaidetzak Espainian inbertsiogile profesionalentzat merkaturatzean, inbertsiogile profesional horiek Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 78 bis artikuluko 3. paragrafoan definitzen diren bezala, askea izango da, artikulua honetan aurreikusita dauden arauen arabera, erakunde horien kudeatzailea baimendu duen estatu kideko agintari eskudunak kudeatzaileari jakinarazten dionetik Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinarazpen-idazkia bidali diola. Idazki horretan informazio hau bildu beharko da:

a) Kudeatzaileak merkaturatu nahi dituen erakundeen identifikazioa, eta erakunde horien ezarlekuarena ere bai.

b) Akzioak edo partaidetzak Espainian merkaturatzeko xedapen eta modalitateak, eta bidezkoa bada, partaidetza horien motei edo akzioen serieei buruz.

c) AKFaren edo IKIFaren erregelamendua edo sozietatearen eraketa-agiriak.

d) Inbertsio-erakundearen liburuxka, halakoa eskatu ahal bada, eta azken urteko txostena.

e) Inbertsio-erakundearen gordailuzainaren identifikazioa.

f) Inbertsio-erakundearen deskribapena, edo hari buruzko edozein informazio, inbertsiogileen eskura.

g) Inbertsio-erakunde nagusia ezarrita dagoen lekuari buruzko informazioa, merkaturatu nahi duen inbertsio-erakundea mendeko erakundea bada.

h) Bidezkoa denean, inbertsio-erakundearen partaidetzak txikizkako inbertsiogileen artean merkaturatzea eragozteko hartutako neurriei buruzko informazioa.

Atzerriko AKE edo IKIEak Espainian inskribatu ondoren egiten diren urteko txostenak, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak bost urtean eskatu ahal izango ditu.

2. Mendeko erakunde bat Espainian merkaturatu ahal izateko, erakunde nagusiak helbidea Europar Batasunean izan beharko du eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren babespean baimendutako kudeatzaile batek kudeatuko du.

3. 1. paragrafoko jakinarazpenarekin batera kudeatzailearen jatorriko Europar Batasuneko kide den estatuko agintari eskudunen egiaztatzea aurkeztu beharko da. Egiaztigiri horren bidez egiaztatuko da kudeatzaile hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren arabera baimenduta dagoela inbertsio-erakundeak inbertsio-estrategia jakin batekin kudeatzeko.

4. 1. paragrafoan aipatu den jakinarazpen-idazkia eta 3. paragrafoan aipatu den egiaztatzea nazioarteko finantzen esparruan ohikoa den hizkuntza batean gutxienez aurkeztu beharko dira, eta baliabide elektronikoak erabiliz bidaltzea onartu ahal izango da.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak artikulua honetan ezarritakoaz bestelako informazio edo agiriak ezin eskatuko ditu.

5. Espainian merkaturatzeko eta publizitatea egiteko araubideari dagokionez, Espainian indarrean dauden xedapen arauemaileak errespetatu beharko dituzte inbertsio-erakundeek. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ikuskatuko du betebeharririk ez dagoen neurriak betetzen diren.

6. Lege honetan ezarrita dagoenaren arabera, inbertsio-erakunde horien kudeatzaileek erakundearen akziodun eta partaideei honako hauek erraztu beharko dizkiete: ordainketak; AKE-ek edo IKIE-ek haien akzioak eskuratzea edo haien partaidetzak itzultzea; Espainian bizi diren akziodun eta partaideei eman behar dizkieten informazioak zabaltzea; eta, orokorrean akziodunek eta partaideek haien eskubideak baliatzea.

77. artikulua. Europar Batasuneko kide ez den estatu batean eratu diren eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren babespean estatu kide batean kudeatzaile baimenduek kudeatzen dituzten arrisku-kapitaleko erakundeak edo inbertsio kolektibo itxiko erakundeak inbertsiogile profesionalentzat Espainian merkaturatzea.

1. 5.1.c) artikuluan aipatu diren inbertsio-erakundearen akzioak eta partaidetzak Espainian inbertsiogile profesionalentzat merkaturatzeko, inbertsiogile horiek Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 78 bis artikuluko 3. paragrafoan definitzen diren bezala, aldezturik Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren aurrean egiaztatzea beharko da honako hauek betetzen direla:

a) Kudeatzailearen jatorriko herriko agintari eskudunen eta inbertsio-erakundea ezarrita dagoen Europar Batasunaz kanpoko estatuko gainbegiratze-agintarien artean lankidetzako akordio egokiak egotea, gutxienez informazio-elkartruke eraginkor bat bermatzeko, hala agintari eskudunek haien eginkizunak egin ahal izango baitituzte Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren arabera.

b) AKE edo IKIEa ezarrita dagoen herria (Europar Batasuneko kide ez dena) ez agertzea Kapital Zuriketari buruzko Nazioarteko Finantza Ekintzako Taldeak ezarritako herri eta lurralde ez-laguntzaileen zerrendan.

c) AKE edo IKIEa ezarrita dagoen hirugarren herriak (Europar Batasuneko kide ez denak) Espainiarekin akordio bat sinatuta edukitzea. Akordio horrek guztiz bete behar ditu Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundearen Errentari eta Ondareari

buruzko Zerga Hitzarmenaren Ereduaren 26. artikuluan ezarritako aginduak, eta zerga arloko informazioaren benetako elkartrukea bermatu beharko du. Beharrezkoa bada, zergen arloan alde anitzeko akordioak ere egingo dira.

2. Inbertsio-erakundearen sozietate kudeatzaileak, halaber, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalen informazio hau erregistratu beharko du:

- a) Kudeatzaileak merkaturatu nahi duen AKE edo IKIEaren identifikazioa, eta erakunde horien ezarlekuarena ere bai.
- b) Akzioak edo partaidetzak Espainian merkaturatzeko xedapen eta modalitateak, eta bidezkoa bada, partaidetza horien motei edo akzioen serieei buruz.
- c) AKFaren edo IKIFaren erregelamendua edo AKSaren edo IKISaren eraketa-agiriak.
- d) Funtsren erakundearen liburuxka, edo agiri baliokidea, halakoa eskatu ahal bada, eta azken urteko txostena.
- e) Inbertsio-erakundearen gordailuzainaren identifikazioa.
- f) Inbertsio-erakundearen deskribapena, edo hari buruzko edozein informazio, inbertsiogileen eskura.
- g) Inbertsio-erakunde nagusia ezarrita dagoen lekuari buruzko informazioa, merkaturatu nahi duen inbertsio-erakundea mendeko erakundea bada.
- h) Bidezkoa denean, inbertsio-erakundea txikizkako inbertsiogileen artean merkaturatzea eragozteko hartutako neurriei buruzko informazioa.
- i) Europar Batasuneko kide ez den estatu batean eratutako inbertsio-erakundea eta haren kapitala edo ondarea adierazten duten akzio, partaidetza edo baloreak aplikatu daitezkeen araubide juridikoaren mende daudela egiaztatzen duten agiriak.

Paragrafo honetan eta aurrekoan aipatu diren agiri guztiak nazioarteko finantzen esparruan ohikoa den hizkuntza batean gutxienez aurkeztu beharko dira.

3. Horrez gain, kudeatzaileak, aurreko agiriekin batera, agintari eskudunei eskatu beharko dien egiaztagiria aurkeztu beharko du. Egiaztagiri horrek baieztatu behar du kudeatzaile hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren bidez baimenduta daudela inbertsio-erakundeak inbertsio-estrategia jakin batekin kudeatzeko.

4. AKE eta IKIE horiek Espainian merkaturatzeko, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak helburu horretarako baimendu behar ditu, eta kudeatzaileak nahiz merkaturatu nahi diren AKE edo IKIEak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erregistroetan inskribatuta geratu behar dira.

Merkaturatzeko baimena zuhurtziazko arrazoiengatik ukatu ahal izango da, Espainian merkaturatu nahi den erakundearen jatorriko herrian AKE-ei eta IKIE-ei tratu baliokidea ez emateagatik, Espainiako balore-merkatuetako antolamendu eta diziplina arauak beteko direla ziurtatuta ez geratzeagatik, Espainian bizi diren inbertsiogileen behar bezalako babesa bermatuta ez egoteagatik eta inbertsio-erakunde horien eta Espainian baimendutako inbertsio-erakundeen arteko lehiaren baldintzetan nahasmenduak egoteagatik.

5. AKEak, IKIEak eta haien kudeatzaileak merkaturatzeko Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalen baimendu ondoren, kudeatzaileek, lege honetan eta legea garatzeko araudian ezarrita dagoenaren arabera, AKE eta IKIE horietako akziodun eta partaideei honako hauek erraztu beharko dizkiete: ordaintak; AKE-ek edo IKIE-ek haien akzioak eskuratzea edo haien partaidetzak itzultzea; Espainian bizi diren akziodun eta partaideei eman behar dizkieten informazioak zabaltea; eta, orokorrean akziodunek eta partaideek haien eskubideak baliatzea.

Espainian merkaturatzeari eta publizitatea egiteari buruz indarrean dauden xedapen arauemaileak errespetatu beharko dituzte AKE eta IKIE-ek eta haien kudeatzaileak. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ikuskatuko du betebeharrak horiek noraino betetzen diren.

6. 5.1.c) artikuluan aipatzen diren erakundeen akzioak edo partaidetzak merkaturatzeko baldintza gehigarri batzuk zehaztu ahal izango dira erregelamendu bidez.

78. artikulua. *Helbidea Europar Batasunean ez duten kudeatzaileek kudeatutako arrisku-kapitaleko erakundeak edo inbertsio kolektibo itxiko erakundeak inbertsiogile profesionalentzat Espainian merkaturatzea.*

1. 5.1.d) artikuluan aipatu diren inbertsio-erakundeen akzioak eta partaidetzak Espainian inbertsiogile profesionalentzat merkaturatzeko, inbertsiogile horiek Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 78 bis artikuluko 3. paragrafoan definitzen diren bezala, aldezturik Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren aurrean egiaztatu beharko da honako hauek betetzen direla:

a) Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren, kudeatzailearen jatorriko herriko agintari eskudunen eta inbertsio-erakundea ezarrita dagoen hirugarren herriko gainbegiratze-agintarien eta, bidezkoa bada, inbertsio-erakundea ezarrita dagoen Europar Batasuneko estatu kideko gainbegiratze-agintarien artean lankidetzako akordio egokiak egotea, gutxienez informazio-elkartruke eraginkor bat bermatzeko, hala agintari eskudunek haien eginkizunak egin ahal izango baitituzte Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren arabera.

b) Kudeatzailea ezarrita dagoen Europar Batasunaz kanpoko estatua eta, bidezkoa bada, inbertsio-erakundea ezarrita dagoen Europar Batasunaz kanpoko estatua, ez agertzea Kapital Zuriketari buruzko Nazioarteko Finantza Ekintzako Taldeak ezarritako herri eta lurralde ez-laguntzaileen zerrendan.

2. Aurreko paragrafoan azaldu diren alderdiak egiaztatu ondoren, inbertsio-erakundearen kudeatzaileak 77.2 artikuluko a) eta h) bitarteko idatzi-zatietan azaltzen duen informazioa eta Europar Batasunaz kanpoko estatu kide batean eraturako kudeatzailea eta, bidezkoa bada, Europar Batasuneko kide ez den estatu batean eraturako inbertsio-erakundea eta haren kapitala edo ondarea adierazten duten akzio, partaidetza edo baloreak aplikatu daitezkeen araubide juridikoaren mende daudela egiaztatzen duten agiriak, ekarri beharko ditu, eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erregistratu.

3. Aurreko paragrafoetan aipatu diren agiri guztiak nazioarteko finantzen esparruan ohikoa den hizkuntza batean gutxienez aurkeztu beharko dira.

4. AKE eta IKIE horiek Espainian merkaturatzeko, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak helburu horretarako baimendu behar ditu, eta kudeatzaileak nahiz merkaturatu nahi diren AKE edo IKIEak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erregistroetan inskribatuta geratu behar dira.

Merkaturatzeko baimena zuzentzeko arrazoiengatik ukatu ahal izango da, Espainian merkaturatu nahi den erakundearen edo haren sozietate kudeatzailearen jatorriko herriko AKE-ei, IKIE-ei edo Espainiako sozietate kudeatzaileei tratu baliokidea ez emateagatik, Espainiako balore-merkatuetako antolamendu eta diziplina arauak beteko direla ziurtatuta ez geratzeagatik, Espainian bizi diren inbertsiogileen behar bezalako babesa bermatuta ez egoteagatik eta inbertsio-erakunde horien eta Espainian baimendutako inbertsio-erakundeen arteko lehiaren baldintzetan nahasmenduak egoteagatik.

5. AKEak, IKIEak eta haien kudeaketak merkaturatzeko Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren baimendu ondoren, kudeatzaileek, lege honetan eta legea garatzeko araudian ezarrita dagoenaren arabera, AKE eta IKIE horietako akziodun eta partaideei honako hauek erraztu beharko dizkiete: ordainketak; AKE-ek edo IKIE-ek haien akzioak eskuratzea edo haien partaidetzak itzultzea; Espainian bizi diren akziodun eta partaideei eman behar dizkieten informazioak zabaltea; eta, orokorrean akziodunek eta partaideek haien eskubideak baliatzea. Kudeatzaileek 67., 68., 69., 70. eta 71. artikuluetan xedatuta dagoena bete beharko dute.

Espainian merkaturatzeari eta publizitatea egiteari buruz indarrean dauden xedapen arauemaileak errespetatu beharko dituzte AKE eta IKIE-ek eta haien kudeatzaileek.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ikuskatuko du betebeharrak horiek noraino betetzen diren.

6. 5.1.d) artikuluan aipatzen diren erakundeen akzioak edo partaidetzak merkaturatzeko baldintza gehigarri batzuk zehaztu ahal izango dira erregelamendu bidez.

7. Erkidegotik kanpoko sozietate kudeatzaileak baimentzeko baldintzak erregelamendu bidez zehaztuko dira erreferentziako estatua Espainia denean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauan aurreikusita dagoenarekin bat etorritik.

79. artikulua. *5.1.e) artikuluan aipatzen diren arrisku-kapitaleko erakundeak inbertsiogile ez-profesionalentzat Espainian merkaturatzea.*

1. 5.1.e) artikuluan azaltzen diren AKE-en akzioak eta partaidetzak Espainian 75.2 eta 4 artikuluko baldintzak betetzen dituzten inbertsiogile ez-profesionalen merkaturatzeko, lege honek Espainiako AKEak merkaturatzean eskatzen dituen baldintza guztiak bete beharko dira, eta aldeaz aurretik, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren aurrean egiaztatuko beharko da honako hauek betetzen direla:

a) Espainiako araudiak atzerriko AKEaren AKE kategoria berbera arautzen duela eta AKEa, edo haren izenean jarduten duen kudeatzailea, jatorriko estatuan akziodunen edo partaideen interesak babesteko Espainiako arlo horretako araudiaren antzeko araudi espezifiko baten mende dagoela.

b) Atzerriko AKEaren edo haren izenean jarduten duen kudeatzailearen kontrola eta ikuskapena aginduta dituen jatorriko estatuko agintariaren aldeko txostena, kudeatzailearen jarduerak egiteari dagokionez.

c) Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren, kudeatzailearen jatorriko herriko agintari eskudunen eta AKEa ezarrita dagoen hirugarren herriko gainbegiratze-agintarien artean lankidetzako akordio egokiak egotea, gutxienez informazio-elkartruke eraginkor bat bermatzeko, hala agintari eskudunek haien eginkizunak egin ahal izango baitituzte Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren arabera.

d) AKEaren kudeatzailea, eta bidezkoa bada, Europar Batasuneko kide ez den estatu batean ezarritako AKEa, ezarrita dauden herria (Europar Batasuneko kide ez dena) ez agertzea Kapital Zuriketari buruzko Nazioarteko Finantza Ekintzako Taldeak ezarritako herri eta lurralde ez-laguntzaileen zerrendan.

2. Aurreko paragrafoan azaldu diren alderdiak egiaztatu ondoren, merkaturatu nahi duen AKEak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalan agiri hauek aurkeztu eta erregistratu beharko ditu:

a) Kudeatzaileak merkaturatu nahi dituen AKE-en identifikazioa, eta erakunde horien ezarlekuarena ere bai.

b) Akzioak edo partaidetzak Espainian merkaturatzeko xedapen eta modalitateak, eta bidezkoa bada, partaidetza horien motei edo akzioen serieei buruz.

c) AKFaren erregelamendua edo AKSaren eraketa-agiriak.

d) Funtzaren liburuxka edo agiri baliokideren bat; horiek biak –baita agirion argitalpena bera ere– Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak onetsi beharko ditu.

e) AKEaren gordailuzainaren identifikazioa.

f) AKEaren deskribapena, edo hari buruzko edozein informazio, inbertsiogileen eskura.

g) AKE nagusia ezarrita dagoen lekuari buruzko informazioa, merkaturatu nahi duen inbertsio-erakundea mendeko AKEa bada.

h) Europar Batasuneko kide ez den estatu batean eraturako kudeatzailea eta, bidezkoa denean, Europar Batasuneko kide ez den estatu batean eraturako AKEa eta haren kapitala edo ondarea adierazten duten akzio, partaidetza edo baloreak aplikatu daitezkeen araubide juridikoaren mende daudela egiaztatzen duten agiriak.

i) AKEaren finantza-egoerak eta horiei dagokien kontuen auditoretzako txostena, AKE horri aplikatu ahal zaion legeriaren arabera prestatuak.

3. Artikulu honetan azaldu diren agiri guztiak haien gaztelaniazko itzulpenarekin batera edo Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak onartutako beste hizkuntza batean batera aurkeztu beharko dira.

4. AKE horiek Espainian merkaturatzeko, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak helburu horretarako baimendu behar ditu, eta kudeatzaileak nahiz merkaturatu nahi diren AKEak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erregistroetan inskribatuta geratu behar dira.

Merkaturatzeko baimena zuhurtziazko arrazoiengatik ukatu ahal izango da, jatorriko herrian AKE-ei edo Espainiako kudeatzaileei hurrenez hurren tratu baliokidea ez emateagatik, Espainiako balore-merkatuetako antolamendu eta diziplina arauak beteko direla ziurtatuta ez geratzeagatik, Espainian bizi diren inbertsiogileen behar bezalako babesa bermatuta ez egoteagatik eta inbertsio-erakunde horien eta Espainian baimendutako inbertsio-erakundeen arteko lehiaren baldintzetan nahasmenduak egoteagatik.

Merkaturatzeko baimendu eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalan inskribatu ondoren, sozietate kudeatzaileek, lege honetan eta legea garatzeko araudian ezarrita dagoenaren arabera, akziodun eta partaideei honako hauek erraztu beharko dizkiete: ordainketak; AKE-ek haien akzioak eskuratzea edo haien partaidetzak itzultzea; Espainian bizi diren akziodun eta partaideei eman behar dizkieten informazioak zabaltzea; eta, orokorrean akziodunek eta partaideek haien eskubideak baliatzea.

5. Gaitasunak emanda dituen bitartekariak, harpidetze edo eskurapena egin baino lehen, Espainian bizi diren atzerriko erakundeko akziodun edo partaideei informazio-liburuxka entregatu beharko die. Informazio-liburuxka horretan kudeaketako erregelamendua edo sozietate-estatutuak bilduko dira, bai eta urteko txostena ere. Hori guztia 67. eta 68. artikuluetan aipatzen da. Gerora, urteko txostena partaide edo akziodunei bidali beharko zaie ekitaldi bakoitzeko lehenengo 6 hilabeteetan, 69. artikuluan ezarrita dagoena gorabehera. Agiri horiek gaztelaniara itzulita edo Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak onartutako beste hizkuntza batean emango dira.

6. 5.1.e) artikuluan aipatzen diren erakundeen akzioak edo partaidetzak merkaturatzeko baldintza gehigarri batzuk zehaztu ahal izango dira erregelamendu bidez.

80. artikulua. *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauak baimendutako sozietate kudeatzaileek kudeatzen dituzten arrisku-kapitaleko erakundeak edo inbertsio kolektibo itxiko erakundeak Europar Batasuneko esparruan merkaturatzea.*

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauarekin bat etorritik baimendutako Espainiako IKIESKek, Europar Batasunaren eremuan AKE-en edo IKIE-en akzio edo partaidetzak merkaturatu nahi badituzte, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinarazpen-idazki bat bidali beharko diote. Idazki horretan informazio hau bildu beharko da:

a) Merkaturatu nahi dituen AKE edo IKIE-en identifikazioa, eta erakunde horien ezarlekuarena ere bai.

b) AKE edo IKIEaren akzioak edo partaidetzak merkaturatu nahi ditueneko estatu kideetan merkaturatzeko xedapen eta modalitateak, eta bidezkoa bada, partaidetza horien motei edo akzioen serieei buruz.

c) AKFaren edo IKIFaren erregelamendua edo AKSaren edo IKISaren eraketa-agiriak.

d) AKE edo IKIEaren liburuxka, eta azken urteko txostena.

e) AKEaren edo IKIEaren gordailuzainaren identifikazioa.

f) AKEaren edo IKIEaren deskribapena, edo hari buruzko edozein informazio, inbertsiogileen eskura.

g) Erakunde nagusia ezarrita dagoen lekuari buruzko informazioa, merkaturatu nahi duen erakundea mendeko funtsa bada.

h) AKE edo IKIEa inbertsiogile profesionalen artean merkaturatu nahi duen estatu kideen zehaztapena.

i) Bidezkoa denean, AKE edo IKIEa inbertsiogile partikularren artean merkaturatzea eragozteko hartutako neurriei buruzko informazioa.

2. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak egiaztatuko agiri guztiak daudela. Gehienez 20 eguneko epean, 1. paragrafoan azaldu den dokumentazio-espeditente osoa jasotzen denetik aurrera, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak espeditente hori AKEa edo IKIEa merkaturatu nahi deneko edo direneko estatuko edo estatuetakoko agintari eskudunei bidaliko die baliabide elektronikoak erabiliz.

Jakinarazpen-idazkiarekin batera egiaztagiria bat aurkeztu beharko da. Egiaztagiria horretan baieztatu egingo da sozietate kudeatzailea inbertsio-erakundeak inbertsio-estrategia zehatz horrekin kudeatzeko baimenduta dagoela Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren arabera.

3. Jakinarazpen-espeditentea bidali ondoren, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak berehala horren berri emango dio sozietate kudeatzaileari, eta hark AKE edo IKIEa harrerako estatu kidean merkaturatzeari ekin ahal izango dio jakinarazpen horren datatik aurrera.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak halaber AKE edo IKIEa ezarrita dagoen estatu kideko agintari eskudunei –diferenteak badira– jakinaraziko die kudeatzaileak harrerako estatu kidean AKEaren edo IKIEaren partaidetzak merkaturatzeari ekin ahal diola.

1. paragrafoan aipatu den jakinarazpen-idazkia eta 2. paragrafoan aipatu den egiaztagiria nazioarteko finantzen esparruan ohikoa den hizkuntza batean gutxienez aurkeztu beharko dira.

4. 1. paragrafoaren arabera jakinarazitako datuetako bat nabarmen aldatuz gero, kudeatzaileak horren berri emango dio idatziz Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari, aldaketa benetan egin baino hilabete lehenago gutxienez, aldaketa aurreikusita badago, edo aldaketa hori gertatu eta berehala, ustekabeko aldaketa bat izanez gero.

Aurreikusitako aldaketaren ondorioz, kudeatzaileak AKEaren edo IKIEaren kudeaketa lege honetan aurreikusita dagoenaren arabera egingo ez badu, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak justifikaziorik gabeko luzamendurik gabe kudeatzaileari jakinaraziko dio ezin duela aldaketa aplikatu.

Aurreikusitako aldaketa aurreko paragrafoei kalterik egin gabe aplikatzen bada, edo aldaketa bat eragin duen ustekabeko gertakari bat jazo bada, eta aldaketa horren ondorioz kudeatzaileak AKEaren edo IKIEaren kudeaketa lege honetan aurreikusita dagoenaren arabera egingo ez badu, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak egokiak diren neurri guztiak hartuko ditu; beharrezkoa bada, AKEa edo IKIEa merkaturatu dadila espresuki debekatu ahal izango du.

Aldaketak onargarriak badira, lege hau urratu dela zehazten ez dutelako, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak justifikatu gabeko luzamendurik gabe aldaketa horien berri emango die harrerako estatu kideko agintari eskudunei.

81. artikulua. *Espanian baimendutako sozietate kudeatzaileek arrisku-kapitaleko erakundeak edo inbertsio kolektibo itxiko erakundeak mugaz haraindi kudeatzeko baldintzak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren arabera.*

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren babespean Espainian baimenduta dauden IKIESKek beste estatu kide batean ezarritako AKEak eta IKIEak kudeatu ahal izango dituzte, zuzenean edo sukurtsal bat ezarriz, baldin eta IKIESKa mota horretako inbertsio-erakundeak kudeatzeko baimenduta badago.

2. Kudeatzaile batek, beste estatu kide batean ezarritako AKE edo IKIE bat kudeatzeko asmoa badu, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari informazio hau jakinaraziko dio:

- a) AKE edo IKIEa kudeatu nahi dueneko estatu kidea,
- b) kudeaketa zuzenean edo sukurtsal bat ezarriz egingo den, eta
- c) jardueren programa bat. Programa horretan, eman nahi diren zerbitzuak adieraziko dira, bereziki, eta kudeatu nahi diren AKE edo IKIEak identifikatuko dira.

3. Kudeatzaileak sukurtsal bat ezarri nahi badu, informazio gehigarri hau emango du:

- a) Sukurtsalaren antolaketa-egitura,
- b) AKEaren edo IKIEaren jatorrizko estatu kideko helbidea, zeinetan agiriak lortu ahal diren, eta
- c) sukurtsalaren kudeaketaz arduratzen diren pertsonen harremanetarako datuak.

4. 2. paragrafoan azaldu diren agiriak osorik jaso eta hilabeteko epean, edo agiriak 3. paragrafoarekin bat etorri osorik jaso eta bi hilabeteko epean, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak agiri horiek harrerako estatu kideko agintari eskudunei bidaliko dizkie. Hori egingo du baldin eta kudeatzaileak AKE edo IKIEak lege honen xedapenen arabera egin baditu eta hala egiten jarraitzen badu eta kudeatzaileak lege honen xedapenak betetzen baditu.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak deklarazio bat erantsiko du. Deklarazio horretan baieztatuko du kudeatzaileak baimena jaso duela Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren arabera. Baloreen Merkatuko Batzorde Nazionalak kudeatzaileari emango transmisio horren berri.

Bidalketaren jakinarazpena jaso ondoren, kudeatzailea bere zerbitzuak harrerako estatu kidean ematen hasi ahal izango da.

5. 2. paragrafoaren eta, bidezkoa bada, 3. paragrafoaren arabera jakinarazi diren datuetako bat aldatzen bada, kudeatzaileak aldaketa horren berri idatziz emango dio Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari, aldaketa hori benetan egin baino hilabete lehenago gutxienez, edo berehala, aldaketa ustekabekoa bada, ondorio hauetarako:

a) Aurreikusitako aldaketaren ondorioz, kudeatzaileak AKEaren edo IKIEaren kudeaketa lege honen xedapen baten edo gehiagoren arabera egingo ez badu, edo orokorrean, kudeatzaileak bete behar duen araubide juridikoa gehiago betetzen ez badu, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak justifikaziorik gabeko luzamendurik gabe kudeatzaileari jakinaraziko dio ezin duela aldaketa aplikatu.

b) a) idatzi-zatian azaldu diren inguruabarrak gertatzen direla, aurreikusitako aldaketa aplikatzen bada, edo aldaketa bat eragin duen ustekabeko gertakari bat jazo bada, eta aldaketa horren ondorioz AKEaren edo IKIEaren kudeaketa lege honetan aurreikusita dagoenaren arabera egingo ez bada, edo kudeatzaileak bete behar duen araubide juridikoa gehiago betetzen ez badu, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak egokiak diren neurri guztiak hartuko ditu.

c) Aldaketak onargarriak badira, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak luzamendurik gabe aldaketa horien berri emango die harrerako estatu kideko agintari eskudunei.

82. artikulua. *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauak araututako eta Europar Batasuneko beste estatu kide batean baimendutako kudeatzaileek Espainiako arrisku-kapitaleko erakundeak edo inbertsio kolektibo itxiko erakundeak kudeatzeko baldintzak.*

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren babespean Europar Batasuneko estatu kide batean baimenduta dauden kudeatzaile guztiek AKEak eta IKIEak Espainian kudeatu ahal izango dituzte, zuzenean

edo sukurtsal bat ezarriz, baldin eta mota horretako inbertsio-erakundeak kudeatzeko baimenduta badaude.

2. Jarduerari ekin ahal izango dio Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak kudeatzailea baimenduta dagoen estatuko agintari eskudunaren jakinarazpena jaso duenean, ez lehenago. Komunikazio horrek 81. artikuluko 2 eta 3. paragrafoetan xedatutakoa bete beharko du.

3. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak Espainiako lurraldean sukurtsalak dauzkaten edo zerbitzugintza askearen araubidean jarduten duten kudeatzaileei eskatu ahal izango die informazioa eman diezaiotela, kudeatzaileek lege honen eta legea gartzen duen araudiaren arabera aplikatu ahal zaizkien arauak betetzen dituztenetz kontrolatzeko.

4. Europar Batasuneko beste estatu kide batean baimenduta dauden eta jarduera Espainian sukurtsal baten bitartez egiten duten kudeatzaileek betiere IV. tituluko I. kapituluan eta garapen-araudian ezarritako jokabide-arauak errespetatuko dituzte. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala arduratuko da xedapen horiek noraino betetzen diren gainbegiratzeaz.

5. Europar Batasuneko beste estatu kide batean baimenduta dauden eta jarduera Espainian zerbitzugintza askearen araubidean egingo duten kudeatzaileek zerga-egoitza Espainian duen ordezkari bat izendatu beharko dute, Espainiako lurraldean egiten dituzten jarduerengatik bete behar dituzten zerga-betebeharren ondorioetarako ordezkari ditza.

6. AKEan edo IKIEan arazoren bat badago, kudeatzaileak legezko edo erregelamenduzko betebeharrak behar bezala betetzeko duen ahalmenari kalte egingo diona, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak horren berri emango die kudeatzailearen jatorriko estatu kideko agintari eskudunei luzamendurik gabe.

7. Europar Batasuneko beste estatu kide batean baimenduta dauden eta jarduera Espainian sukurtsal baten bitartez egiten duten kudeatzaileen agintari eskudunek, beren kabuz edo ondorio horretarako izendatzen dituzten bitartekarien bidez, eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinarazi ondoren, Espainian tokian bertan egiaztapenak egin ahal izango dituzte. Egiaztapena kudeatzaileen kudeaketari eta jabetzaren egiturari buruzko informazio guztiari buruz egingo da, baldin eta informazio horrek gainbegiratzea errazten badu, eta kontrola erraztu ahal duen informazio guztiari buruz ere bai.

Aurreko paragrafoa gorabehera, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak Espainian ezarrita dauden sukurtsalen egiaztapenak tokian bertan egin ahal izango ditu, legeek esleitzen dizkieten erantzukizunak bete aldera.

83. artikulua. *Europar Batasuneko kide ez den estatu batean eratu diren eta Europar Batasuneko estatu kideetan merkaturatzen ez diren arrisku-kapitaleko erakundeak edo inbertsio kolektibo itxiko erakundeak kudeatzen dituzten inbertsio kolektibo itxiko erakundeen sozietate kudeatzaileei aplikatu beharreko baldintzak.*

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren babespean baimenduta dauden IKIESKek helbidea hirugarren estatuaren duten eta Europar Batasunean merkaturatzen ez diren AKE eta IKIEak kudeatu ahal izango dituzte, baldintza hauek betetzen badituzte:

a) Kudeatutako erakundeak lege honetan ezarritako baldintza guztiak betetzea, gordailuzaina izendatzeko betebeharra –50. artikuluan aipatzen dena– eta urteko txostenaren auditoretza egiteko betebeharra izan ezik.

b) Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren eta AKEa edo IKIEa ezarrita dagoen Europar Batasunaz kanpoko estatuko gainbegiratze-agintarien artean lankidetzakordioak egotea, gutxienez informazio-elkartruke eraginkor bat bermatzeko, hala batzordeak eginkizunak egin ahal izango baititu lege honetan ezarrita dagoenaren arabera.

IV. TITULUA

Jokabide arauak, gainbegiratzea, ikuskatzea eta zehatza

I. KAPITULUA

Jokaera arauak

84. artikulua. *Aplikatu beharreko araudia.*

1. IKIESKak, AKEak edo IKIEak kudeatzen dituzten IKESKak, AKE eta IKIS autokudeatuak, eta erakunde horietan guztietan administrazio eta zuzendaritza karguak dituztenak eta haien langileak, jokabide-arau hauen mendean egongo dira:

a) Balore Merkatuei buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen VII. tituluaren bilduta daudenak. Dena dela, bidezkoa izanez gero erregelamenduz ezartzen diren egokitzapen eta zehaztapenei men egin beharko zaie, barnean dela arauen urratzeetarako zehapen-araubidea, lege horren VIII. tituluaren ezarrita dagoena.

b) Aurreko a) idatzi-zatian aipatzen diren aginduak garatzeko emandakoak, Gobernuak edo, berariazko gaikuntzarekin, Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroak onesten dituenak.

c) Barneko jokabide-erregelamenduetan bilduta daudenak.

Arau horiek 75. artikuluan definitzen den merkaturatze-jarduerari ere aplikatuko zaizkie.

2. Aurreko paragrafoan aipatu diren erakundeek barneko jokabide-erregelamendua egin beharko dute, nahitaez bete beharrekoa, eta administrazio eta zuzendaritzako organoen eta langileen jardura arautuko duena. Barneko jokabide-erregelamenduek, betiere, Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legean azaltzen diren printzipioak garatu beharko dituzte.

3. 1. paragrafoan aurreikusitako jokabide-arauen mendean geratuko dira hauek ere:

a) Espainian egindako jarduerari dagokionez, Europar Batasuneko beste estatu kide batean baimendutako kudeatzaileak, baldin eta jardura sukurtsal baten bitartez egiten badute.

b) Europar Batasuneko beste estatu kide batean egindako mugaz haraindiko jarduerari dagokionez, Espainian baimendutako IKIESKek, baldin eta jardura zerbitzugintza askearen esparruan egiten badute.

II. KAPITULUA

Gainbegiratzea eta ikuskatzea

85. artikulua. *Esparrua.*

Lege honen gainbegiratze, ikuskapen eta zehapen araubidearen mendean (Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren esku) geratuko dira honako hauek:

a) Espainian baimendutako IKIESKak eta haiek kudeatzen dituzten AKEak, I. tituluako II. kapituluaren betetzeari dagokionez.

b) Espainian baimenduta dauden AKS eta IKIS autokudeatuak.

c) Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legean ezarrita dagoenari kalterik egin gabe, II. tituluako I. kapituluaren arabera baimendutako IKESKak eta haiek kudeatzen dituzten AKEak, I. tituluako II. kapituluaren betetzeari dagokionez.

d) Edozein erakunde, 11. artikuluan ezarrita dagoen izendapen-erreserbaren urratzea egiaztatzeari dagokionez.

e) Espainian erregistratuta edo baimenduta dauden AKE eta IKIE-en gordailuzainak.

f) EAKFak eta EGEFak, Europako arrisku-kapitaleko funtsei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko apirilaren 17ko 345/2013 zenbakidun Erregelamenduan xedatuta dagoenaren arabera, eta Europako gizarte-ekintzailtzako funtsei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko apirilaren 17ko 346/2013 zenbakidun Erregelamenduaren arabera, hurrenez hurren.

g) Beste estatu kide batean baimendutako AKE-en edo IKIE-en kudeatzaileen sukurtsalak, 59. eta 61. artikuluetan ezarritako baldintzak betetzeari dagokionez eta Espainian AKEak edo IKIEak merkaturatzen dituztenek aplikatu daitezkeen jokabide-arauak urratzeagatik.

86. artikulua. *Gainbegiratzeko eta ikuskatzeko ahalmenak.*

1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak lege honetan eta gainerako antolamendu juridikoan aurreikusita dauden gainbegiratze eta ikuskapen ahalmen guztiak edukiko ditu eskura bere eginkizunak betetzeko. Ahalmen horiek honela baliatu ahal izango ditu:

- a) Zuzenean,
- b) estatuko edo atzerriko beste agintari batzuekin lankidetzan, lege honetan aurreikusita dagoen bezala,
- c) bere erantzukizunpean jarduten duten beste erakunde batzuei emandako eskuordetza bidez edo
- d) agintari judizial eskudunetara joz. Beste hainbat neurriren artean, aktiboak enbargatu edo izoztea eskatu ahal izango du.

2. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak 85. artikuluan aurreikusitako subjektuak gainbegiratzeko eta ikuskatzeko dituen ahalmenei Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen 70. eta 70 bis artikulua aplikatu beharko zaizkie.

87. artikulua. *Palanka-efektuaren mugak eta kreditu-ebaluazioko prozesuen egokitzapena gainbegiratzea.*

1. Lege hau aplikatuz jasotzen den informazioa oinarri hartuta eta hark gainbegiratzeko dituen sozietate kudeatzaileei dagokienez, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak zehaztuko du erakundeen palanka-efektuak zein neurritaraino laguntzen duen hainbat arrisku sortzen, hala nola arrisku sistemikoa finantza-sisteman, edo merkatuak nahasteko arriskuak edo ekonomiaren epe luzerako hazkunderako arriskuak.

2. Aurreko paragrafoan aipatu den informazioa gainerako estatu kideetako agintari eskudunen, Baloreen eta Merkatuen Europako Agintaritzaren eta Arrisku Sistemikoko Europako Batzordearen eskura jarri beharko da Europar Batasuneko Zuzenbidean ezarrita dauden gainbegiratzeko lankidetzako prozeduren bitartez. Bere ardurapean dagoen sozietate kudeatzaile batek, edo kudeatzen duen AKE edo IKIE batek, kontrako aldearen arrisku handia sorrarazi ahal badu kreditu-erakunde batentzat edo beste estatu kide batzuetako ondorio sistemikoetarako garrantzitsuak diren beste erakunde batzuentzat, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak luzamendurik gabe informazioa emango du gainbegiratzearen arloko lankidetzako prozeduren bitartez, eta alde bitan, beste estatu kide batzuetako agintari eskudunei zuzenean.

3. Sozietate kudeatzaileak frogatu beharko du kudeatzen duen erakunde bakoitzerako palanka-efektuaren mugak arrazoizkoak direla eta muga horiek uneoro betetzen dituela. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ebaluatuko ditu sozietate kudeatzaile batek palanka-efektua erabiltzeak ekar ditzakeen arriskuak, sozietateak kudeatzen dituen erakundeei dagokienez.

Finantza-sistemaren egonkortasunerako eta osotasunerako beharrezkotzat jotzen bada, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, Baloreen eta Merkatuen Europako Agintaritzari, Arrisku Sistemikoko Europako Batzordeari eta, bidezkoa bada, erakundearen jatorriarengatik eskudunak diren agintariei jakinarazi ondoren, sozietate kudeatzaileak

erabili ahal duen palanka-efektuaren mugak ezarriko ditu, edo beste murriztapen batzuk, kudeaketaren arloan, kudeatzen dituen erakundeei dagokienez, palanka-efektuak finantza-sistemako arrisku sistemikoa edo merkatuak nahasteko arriskuak sortzeko izan dezakeen eragina mugatzeko. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak Baloreen eta Merkatuen Europako Agintaritzari, Arrisku Sistemikoko Europako Batzordeari eta erakundearen jatorriarengatik eskudunak diren agintariei arlo horretan hartutako neurrien berri emango die behar bezala, gainbegiratzearen arloko lankidetzako prozeduren bitartez.

4. 3. paragrafoan azaldu den jakinarazpena proposatutako neurria indarrean jarri edo berritu baino hamar egun lehenago gutxienez egingo da. Jakinarazpenean hauek bildu beharko dira: proposatutako neurriaren xehetasunak, neurri hori justifikatzen duten arrazoiak eta neurriak indarrean jartzeko aurreikusitako data. Salbuespenezko inguruabarretan, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak erabaki ahal izango du proposatutako neurria aipatu den hamar laneguneko epearen barruan indarrean jar dadila.

5. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak erabakitzen badu Baloreen eta Merkatuen Europako Agintaritzak aurreko paragrafoetan xedatuta dagoenaren ondorioetarako eta bidali dioten informazioa oinarri hartuta egiten duen gomendioaren aurka jardungo duela, horren berri eman beharko du, arrazoiak azalduta.

Ondorio horietarako, sozietate kudeatzaileek Batzordearen 2012ko abenduaren 19ko 231/2013 zenbakidun Erregelamendu Eskuordetuan (EB) ezarrita dagoena bete beharko dute.

6. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak zainduko du IKIESKen kreditu-ebaluazioko prozesuen egokitasuna, haien inbertsio-politiketan kreditu-kalifikazioen erreferentzien erabilera baloratuko du, 62.3 artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, eta bidezkoa denean, erreferentzia horien eragina arintzea sustatuko du kreditu-kalifikazio horien mendekotasun eskusibo eta automatikoa murrizte aldera. Ondorio horietarako, AKE-en eta IKIE-en jardueren izaera, maila eta konplexutasuna kontuan izan beharko ditu.

88. artikulua. *Europar Batasuneko beste estatu kide batean baimenduta dauden eta arrisku-kapitaleko erakundeak edo inbertsio kolektibo itxiko erakundeak Espainian kudeatzen dituzten kudeatzaileak gainbegiratzea.*

1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak beste estatu kide batean baimenduta dauden eta AKEak edo IKIEak Espainian merkaturatzen dituzten kudeatzaileei aplikatu daitezkeen araudia betetzen dela egiaztatzeko beharrezkoa den informazioa eskatu ahal izango die.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ikusten badu aurreko paragrafoan aipatu diren kudeatzaileek han aurreikusitako informazio-betebeharrak edo lege honetan eta garapen-araudian ezartzen diren beste betebeharrak batzuk urratzen dituztela, urratzeari utz diezaietela eskatuko die, eta horren berri emango die jatorriko estatu kideko agintari eskudunei.

Sozietate kudeatzaileak uko egiten badiot Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari bere erantzukizunpeko informazioa emateari, edo aurreko paragrafoan aipatu den urratzea amaitzeko egokiak diren neurriak hartzen ez baditu, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak horren berri emango die jatorriko estatu kideko agintari eskudunei. Jatorriko estatu kideko agintari eskudunak hartu dituen neurriak gorabehera kudeatzaileak jokabide arau-hauslea egiten jarraitzen badu, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak egokiak diren neurriak hartu ahal izango ditu titulu honetan ezarrita dagoenaren arabera arau-hauste gehiago saihesteko, eta zehapen-ahalmena ere erabili ahal izango du. Alde horretatik, kudeatzaileari eskatu ahal izango dio helbidea Espainian duten AKE edo IKIEak kudeatzeari utz diezaiola.

2. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak arrazoi argiak eta frogagarriak baditu beste estatu kide batek baimendu duen eta AKEak edo IKIEak Espainian kudeatzen edo merkaturatzen dituen kudeatzaileak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak gainbegiratu

behar ez dituen betebeharrak urratzen dituela uste izateko, gertakari horien berri emango die jatorriko estatuko agintari eskudunei.

Agintari eskudunak aurreko paragrafoan azaldu diren neurriak hartu arren, edo neurri horiek nahikoak izateagatik, edo jatorriko estatu kideak arrazoizko epe baten barruan jardun ez duelako, kudeatzaileak inbertsiogileentzat, finantza-egonkortasunerako edo Espainiako merkatuaren osotasunerako argi eta garbi kaltegarria den modu batean jarduten jarraitzen badu, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, jatorriko estatuko agintari eskudunei jakinarazi ondoren, beharrezkoak diren neurri guztiak hartu ahal izango ditu inbertsiogileak, finantza-egonkortasuna edo merkatuaren osotasuna babesteko; besteak beste, hizpide den kudeatzaileak lurraldean partaidetzak merkaturatzen jarrai dezala eragotzi ahal izango du.

3. Beste estatu kide batean baimendutako kudeatzaile bati dagokionez, Europar Batasuneko agintari eskudun batek Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinarazten badio funtsezko arrazoiak dituela kudeatzaileak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak gainbegiratu behar dituen betebeharrak urratzen dituela uste izateko, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak egokiak diren neurriak hartuko ditu.

4. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak uste badu kudeatzailearen jatorriko estatu kideko agintari eskudunak aurreko paragrafoetan azaldutako egoeretan ez duela behar bezala jokatu, kasuaren berri Baloreen eta Merkatuen Europako Agintaritzari eman ahal izango dio, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren azaroaren 24ko 1095/2010 zenbakidun Erregelamenduaren (EB) –zeinak gainbegiratzeko Europako Agintaritza (Baloreen eta Merkatuen Europako Agintaritza) sortzen, 716/2009/EE Erabakia aldatzen eta Batzordearen 2009/77/EE Erabakia indargabetzen baitu– 19. artikulua araber.

89. artikulua. *Datu pertsonalak gainbegiratzearen eta ezeztatzearen arloko mugaz haraindiko lankidetzak.*

1. Lege honetan ezarrita dagoena bete dadila bermatzeko, Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen 71 ter artikuluan eta Balore Merkatuei buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 91. eta 91 quater bitarteko artikuluetan xedatuta dagoena aplikatuko da Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren eta Europar Batasuneko estatu kideetako agintari eskudunen, Baloreen eta Merkatuen Europako Agintaritzaren eta Arrisku Sistemikoko Europako Batzordearen arteko lankidetzari eta informazio-elkartrukeari dagokionez, haien eginkizunak betetzeko.

2. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak Baloreen eta Merkatuen Europako Agintaritzari eta estatu kideetako agintari eskudunei ahalik eta modu zehatzenean jakinaraziko die berak gainbegiratu behar ez duen sozietate kudeatzaile batek lege honen xedapenen aurkako jarduerak egin dituela edo halakoak egiten ari dela, hori susmatzeko arrazoi argi eta frogagarriak baditu, egokiak diren neurriak har ditzaten.

3. Artikulu honetan araututako agintari eskudunen arteko mugaz haraindiko lankidetzaren ondorioz Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak lortu dituen datu pertsonalak gehienez ere 5 urtean gordeko dira.

90. artikulua. *Kudeatzaileen jardueraren balizko ondorio sistemikoei buruzko informazioa elkartrukatzea.*

1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, egokia denean, eta kudeatzaileen jardueraren ondorioz sor daitezkeen ondorioak zaintzeko eta ondorio horien aurrean ekiteko, beste estatu kideetako agintari eskudunei informazioa emango die, bai banaka bai taldeka, garrantzi sistemikoa duten finantza-erakundeen egonkortasunerako eta kudeatzaileek haien jarduera egiten duten merkatuen funtzionamendu ordenaturako.

2. Baloreen eta Merkatuen Europako Agintaritzari eta Arrisku Sistemikoko Europako Batzordeari ere jakinaraziko zaie. Haiek informazio hori gainerako estatu kideetako agintari eskudunei bidaliko diote. Ondorio horietarako, Batzordearen 2012ko abenduaren 19ko 231/2013 zenbakidun Erregelamendu Eskuordetuan (EB) ezarrita dagoena aplikatu beharko da.

III. KAPITULUA

Zehapen-araubidea

1. atala. Xedapen orokorrak

91. artikulua. *Erantzukizuna.*

1. 85. artikuluan aurreikusitako pertsona fisiko edo juridikoek, haien administrazio edo zuzendaritza karguak dauzkatenez edo halako karguak balituzte bezala jokatzeko dutenek, lege hau hausten badute, administrazio-erantzukizuna izango dute, eta titulu honetan xedatuta dagoenaren arabera zehapena jasoko dute, baldin eta deliturik egin ez badute.

2. Sozietate kudeatzaileak, haien jardura egitean, kudeatzen dituzten erakundeei dagokienez lege honen eta bere garapen-araudiaren urratze guztien erantzule izango dira.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzendaritza araberako Europar Batasuneko estatu kide batean baimendutako sozietate kudeatzaileek, haien administrazio edo zuzendaritza karguak dauzkatenez edo halako karguak balituzte bezala jokatzeko dutenek, Espainian haien jardura egitean, lege honen eta bere garapen-araudiaren urratzeen erantzule izango dira, eta zehapena ezarri ahal izango zaie kapitulu honetan aurreikusita dagoen bezala, isunekin, etenaldiekin, ohartarazpen publikoekin edo egin ahal dituzten eragiketen moten edo bolumenaren murriztapenekin.

3. Titulu honetan xedatuta dagoenaren ondorioetarako, aurreko paragrafoan aipatzen diren erakundeetan administrazio edo zuzendaritzako kargudunak izango dira administrazio-araubideak edo administrazio-araubideko kide anitzeko organoetako kideak, bai eta zuzendari nagusiak eta horien parekoak. Parekoak izango dira erakundeetan administrazio-organoen mendean zuzenean edo batzorde betearazleen edo administrazio-organoko kontseilari eskuordetuen mendean goi-zuzendaritzako zereginak betetzen dituzten pertsonak.

92. artikulua. *Prozedura.*

1. Zehapen-prozeduren alorrean aplikatuko da azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena, eta haren erregelamendu bidezko garapena, ekainaren 26ko 10/2014 Legeak, kreditu-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzkoak, 104., 107. eta 115. artikuluetan jasotako berezitasunekin, bai eta lege honetan eta lege hau garatzeko erregelamenduan adierazitakoak ere.

2. Era berean AKSei, IKISei eta IKIESKei buruzko zehapen-ahalmena baliatzean aplikatu ahal izango da Kreditu-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzko ekainaren 26ko 10/2014 Legearen 95., 103., 104. eta 115. artikuluetan xedatuta dagoena.

3. Lege honetan tipifikatutako arau-hausteengatik zehapen-espeditenteak hasi, bideratu eta ebazteko eskuduna Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala izango da.

4. Prozesu penal bat izapidetzen ari bada gertaera berdinegatik, edo beste batzuegatik, lege honen arabera zehapena izan dezaketenetik bereiztea arrazionalki ezinezkoa denean, administrazio-prozedura etenda geratuko da, haiei dagokienez, agintari judizialek erabaki irmoa eman arte. Espedientea berriro hastean, hala badagokio, emango den ebazpena errespetatu beharko du erabaki horretan jasotako gertaerei buruzko irizpena.

2. atala. Arau-hausteak

93. artikulua. Arau-hauste oso larriak.

Honako egite edo ez-egite hauek arau-hauste oso larriak izango dira:

a) Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari ez bidaltzea legean eta legea garatzeko arauetan xedatuta dagoenaren arabera bidali behar zaizkion agiri, datu edo informazioak –edo batzordeak bere zereginak betetzean eskatzen dituenak–, arauetan ezarritako edo batzordeak berak emandako epean, ezkutatzeko edo zabarkeriaz jokatzeko interesa dagoenean, kontuan hartuta egin ez den komunikazioa eta gertatu den berandutza, eta horren ondorioz erakundearen kaudimena edo, bidezkoa bada, kudeatutako AKE edo IKIE-en ondare-egoera aztertzea eragozten bada.

Era berean arau-hauste oso larria da Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari informazio osatugabea edo zehaztugabeak edo benetakoak ez direnak, kasu horietan okerra nabarmena bada. Okerraren garrantzia zehaztean irizpide hauek hartuko dira kontuan, besteak beste: ondarearen balorazioan eta erakundearen iguripenetan eragina izan ahal duten inguruabarrak publikoki jakin ahal izatea, bereziki egon daitezkeen berezko arriskuak, eta erakundeak aplikatu daitezkeen araudia betetzen duen ala ez jakin ahal izatea.

b) Inbertsioa legearen arabera baimenduta ez dauden edo AKE edo IKIEaren liburuxkak, estatutuek edo erregelamenduak onartzen ez dituen aktiboetan egitea, ez noizbehinka, baldin eta horrela AKEaren edo IKIEaren xedea desitxuratzen bada, eta akziodunen edo partaideen interesari kalte larria egiten bazaie.

c) Urteko kontuak auditoretzarako aurkezteko betebeharra ez betetzea.

d) Burtsako mailegu-eragiketak edo balore-eragiketak egitean edo aktiboak pignoratzeko AKEaren edo IKIEaren estatutuek edo erregelamenduak zehazten dituzten baldintzak urratzea.

e) Lege honetan, Europako arrisku-kapitaleko funtsei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko apirilaren 17ko 345/2013 zenbakidun Erregelamenduan, Europako gizarte-ekintzailtzako funtsei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko apirilaren 17ko 346/2013 zenbakidun Erregelamenduan –bidezkoa dena–, edo AKEaren edo IKIEaren liburuxkan, estatutuetan edo erregelamenduan ezarritako inbertsio-ehunekoak ez betetzea, noizbehinka ez denean, baldin eta horrela AKEaren edo IKIEaren xedea desitxuratzen bada, eta akziodunen, partaideen edo hirugarrenen interesari kalte larria egiten bazaie.

f) Akzioak edo partaidetzak jaulki, itzuli edo intsuldatzean AKE-en edo IKIE-en estatutuetan eta kudeaketa-erregelamenduetan ezarritako muga eta baldintzak urratzea, noizbehinka ez denean, baldin eta horrela akziodunen edo partaideen interesari kalte larria egiten bazaie.

g) 42. artikuluan aurreikusitako jarduera-erreserba ez betetzea, sozietate kudeatzaileak edo edozein pertsona fisiko edo juridikok baimenduta ez dauzkaten jarduerak egitea.

h) Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren ikuskapen-jarduerari uko egitea edo trabak jartzea.

i) Inbertsio-eragiketak egitean liburuxkan, estatutuetan edo AKEaren edo IKIEaren erregelamenduan ezarritako baldintzak urratzea.

j) 28., 36. eta 37. artikuluetan aurreikusitako eragiketak egitean artikuluko horietan ezarritako baldintzak urratzea.

k) IKIESKek haien betebeharrak ez betetzea, baldin eta horrela AKEaren edo IKIEaren partaideei edo akziodunei kalte larria egiten bazaie.

l) Gordailuzainek haien betebeharrak ez betetzea, lege honetan eta Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen V. tituluan eta 68. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera, horrela AKEaren edo IKIEaren partaideei edo akziodunei kalte larria egiten bazaie.

m) AKE-ek, IKIE-ek edo haien sozietate kudeatzaileek administrazioaren antolaketan, kontabilitatearen antolaketan edo barne-kontrolako prozeduretan (arriskuaren kudeaketari buruzkoak ere barne direla) hutsuneak erakustea, baldin eta hutsune horiek erakundearen kaudimena edo bideragarritasuna arriskuan jartzen badute.

n) IKIESKek sei hilabetean araudiak eskatzen dituenak baino baliabide propio gutxiago mantentzea.

ñ) Arau-hauste larri bat egitea, baldin eta hori gertatu aurreko bost urteetan egileak arau-hauste mota beragatik zehapen irmoa jaso badu.

o) Lege honek debekatutako jarduketa edo eragiketak egitea edo jarduketa edo eragiketak egitean legeak ezarritako baldintzak urratzea, baldin eta noizbehinka egiten ez bada.

p) Deklarazio faltsuen, ez-egiteen edo beste bide irregular baten bidez baimena lortzea, edo baimena lortzen baldintzak urratzea, hori noizbehinka egiten ez bada, eta azken kasu horretan partaideen edo akziodunen interesei kalte larria egiten bazaie.

q) Sozietate kudeatzaileen eginkizunak eskuordetzan ematean lege honek ezarritako baldintzak urratzea, eta horren ondorioz hau gertatzea: partaideen edo akziodunen interesei kalte larria egitea, behin eta berriz gertatutako jokabidea izatea edo Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren barneko kontrolako edo gainbegiratzeko ahalmena gutxiestea.

r) Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak erabakitako kautelazko neurriak edo zehapen ahalmenetik kanpo aplikatutakoak ez betetzea.

s) Gainbegiratzearen eta ikuskatzearen ondorioz detektatutako akatsak konpontzeko sozietate kudeatzaileek hartutako konpromisoak urratzea, hori noizbehinka egiten ez bada, eta horrela partaideen edo akziodunen interesei kalte larria egiten bazaie.

t) Hirugarrenen aurrean betebeharrak hartzeko AKE-en edo IKIE-en liburuxkan, estatutuetan edo erregelamenduan ezartzen diren mugak gainditzea, partaideen edo akziodunen interesei kalte larria egiten bazaie.

u) AKE-ek, IKIE-ek edo haien sozietate kudeatzaileek AKE-en edo IKIE-en aktiboak baloratzeko prozeduretan akatsak izatea, eta hori noizbehinka gertatzen ez bada, hala lege honetan, aplikatu ahal den legerian eta AKE-aren edo IKIE-aren estatutuetan ezarritako arauak urratzen badira, eta likidazio-balioak gorabehera nabarmenak jasaten baditu.

v) IKIESKak sozietateetan partaidetza adierazgarriak eta kontrola eskuratzearen ondorioz sortutako informazio-betebeharrak –71. artikuluan ezarrita dagoen bezala– ez betetzea.

w) IKIESKak lege honetan 80. eta 83. bitarteko artikuluetan aurreikusitako kasuetan ezartzen dituen betebeharrak ez betetzea, horren ondorioz partaideei edo akziodunen kalte larria egiten bazaie.

x) Europar Batasuneko beste estatu kide batean edo hirugarren estatu batean baimendutako kudeatzaileek 76. eta 79. bitarteko artikuluetatik eratorritako betebeharrak urratzea, horrek inbertsiogileei edo akziodunei kalte larria eragiten badie.

y) Barneko jokabide-erregelamenduak ez betetzea, horrek AKE-etako edo IKIE-etako partaide edo inbertsiogileei edo akziodunei kalte larria eragiten badie.

z) Lege honetan aurreikusita dauden funtsak eta sozietateak gai ez diren inbertsiogileentzat merkaturatzea, Europako arrisku-kapitaleko funtsei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko apirilaren 17ko 345/2013 zenbakidun Erregelamenduaren 6. artikuluan, Europako gizarte-ekintzailtzako funtsei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko apirilaren 17ko 346/2013 zenbakidun Erregelamenduaren 6. artikuluan eta lege honen 75. artikuluan xedatuta dagoenarekin bat etorritik, bidezkoa denaren arabera.

94. artikulua. *Arau-hauste larriak.*

Honako egite edo ez-egite hauek arau-hauste larriak izango dira:

a) Lege honen arabera eman behar den informazioa bazkideen, partaideen eta orokorrean jendearen eskura jartzeko betebeharra ez betetzea, hori arau-hauste oso larritzat kalifikatu behar ez denean.

b) Kontabilitatea eramatean legez ezarritakoak ez diren irizpide batzuei jarraitzea, horrek erakundearen edo sozietate kudeatzailearen edo eraginpean dagoen AKE edo IKIEaren ondare-irudia desitxuratzen badu, eta kontuak formulatzeari edo liburu eta erregistro ofizialak eramateko moduari buruzko arauak urratzea, hori arau-hauste oso larritzat kalifikatu behar ez denean.

c) Lege honetan ezarrita dauden inbertsio-ehunekoak ez betetzea, hori arau-hauste oso larritzat kalifikatu behar ez denean.

d) Hirugarrenen aurrean betebeharrak hartzeko AKE-en edo IKIE-en liburuxkan, estatutuetan edo erregelamenduan ezartzen diren mugak gainditzea, hori arau-hauste oso larritzat kalifikatu behar ez denean.

e) Kudeatutako erakundeari komisioak kargatzea benetan eman ez diren zerbitzuengatik, aurreikusita ez dauden komisioak kobratzea edo komisioak kobratzean AKE-en edo IKIE-en estatutuetan edo erregelamenduetan ezarritako mugak eta baldintzak ez betetzea.

f) Sozietate kudeatzaileek lege honetan ezarrita dauden betebeharrak ez betetzea, hori arau-hauste oso larritzat kalifikatu behar ez denean.

g) Gordailuzainak lege honetan eta Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen V. tituluaren eta 68. artikuluan ezarritako betebeharrak ez betetzea, hori arau-hauste oso larritzat kalifikatu behar ez denean.

h) 48 artikuluan ezarrita dagoena ez betetzea.

i) Arau-hauste arin bat egitea, baldin eta hori gertatu aurreko bi urteetan egileak administrazio bidean arau-hauste mota beragatik zehapen irmoa jaso badu.

j) Lege honek debekatutako jarduketa edo eragiketak egitea edo jarduketa edo eragiketak egitean legeak ezarritako baldintzak urratzea, baldin eta noizbehinka egiten bada.

k) AKE-ek, IKIE-ek edo sozietate kudeatzaileek administrazioaren antolaketan, kontabilitatearen antolaketan edo barne-kontrolako edo balorazioko prozeduretan (arriskuaren kudeaketari buruzkoak ere barne direla) hutsuneak erakustea, agintari eskudunek hutsune horiek konpontzeko emandako epea igarotakoan, eta horrela arau-hauste oso larria egin ez bada.

l) Sozietate kudeatzailearen eginkizunak eskuordetzan ematean lege honetan ezarritako baldintzak ez betetzea, hori arau-hauste oso larritzat kalifikatu behar ez denean.

m) Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari informazioa emateko betebeharrak eta baliabide propioen eskakizunak berriro betetzeko baldintzak ez betetzea, sozietate kudeatzaile batek eska daitekeen gutxieneko mailatik beherako baliabide propioak dituenean.

n) Publizitatea egitean aplikatu daitekeen araudia urratzea.

ñ) Baimena lortzeko aurkeztutako baldintzak ez betetzea, hori arau-hauste oso larritzat kalifikatu behar ez denean.

o) Inbertsioa aplikatu ahal den araudiaren arabera baimenduta ez dauden edo AKE edo IKIEaren liburuxkak, estatutuek edo erregelamenduek onartzen ez dituen aktiboetan egitea, hori arau-hauste oso larritzat kalifikatu behar ez denean.

p) Akzioak edo partaidetzak jaulki, itzuli edo intsuldatzean AKE-en edo IKIE-en estatutuetan eta kudeaketa-erregelamenduetan ezarritako muga eta baldintzak urratzea, hori arau-hauste oso larritzat kalifikatu behar ez denean.

q) AKE-ek, IKIE-ek edo haien sozietate kudeatzaileek AKE-en edo IKIE-en aktiboak baloratzeko prozeduretan akatsak izatea, hala lege honetan, aplikatu ahal den legerian eta AKEaren edo IKIE-aren erregelamendu edo estatutuetan ezarritako arauak urratzen badira, eta hori arau-hauste oso larritzat kalifikatu behar ez denean.

- r) 85. artikuluan azaltzen diren pertsona juridikoak administrazio edo zuzendaritzako kargurik ez duten pertsonak administratu edo zuzentzea.
- s) Sozietate kudeatzaileek baimenik ez duten jarduerak egitea, noizbehinka edo modu isolatuan.
- t) 11. artikuluan aipatzen diren izendapen eta siglak behar ez den bezala erabiltzea.
- u) Sozietate kudeatzaileek edo AKE-ek edo IKIE-ek gainbegiratzearen edo ikuskapenaren ondorioz detektatutako akatsak konpontzeko hartutako konpromisoak ez betetzea, hori arau-hauste oso larritzat kalifikatu behar ez denean.
- v) IKIESKak 80. eta 83. bitarteko artikuluetan ezarritako betebeharrak ez betetzea, hori arau-hauste oso larritzat kalifikatu behar ez denean.
- w) Europar Batasuneko kide den beste estatu batean edo hirugarren estatu batean baimendutako kudeatzaileek 76. eta 79. bitarteko artikuluetako betebeharrak urratzea, hori arau-hauste oso larritzat kalifikatu behar ez denean.
- x) Lege honetan, Europako arrisku-kapitaleko funtsei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko apirilaren 17ko 345/2013 zenbakidun Erregelamenduan eta Europako gizarte-ekintzailtzako funtsei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko apirilaren 17ko 346/2013 zenbakidun Erregelamenduan –bidezkoa dena– ezarritako nahitaezko inbertsio-ehunekoak ez betetzea, baldin eta erakundea egoera horretan gutxienez hamabi hilabetean egon bada.
- y) Jokabide-arauak ez betetzea, hori arau-hauste oso larria dela uste ez denean.

95. artikulua. *Arau-hauste arinak.*

Honako egite edo ez-egite hauek arau-hauste arinak izango dira:

- a) Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari ez bidaltzea arauetan eta lege honetan xedatuta dagoenaren arabera bidali behar zaizkion agiri, datu edo informazioak –edo batzordeak bere zereginak betetzean eskatzen dituenak–, arauetan ezarritako edo batzordeak berak emandako epean, eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren gainbegiratze-jardueren aurrean laguntzeko betebeharra urratzea, adibidez deklarazioa hartzeko zitazio batean ez agertzea, aurreko bi artikuluetan aurreikusita dagoenaren arabera jokabide horiek arau-hauste larria edo oso larria ez direnean.
- b) Lege honen arabera bazkideen, partaideen eta orokorrean jendearen artean zabaldu behar den informazioa berandu argitaratu edo bidaltzea, hori arau-hauste larri edo oso larri gisa kalifikatu behar ez denean.
- c) Aurreko artikuluko c), d), e), f), k), p), q) eta r) idatz-zatietan aurreikusitako ez-betetzeak, unean-unekoak eta noizbehinkakoak izateagatik larri gisa kalifikatu behar ez badira.
- d) Halaber, arau-hauste arina da lege hau eta legea garatzeko arauak ez betetzea, baldin eta aurreko paragrafoetan xedatuta dagoenaren arabera arau-hauste larria edo oso larria ez bada.

3. atala. *Zehapenak*

96. artikulua. *Zehapenak arau-hauste oso larriak egiteagatik.*

1. Arau-hauste oso larriengatik, zehapen hauetako bat edo gehiago ezarriko arau-hauste den sozietate kudeatzaileari:

- a) Isuna, arau-haustea osatu duten egintzen edo ez-egiteen ondorioz lortutako etekin gordinaren zenbatekoa baino gehiago edo gehienez zenbateko hori halako bost egiten duen zenbatekoan. Egindako arau-haustearen ondorioz lortutako etekina kuantifikatu ez denean, gehienez 300.000 euroko isuna.

b) Baimena errebokatzea eta erregistro berezietatik behin betiko baztertzea. Atzerriko erakundeen edo Europar Batasuneko beste estatu kide batzuek baimendutako kudeatzaileen kasuan, errebokatzeko zehapenaren ordeztasun bidezkoa bada, Espainian eragiketarako egiteko edo merkaturatua izateko debekua ezarriko da.

c) Araua hautsi duen erakundea erregistro berezietatik aldi baterako baztertzea, gutxienez bi urtean eta gehienez bost urtean.

d) Arau-hausleak egin ditzakeen eragiketa edo jarduerak bost urteko epean, gehienez jota, etetea, edo haien bolumena mugatzea.

e) AKEaren edo IKIEaren gordailuzaina nahitaez ordeztzea.

2. Aurreko paragrafoetan aurreikusitako zehapenez gain, ohartarazpen publikoa egin ahal izango da, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) arau-hauslearen izena, arau-haustearen izaera eta ezarritako zehapenak argitaratuko dira.

97. artikulua. *Zehapenak arau-hauste larriak egiteagatik.*

1. Arau-hauste larriengatik, zehapen hauetako bat edo gehiago ezarriko arau-hausle den sozietate kudeatzaileari:

a) Isuna, arau-haustea osatu duten egintzen edo ez-egiteen ondorioz lortutako etekin gordinaren zenbatekoan gehienez ere. Egindako arau-haustearen ondorioz lortutako etekina kuantifikatu ez denean, gehienez 150.000 euroko isuna.

b) Araua hautsi duen erakundea erregistro berezietatik aldi baterako baztertzea, gutxienez urtebetean eta gehienez hiru urtean.

c) Arau-hausleak egin ditzakeen eragiketa edo jarduerak urtebeteko epean, gehienez jota, etetea, edo haien bolumena mugatzea.

2. Aurreko paragrafoetan aurreikusitako zehapenez gain, ohartarazpen publikoa egin ahal izango da, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) arau-hauslearen izena, arau-haustearen izaera eta ezarritako zehapenak argitaratuko dira.

98. artikulua. *Zehapenak arau-hauste arinak egiteagatik.*

Arau-hauste arinak egiteagatik, gehienez 60.000 euroko isuna jarriko zaio sozietate kudeatzaileari.

99. artikulua. *Zehapenak administrazioko edo zuzendaritzako karguek egindako arau-hauste oso larriengatik.*

1. Sozietate kudeatzaileari arau-hauste oso larriak egiteagatik jar dakioken zehapena gorabehera, honako zehapen hauek ezarri ahal zaizkie administrazio- edo zuzendaritza-kargudun izanik arau-haustea egiten dutenei, 91. artikulua kontuan hartuta:

a) 300.000 € arteko isuna bakoitzari.

b) Kargutik kentzea eta erakunde berean edo beste finantza-erakunde batean administrazio- edo zuzendaritza-karguak betetzeko 10 urtez desgaitzea, gehienez ere.

c) Gehienez hiru urtekoa izango den epe batean, karguaz gabetzea.

2. Aurreko paragrafo b) edo c) idatzi-zatietan aurreikusitako zehapenak ezarri gero, aldi berean a) idatzi-zatietan aurreikusita dagoen zehapena ezarri ahal izango da.

3. Aurreko paragrafoetan aurreikusitako zehapenez gain, ohartarazpen publikoa egin ahal izango da, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) arau-hauslearen izena, arau-haustearen izaera eta ezarritako zehapenak argitaratuko dira.

100. artikulua. *Zehapenak administrazioko edo zuzendaritzako karguek egindako arau-hauste larriengatik.*

1. Sozietate kudeatzaileari arau-hauste larriak egiteagatik jar dakioken zehapena gorabehera, honako zehapen hauek ezarri ahal zaizkie administrazio- edo zuzendaritza-kargudun izanik arau-haustea egiten dutenei, 91. artikulua kontuan hartuta:

- a) 150.000 € arteko isuna bakoitzari.
- b) Erakundeko zuzendaritza-kargu guztietatik urtebetez kentzea, gehienez ere.

2. Aurreko paragrafoan xedatuta dagoena gorabehera, paragrafo horretako b) idatzi-zatian aurreikusitako zehapena ezarri gero, aldi berean a) idatzi-zatian aurreikusita dagoen zehapena ezarri ahal izango da.

Aurreko paragrafoetan aurreikusitako zehapenez gain, ohartarazpen publikoa egin ahal izango da, eta Estatuko Aldizkari Ofizialean (BOE) arau-hauslearen izena, arau-haustearen izaera eta ezarritako zehapenak argitaratuko dira.

101. artikulua. *Zehapenak erabakitzeke irizpideak.*

1. Arau-hauste oso larriak, larriak edo arinak egiteagatik aplika daitezkeen zehapenak erabakiko dira azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 131.3 artikuluan jasotako irizpideen eta honako irizpide hauen arabera:

2. Administrazio- edo zuzendaritza-kargudunei aplikatu ahal zaien zehapena zehazteko, gainera, inguruabar hauek hartuko dira kontuan:

- a) Arau-hausleak egindakoetan atzeman den erantzukizun maila.
- b) Erakundearen aurreko jokabidea, erakunde berean edo beste batean, antolamendu- eta diziplina-arauak direla-eta, azken bost urteetan ezarritako zehapen irmoak aintzat hartuta.
- c) Interesdunak duen ordezkartzaren izaera.

102. artikulua. *Esku hartzeko eta ordezkatzeko neurriak.*

AKSei, IKISei eta IKIESKei Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legean esku-hartze eta ordezte neurriei buruz xedatuta dagoena aplikatuko zaie.

4. atala. *Bestelako xedapenak*

103. artikulua. *Bestelako xedapenak.*

Arau-hausteen eta zehapenen preskripzioaren arloan, administrazio-erantzukizunaren salbuespenaren arloan, isun hertsatzaileak ezartzearen arloan eta lege honen arabera ezartzen diren zehapenen betearazteketasunaren arloan, Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legean xedatuta dagoena aplikatuko da.

Lehenengo xedapen gehigarria. *Arrisku-kapitaleko erakundeen sozietate kudeatzaile baimenduak inbertsio kolektibo itxiko erakundeen sozietate kudeatzaile bihurtzea.*

Arrisku-kapitaleko erakundeak eta beren sozietate kudeatzaileak arautzeko azaroaren 24ko 25/2005 Legearen arabera jada baimenduta dauden AKE-en sozietate kudeatzaileak IKIESK bihurtuko dira lege hau indarrean jartzean, baina ez da baimen gehiagorik behar izango. Sozietate kudeatzaile horiek «AKE-en sozietate kudeatzaileak» izendapenaren ordezkari «IKIESK» izendapena erabili beharko dute. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eta, bidezkoa bada, Merkataritza Erregistroak, haien erregistroak ofizioz egokituko dituzte inguruabar hori biltzeko.

Bigarren xedapen gehigarria. *Arauen aipamenak.*

1. Espainiako antolamendu juridikoan Arrisku-kapitaleko erakundeak eta beren sozietate kudeatzaileak arautzeko azaroaren 24ko 25/2005 Legeari buruz egiten diren aipamenak lege honi buruz egin direla ulertuko da.
2. Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, arrisku-kapitaleko erakundeei buruz egindako aipamenak ETE-etako arrisku-kapitaleko erakundeei buruz ere egiten direla ulertuko da.

Hirugarren xedapen gehigarria. *Lehendik dauden erakundeak araudi berrira egokitzeko epea.*

1. AKE-en sozietate kudeatzaileek eta lege hau indarrean jarri baino lehen baimendutako AKE-ek Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari legea indarrean jartzen denetik hiru hilabeteko epean deklarazio bat bidali beharko diote. Deklarazio horretan adierazi beharko dute erakundea aplikatu behar zaizkion legearen eskakizunetara egokitu dutela, 72. artikuluan ezarritako atalaseak gainditu dituzten ala ez kontuan hartuta; eta bidezkoa bada, egokitzapen hori agerrarazten duen jardueren programaren aldaketa ere bidali beharko dute, 52.3.b) artikulua araberak.
2. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eta, bidezkoa bada, Merkataritza Erregistroak, haien erregistroak ofizios egokituko dituzte kudeatzaileen sozietate-estatutuen aldaketa biltzeko, lege honetara egokitze aldera.
3. Kudeatzaileek 12 hilabeteko epea izango dute lege hau indarrean jartzen denetik aurrera lege honen arabera Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eduki behar duen gainerako informazioa eguneratzeko eta hari bidaltzeko.
4. 76. eta 80. artikuluetan mugaz haraindiko merkaturatzeari buruz xedatuta dagoena ez zaie aplikatuko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen arabera egindako eta argitaratutako liburuxka baten babespean lege hau indarrean jarri aurretik indarreko eskaintza publiko batean eskaintzen diren AKE-en eta IKIE-en partaidetzen merkaturatzeari, liburuxka horren indarraldiak irauten duen bitartean.
5. Lege hau indarrean jarri aurretik AKEak kudeatzen dituzten sozietate kudeatzaileak, baldin eta lege hau indarrean jarri ostean inbertsio gehiago egiten ez badituzte, AKE horiek kudeatzen jarraitu ahal izango dute lege honen eskakizunetara egokitu behar izan gabe. Horretarako, ondorio horretarako deklarazioa aurkeztu beharko dute.
6. Sozietate kudeatzaileek, inbertsiogileentzako harpidetza-epea lege hau indarrean jarri baino lehen iraungita duten AKEak kudeatzen dituzten heinean eta beranduenez 2016ko uztailaren 22an iraungitzen den epe batean eratuta dauden heinean, AKE horiek kudeatzen jarraitu ahal izango dute lege honetan ezarrita dagoena bete behar izan gabe, ez bada urteko txostena 67. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera argitaratzeko betebeharrari dagokionez eta sozietateetan partaidetza adierazgarriak eta kontrola eskuratzearen ondorioz sortutako informazio-betebeharrak –71. artikuluan ezarrita dagoen bezala– betetzeari dagokionez.
7. Baimenduta ez dauden erakundeek, lege hau indarrean jarri aurretik IKIESken jarduera erreserbatuak edo AKSenak, ETE-AKSenak edo IKIS autokudeatuenak egiten badituzte, haien jarduera egiten jarraitu ahal izango dute, baina baimena eskatu beharko dute, II. tituluko I. kapituluaren aurreikusita dagoenaren arabera. Hala egin ezean, jarduerak bertan behera utziko dituzte, baldin eta 3., 4. eta 5. paragrafoetan azaldu diren kasuetan ez badaude.
8. 77.1 artikuluko c) idatzi-zatian ageri den baldintza aplikatuko da Europako Batzordearen egintza eskuordetuaren unean, egintza horretan ezartzen diren baldintzetan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren 67.6 artikulua araberak. Halaber, Europar Batasunetik kanpoko AKEak eta IKIEak merkaturatzeko aurrerantzean ez dira beharrezkoak izango Espainian merkaturatzeko baimena eta erregistroa, 77. artikuluko 4. eta 5. paragrafoetan aurreikusita

daudenak, Europako Batzordeak aipatu den zuzentarauaren 68.6 artikulua arabera erabakitzen duen egintza eskuordetuan hala zehazten denean.

Xedapen indargabetzailea.

Indargabetuta gelditzen dira lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten legearen mailako edo hortik beherako arau guztiak. Batez ere, arrisku-kapitaleko erakundeak eta beren sozietate kudeatzaileak arautzeko azaroaren 24ko 25/2005 Legea.

Azken xedapenetako lehenengoa. *Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea aldatzea.*

Honela geratzen da aldatuta Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legea:

Bat. 2. artikuluko 1. paragrafoa berriz idatziko da:

«1. Legea honako hauei aplikatuko zaie:

a) Inbertsio-sozietateen kasuan, sozietate-helbidea Espainian duten IKE-ei, edo, funtsen kasuan, Espainian baimendu direnei.

b) Europar Batasuneko beste estatu kide batean baimendutako IKE-ei, balore higigarrietako inbertsio kolektiboko erakunde jakin batzuei buruzko lege, erregelamendu eta administrazio arloko xedapenak koordinatzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EE Zuzentarauaren arabera, baldin eta Espainian merkaturatzen badira. Kasu horretan, Espainian egiten duten jardueran 15. artikulua aipatzen dituen arauak soilik aplikatuko zaizkie.

c) Europar Batasuneko beste estatu kide batean eratu diren eta estatu kide batean baimendutako sozietate kudeatzaileek kudeatzen dituzten IKE-ei, 2003/41/EE eta 2009/65/EE Zuzentarauak eta 1060/2009 (KE) eta (EB) 1095/2010 zenbakidun Erregelamenduak aldatzen dituen inbertsio-funts alternatiboen kudeatzaileei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren babespean, baldin eta Espainian inbertsiogile profesionaleri merkaturatzen bazaizkie. Kasu horretan, Espainian egiten duten jardueran 15 bis artikulua aipatzen dituen arauak soilik aplikatuko zaizkie.

d) Hirugarren estatuetan eratu diren eta kudeatzaileek estatu kide batean kudeatzen dituzten IKE-ei, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren babespean, baldin eta Espainian inbertsiogile profesionaleri merkaturatzen bazaizkie. Kasu horretan, Espainian egiten duten jardueran 15 ter artikulua aipatzen dituen arauak soilik aplikatuko zaizkie.

e) Helbidea Europar Batasunean ez duten sozietate kudeatzaileek kudeatzen dituzten IKE-ei, baldin eta Espainian inbertsiogile profesionaleri merkaturatzen bazaizkie. Kasu horretan, Espainian egiten duten jardueran 15 quater artikulua aipatzen dituen arauak soilik aplikatuko zaizkie.

f) Aurreko c), d) eta e) idatzi-zatietan aipatu diren IKE-ei, Espainian inbertsiogile ez-profesionaleri merkaturatzen bazaizkie. Kasu horretan, Espainian egiten duten jardueran 15 quinquies artikulua aipatzen dituen arauak soilik aplikatuko zaizkie. Profesional ez direnentzat merkaturatu ahal diren IKE motak erregelamendu bidez mugatu ahal izango dira.

Nolanahi ere, aurreko b), c), d), e) eta f) idatzi-zatiak Inbertsio Kolektibo irekiko Erakundeei eta lege honen 37. artikuluan eta lege hori garatzen duten arauetan aurreikusitakoekin parekatu ahal direnei soilik aplikatuko zaizkie. IKE horiei ez zaie inola ere aplikatuko Balore Merkatuari buruzko uztailaren 24ko 24/1988 Legearen 30 bis artikulua. Ondorio horietarako, Inbertsio Kolektibo irekiko Erakundeak izango

dira jendearen artean orokorrean atzitutako funtsen inbertsio kolektiboa egitea xede dutenak, baldin eta haien funtzionamendua arriskuen banaketaren printzipioaren mendean badago, eta haien unitateak, edukitzaileak eskatuta, erakunde horien aktiboen kontura zuzenean edo zeharka berrerosten edo itzultzen badira. IKE batek bigarren mailako merkatu ofizial batean edo Europar Batasunean helbideratutako beste merkatu arautu batean edo negoziazioko sistema aldean batean dituen akzioen edo partaidetzen merkatuko balioa likidazio-balioetik modu nabarmenean ez desbideratzeko egindako egintza, ulertuko da berrerosteta edo itzulketa horien baliokidea dela.

Lege honetan xedatuta dagoenaren ondorioetarako, Inbertsio Kolektiboko Erakunde bat merkaturatzea izango da Inbertsio Kolektiboko Erakundearen kontura edo haren izenean edo haren merkaturatzaileetako baten izenean jarduten duen edozein erakunderen kontura publizitate-jardueraren bidez bezeroak atzitzea, Inbertsio Kolektiboko Erakundera funtsak, ondasunak edo eskubideak ekar ditzaten.

Ondorio horietarako, publizitate-jarduerak izango dira inbertsiogile izan daitezkeenentzat egindako komunikazio guztiak. Helburua, zuzenean edo Inbertsio Kolektiboko Erakundearen edo Inbertsio Kolektiboko Erakundea kudeatzen duen sozietatearen kontura jarduten duten hirugarrenen bitartez Inbertsio Kolektiboko Erakundearen partaidetzak edo akzioak harpidetu ditzatela edo eskura ditzatela sustatzea da. Nolanahi ere, publizitate-jarduera dago jendearengana jotzeko erabilitako bitartekoak hauek badira: Inbertsio Kolektiboko Erakundeak edo haren sozietate kudeatzaileak hasitako telefono-deiak, bizilekura egindako bisitak, gutun pertsonalizatuak, posta elektronikoa edo beste bide telematikoko guztiak, zabalkunde, merkaturatze edo sustapen kanpaina baten barruan.

Kanpaina lurralde nazionalean egin dela ulertuko da Espainian bizi diren inbertsiogileei zuzenduta badago. Posta elektronikoa edo beste bide telematikoko guztien kasuan, eskaintza Espainian bizi diren inbertsiogileei zuzentzen zaiela uste izango da baldin eta Inbertsio Kolektiboko Erakundeak edo haien sozietate kudeatzaileak, edo haien kontura baliabide informatikoan jarduten duen edozein pertsonak, akzioak edo partaidetzak erostea edo harpidetzea proposatzen badu edo Espainiako lurraldean bizi direnei beharrezkoa den informazio guztia ematen badie jaulkipenaren edo eskaintzaren ezaugarriak ikusteko eta jaulkipen edo eskaintza horrekin bat egiteko.

Nolanahi ere, Inbertsio Kolektiboko Erakundearen kapitala edo ondarea adierazten duten akzioen, partaidetzen edo baloreen salmenta, besterentze, bitartekotza, harpidetza, geroagoko itzulketa edo eskualdaketa jarduerak (Inbertsio Kolektiboko Erakundea merkaturatzearekin zerikusia dutenak) finantza-bitartekarien bitartez egin beharko dira, lege honetan eta lege hau garatzeko xedapenetan aurreikusita dagoenaren arabera.»

Bi. 11. artikuluari idazketa berria ematen zaio.

«11. artikulua. *Jarduerari ekiteko eta jardueran aritzeko baldintzak.*

1. Baimena lortu eta mantentzeko betekizunak hauek izango dira:

- a) Sozietate anonimo gisa edo inbertsio-funts gisa eratzea.
- b) Sozietate-xedea lege honetan ezarrita dauden jardueretara mugatzea.
- c) Gutxieneko sozietate-kapitala edo ondarea edukitzea erregelamendu bidez ezartzen diren epe eta zenbatekoetan.
- d) Akziodun edo partaideak legez eska daitezkeen epe eta kopuruetan edukitzea.
- e) Inbertsio-funtsen kasuan, 43.1.c) artikuluan aurreikusita dagoena betetzen duen sozietate kudeatzaile bat izendatzea Espainian baimendutako IKESK bat bada, edo 4. paragrafoan aurreikusita dagoena betetzen duena Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/UE

Zuzentarauaren arabera edo Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren arabera Europar Batasuneko beste estatu kide batean baimendutako sozietate kudeatzailea bada.

Inbertsio-sozietateen kasuan, gutxieneko sozietate-kapitalak ez baditu 300.000 euroak gainditzen, sozietate kudeatzaile bat izendatzea lehenago aurreikusi diren baldintzekin.

f) Gordailuzain bat izendatzea, erregelamendu bidez aurreikusten diren salbuespenekin.

2. Inbertsio-sozietateak diren aldetik, gainera, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Administrazio- eta kontabilitate-arloko antolaketa edukitzea, bai eta barne-kontrolako eta kudeaketako prozedurak ere, IKEaren kudeaketa zuzena eta zuhurtziazkoa bermatuko dutenak, barnean direla arriskuen kudeaketako prozedurak, bai eta informatikaren eremuko kontrol eta segurtasun mekanismoak ere, eta kapital-zuriketa prebenitzeko prozedura eta organoak ere bai.

b) Sozietate-helbidea, eta benetako administrazio eta zuzendaritza, Espainiako lurraldean egotea.

c) Administrazioaile guztiek edo, bidezkoa bada, administrazio-kontseiluko kideek, kontseiluetan pertsona juridikoak ordezkatzeko dituzten pertsona fisikoak barnean direla, eta erakundeak edo zuzendaritzako karguak dituztenek ere bai, zintzotasun aintzatetsia izatea enpresa edo lanbide arloan.

Artikulu honetan xedatuta dauden ondorioetarako, zuzendaritzako karguak dituztenak zuzendari nagusiak eta erakundearen administrazio-organoren mendean zuzenean edo batzorde betearazleen edo kontseilari eskuordetuen mendean goi-zuzendaritzako zereginak betetzen dituzten pertsonak izango dira.

Zintzotasuna dute erakundearen kudeaketa on eta zuhurra egiteko gaitasunari buruzko zalantzarik sortzen ez duen jokabide pertsonal, komertzial eta profesionala azaldu duten pertsonen. Zintzotasuna dagoenez baloratzeko aintzat hartu beharko da eskura dagoen informazio guztia, erregelamenduz ezarritako parametroen arabera.

d) Administrazio-kontseiluko edo batzorde betearazleetako kide gehienek, kontseilari delegatu guztiek eta zuzendari nagusiek eta parekoek ezagutza eta esperientzia egokia izan beharko dituzte balore-merkatuarekin edo dena delako IKEaren inbertsio-helburu nagusiarekin zerikusia duten arloetan.

e) Barneko jokabide-erregelamendu bat edukitzea, VI. tituluko I. kapituluan aurreikusita dagoen bezala.

Aurreko a), d) eta e) idatzi-zatietan aurreikusitako baldintzak ez zaizkie eskatuko hainbat sozietate kudeatzailek kudeatzen, administratzen eta ordezkatzeko dituzten inbertsio-sozietateei.

Sozietatearen administrazio- eta zuzendaritzako karguak betetzen dituztenei dagokienez aldaketak gertatzen badira, identifikazio-datu berriak berehala jakinarazi beharko zaizkio Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari, eta hark egokia den erregistroaren bitartez argitaratuko ditu.

3. Lege honetan aurreikusita dauden ondorioetarako, erakunde batean administrazio- eta zuzendaritzako kargudunak izango dira administrazioaileak edo administrazio- eta zuzendaritzako kide anitzeko organoetako kideak, bai eta erakundearen egitea edo zuzenbidez administrazio-organoren mendean zuzenean edo batzorde betearazleen edo administrazio-organoko kontseilari eskuordetuen mendean goi-zuzendaritzako zereginak betetzen dituzten pertsonak, barnean direla ahalduak, haien ordezkartzaren eremua arlo edo gai espezifikoetara edo erakundearen xede den jardueratik kanpokoetara mugatzen ez dutenak.

4. Sozietate kudeatzailea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/UE Zuzentarauaren arabera edo Europako

Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren arabera Europar Batasuneko beste estatu kide batean baimenduta badago, gainera, baimena lortzeko, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari agiri hauek eman beharko zaizkio:

- a) Gordailuzainarekin egindako akordio idatzia, 58. artikuluan azaltzen dena.
- b) Eskuordetzeko modalitateei buruzko informazioa, aktiboen kudeaketako eta IKE-en administrazioiko eginkizunei dagokienez. Agiri horietan gerora aldaketa nabarmenik badago, sozietate kudeatzaileak horren berri emango dio Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari.

Sozietate kudeatzailea Espainian mota bereko beste IKE bat kudeatzen ari bada, nahikoa izango da jada emandako agiriak aipatzea.

IKEa baimentzeko baldintza ez da inola ere izango IKE hori sozietate-helbidea Espainian duen sozietate kudeatzaile batek kudeatzea, edo sozietate kudeatzaileak berez jardutea edo jarduera batzuk eskuordetzan ematea Espainian.

5. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak gainbegiratu behar dituen arauak betetzen direla bermatzeko beharrezkoa den neurrian, batzorde horrek kudeaketa-sozietatearen jatorriko estatu kideko agintari eskudunei aurreko paragrafoan aipatu diren agiriari buruzko zehaztapenak eta informazioa eskatu ahal izango dizkie, eta sozietate kudeatzailearen jatorriko estatu kideko agintari eskudunak bidali behar dion egiaztagiria oinarri dela, baimentzeko eskatu den IKEaren mota kudeaketa-sozietateari emandako baimenaren eremuaren barruan sartzen den.»

Hiru. Aldatu egin da 15. artikulua; hona nola gelditzen den idatzita:

«15. artikulua. *Europar Batasuneko beste estatu kide batean eratu diren eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/UE Zuzentarauak arautzen dituen IKE-en akzioak eta partaidetzak Espainian merkaturatzea.*

1. Europar Batasuneko beste estatu kide batean eratu diren eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/UE Zuzentarauak arautzen dituen IKE-en akzioak eta partaidetzak Espainian merkaturatzea askea izango da, artikulua honetan aurreikusita dauden arauen arabera, IKEaren jatorriko estatu kideko agintari eskudunak IKEari jakinarazten dionetik Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinarazpen-idazkia bidali diola, informazio honekin: akzioak edo partaidetzak Espainian merkaturatzeko xedapen eta modalitateak, eta bidezkoa bada, partaidetza horien motak edo akzioen serieak, inbertsio-funtsaren erregelamendua edo sozietatearen eraketa-agiriak, liburuxka, azken urteko txostena eta bidezkoa bada ondoz ondoko sei hilekoko txostena, inbertsiogileentzat funtsezkoak diren datuak dituen agiria, eta IKEak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/UE Zuzentaruaren ezarritako baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko agiria.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak aurreko paragrafoan aipatu diren agiriak baliabide elektronikoen bidez bidaltzea onartuko du.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak artikulua honetan ezarritakoaz bestelako informazio edo agiririk ez du eskatuko.

IKE-ek Espainian Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/UE Zuzentarauaren eremuan ez dauden indarreko xedapen arauemaileak eta Espainian publizitatea eraentzen duten arauak bete beharko dituzte. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ikuskatuko du betebeharroriek noraino betetzen diren.

Lege honetan eta lege hau garatzeko araudian ezarrita dagoenaren arabera, IKE-ek haien akziodun eta partaideei honako hauek erraztu beharko dizkiete: ordainketak; haien akzioak eskuratzea edo haien partaidetzak itzultzea; Espainian

bizi diren akziodun eta partaideei eman behar dizkieten informazioak zabaltzea; eta, orokorrean haien eskubideak baliatzea.

2. Aurreko paragrafoan aipatu den IKEak Espainian ezarrita dauden inbertsiogileei Estatu horretan ezarrita dauden inbertsiogileei jatorriko estatu kideko legeriaren arabera eman behar dizkien informazio eta agiri guztiak emango dizkie. Informazio hori lege honetan eta lege hau garatzeko araudian ezarrita dagoen moduan emango da.

Inbertsiogilearentzako funtsezko datuak biltzen dituen agiria eta horren aldaketak gaztelaniaz edo Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak onartutako beste hizkuntza batean aurkeztu beharko dira.

Liburuxka eta urteko eta sei hilekoko txostena eta haien aldaketak gaztelaniaz, nazioarteko finantzen esparruan ohikoa den hizkuntza batean edo Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak onartutako beste hizkuntza batean aurkeztu beharko dira.

Aurreko paragrafoetan hizpide izan den informazioaren itzulpenak orpoz orpo jarraituko dio jatorrizko testuari eta IKEaren erantzukizunpean egingo da.

3. Lehenengo paragrafoko Lehenengo idatzi-zatian aipatzen den jakinarazpen-idazkia jakinarazitako informazioan aldaketarik badago partaidetzak edo akzioak merkaturatzeko modalitateei buruz, edo merkaturatuko diren partaidetzen edo akzioen motei buruz, lehenengo paragrafoan aipatu den IKEak idatziz emango dio informazioa Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari, aldaketa hori benetan gertatu aurretik.

Lehenengo paragrafoko Lehenengo idatzi-zatian aipatzen diren agirietan aldaketarik badago, IKEak horren berri emango dio Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari, eta formatu elektronikoa zein lekutan lor daitezken azalduko dio.»

Lau. 15 bis artikulua berri bat erantsi da, eta hauxe dio:

«15 bis artikulua. *Europar Batasuneko beste estatu kide batean eratu diren eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren babespean estatu kide batean kudeatzaile baimenduek kudeatzen dituzten inbertsio kolektiboko erakundeak Espainian merkaturatzea inbertsiogile profesionalentzat.*

1. Europar Batasuneko beste estatu kide batean ezarrita dauden eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren babespean estatu kide batean kudeatzaile baimenduek kudeatzen dituzten inbertsio kolektiboko erakundeak inbertsiogile profesionalentzat Espainian merkaturatzea, inbertsiogile profesional horiek Balore Merkatuari buruzko uztailearen 28ko 24/1988 Legearen 78 bis artikuluko 3. paragrafoan definitzen diren bezala, askea izango da, artikulua honetan aurreikusita dauden arauen arabera, kudeatzailearen jatorriko estatu kideko agintari eskudunak kudeatzaileari jakinarazten dionetik Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinarazpen-idazkia bidali diola. Idazki horretan informazio hau bildu beharko da:

a) Kudeatzaileak merkaturatu nahi dituen IKE-en identifikazioa, eta IKE horien ezarlekuarena ere bai.

b) Akzioak edo partaidetzak Espainian merkaturatzeko xedapen eta modalitateak, eta bidezkoa bada, partaidetza horien motei edo akzioen serieei buruz.

c) Inbertsio-funtsaren erregelamendua edo sozietatearen eraketa-agiriak.

d) Erakundearen liburuxka, edo agiri baliokidea, halakoa eskatu ahal bada, eta azken urteko txostena.

e) IKEaren gordailuzainaren identifikazioa.

f) IKEaren deskribapena, edo hari buruzko edozein informazio, inbertsiogileen eskura.

g) IKE nagusia ezarrita dagoen lekuari buruzko informazioa, merkaturatu nahi duen IKEa mendeko IKEa bada.

h) Bidezkoa denean, IKEa txikizkako inbertsiogileen artean merkaturatzea eragozteko hartutako neurriei buruzko informazioa.

Mendeko IKE bat Espainian merkaturatu ahal izateko, IKE nagusiak helbidea Europar Batasunean izan beharko du eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren babespean baimendutako kudeatzaile batek kudeatuko du.

Atzerriko IKEak Espainian inskribatu ondoren egiten diren urteko txostenak, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak bost urtean eskatu ahal izango ditu.

2. 1. paragrafoko jakinarazpenarekin batera kudeatzailearen jatorriko Europar Batasuneko kide den estatuko agintari eskudunen egiaztagiria aurkeztu beharko da. Egiaztagiri horren bidez baieztatuko da sozietate kudeatzaile hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren arabera baimenduta dagoela inbertsio-erakundeak inbertsio-estrategia jakin batekin kudeatzeko.

3. 1. paragrafoan aipatu den jakinarazpen-idazkia eta 2. paragrafoan aipatu den egiaztagiria nazioarteko finantzen esparruan ohikoa den hizkuntza batean aurkeztu beharko dira.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak lehenengo bi paragrafoetan aipatu diren agiriak baliabide elektronikoen bidez bidaltzea onartuko du.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak artikulu honetan ezarritakoaz bestelako informazio edo agiririk ez du eskatuko.

4. Espainian merkaturatzeari eta publizitatea egiteari buruz indarrean dauden xedapen arauemaileak errespetatu beharko dituzte IKE-ek eta haien sozietate kudeatzaileek. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ikuskatuko du betebeharroriek noraino betetzen diren.

5. Lege honetan eta lege hau garatzeko araudian ezarrita dagoenaren arabera, sozietate kudeatzaileek IKE-en akziodun eta partaideei honako hauek erraztu beharko dizkiete: ordainketak; haien akzioak eskuratzea edo haien partaidetzak itzultzea; Espainian bizi diren akziodun eta partaideei eman behar dizkieten informazioak zabaltea; eta, orokorrean haien eskubideak baliatzea.»

Bost. 15 ter artikulu berri bat gehitu da, eta honela idatzita geratuko da:

«15 ter artikulua. *Europar Batasuneko kide ez den estatu batean eratu diren eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren babespean estatu kide batean kudeatzaile baimenduek kudeatzen dituzten inbertsio kolektiboko erakundeak Espainian merkaturatzea inbertsiogile profesionalentzat.*

1. 2.1.d) artikuluan aipatu diren IKE-en akzioak eta partaidetzak Espainian inbertsiogile profesionalentzat merkaturatzeko, aldez aurretik Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren aurrean egiaztatu beharko da honako hauek betetzen direla:

a) Espainiako araudiak atzerriko IKE kategoria berbera arautzen duela eta IKEa jatorriko estatuan akziodunen edo partaideen interesak babesteko Espainiako arlo horretako araudiaren antzeko araudi espezifiko baten mendean dagoela.

b) Sozietate kudeatzailearen jatorriko herriko agintari eskudunen eta IKE ezarrita dagoen Europar Batasunaz kanpoko estatuko gainbegiratze-agintarien artean lankidetzako akordio egokiak egotea, gutxienez informazio-elkartruke eraginkor bat bermatzeko, hala agintari eskudunek haien eginkizunak egin ahal izango baitituzte Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren arabera.

c) IKEa ezarrita dagoen herria ez agertzea Kapital Zuriketari buruzko Nazioarteko Finantza Ekintzako Taldeak ezarritako herri eta lurralde ez-laguntzaileen zerrendan.

d) IKEa ezarrita dagoen hirugarren herriak (Europar Batasuneko kide ez denak) Espainiarekin akordio bat sinatuta edukitzea. Akordio horrek guztiz bete behar ditu Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundearen Errentari eta Ondareari buruzko Zerga Hitzarmenaren Ereduaren 26. artikuluan ezarritako aginduak, eta zerga arloko informazioaren benetako elkartrukea bermatu beharko du. Beharrezkoa bada, zergen arloan alde anitzeko akordioak ere egingo dira.

2. Alderdi horiek egiaztatu ondoren, IKEaren kudeatzaileak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalen informazio hau aurkeztu eta erregistratu beharko du:

a) Kudeatzaileak merkaturatu nahi dituen IKE-en identifikazioa, eta IKE horien ezarlekuarena ere bai.

b) Akzioak edo partaidetzak Espainian merkaturatzeko xedapen eta modalitateak, eta bidezkoa bada, partaidetza horien motei edo akzioen serieei buruz.

c) Inbertsio-funtsaren erregelamendua edo sozietatearen eraketa-agiriak.

d) Erakundearen liburuxka, edo agiri baliokidea, halakoa eskatu ahal bada, eta azken urteko txostena.

e) IKEaren gordailuzainaren identifikazioa.

f) IKEaren deskribapena, edo hari buruzko edozein informazio, inbertsiogileen eskura.

g) IKE nagusia ezarrita dagoen lekuari buruzko informazioa, merkaturatu nahi duen IKEa mendeko IKEa bada.

h) Bidezkoa denean, IKEa txikizkako inbertsiogileen artean merkaturatzea eragozteko hartutako neurriei buruzko informazioa.

i) Europar Batasuneko kide ez den estatu batean ezarritako IKEa eta haren kapitala edo ondarea adierazten duten akzio, partaidetza edo baloreak aplikatu daitezkeen araubide juridikoaren mende daudela egiaztatzen duten agiriak.

Paragrafo honetan eta aurrekoan aipatu diren agiri guztiak nazioarteko finantzen esparruan ohikoa den hizkuntza batean aurkeztu beharko dira.

3. Horrez gain, kudeatzaileak, aurreko agiriekin batera, agintari eskudunei eskatu beharko dien egiaztagiria aurkeztu beharko du. Egiaztagiri horrek baieztatu behar du kudeatzaile hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauarekin bat etorritik baimenduta dagoela inbertsio-erakundeak inbertsio-estrategia jakin batekin kudeatzeko.

4. Inbertsio Kolektiboko Erakundearen akzioak edo partaidetzak Espainian merkaturatzeko, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak helburu horretarako baimendu behar ditu, eta kudeatzaileak nahiz merkaturatu nahi diren IKEak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erregistroetan inskribatuta geratu behar dira.

Merkaturatzeko baimena zuzentzeko arrazoiengatik ukatu ahal izango da, jatorriko herrian IKE-ei tratatu baliokidea ez emateagatik, Espainiako balore-merkatuetako antolamendu eta diziplina arauak beteko direla ziurtatuta ez geratzeagatik, Espainian bizi diren inbertsiogileen behar bezalako babesa bermatuta ez egoteagatik eta IKE horien eta Espainian baimendutako IKE-en arteko lehiaren baldintzetan nahasmenduak egoteagatik.

5. IKEak eta haien kudeatzaileak merkaturatzeko Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalen baimendu ondoren, kudeatzaileek, lege honetan eta legea garatzeko araudian ezarrita dagoenaren arabera, IKE horietako akziodun eta partaideei honako hauek erraztu beharko dizkiete: ordainketak; IKE-ek haien akzioak eskuratzea edo haien partaidetzak itzultzea; Espainian bizi diren akziodun

eta partaideei eman behar dizkieten informazioak zabaltzea; eta orokorrean, akziodunek eta partaideek haien eskubideak baliatzea.

Espanian merkaturatzeari eta publizitatea egiteari buruz indarrean dauden xedapen arauemaileak errespetatu beharko dituzte IKE-ek eta haien kudeatzaileek. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ikuskatuko du betebeharroriek noraino betetzen diren.

6. 2.1.d) artikuluan aipatzen diren erakundeen akzioak edo partaidetzak merkaturatzeko baldintza gehigarri batzuk zehaztu ahal izango dira erregelamendu bidez.»

Sei. 15 quater artikulua berri bat gehitu da, eta honela idatzita geratu da:

«15 quater artikulua. *Helbidea Europar Batasunean ez duten kudeatzaileek kudeatutako Inbertsio kolektiboko erakundeen akzio eta partaidetzak inbertsiogile profesionalentzat Espainian merkaturatzea.*

1. 2.1.e) artikuluan aipatu diren IKE-en akzioak eta partaidetzak Espainian inbertsiogile profesionalentzat merkaturatzeko, aldeztatik Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren aurrean egiaztatu beharko da honako hauek betetzen direla:

a) Espainiako araudiak atzerriko IKE kategoria berbera arautzen duela eta IKEa, edo haren izenean jarduten duen kudeatzailea, jatorriko estatuan akziodunen edo partaideen interesak babesteko Espainiako arlo horretako araudiaren antzeko araudi espezifiko baten mende dagoela.

b) IKEaren edo haren izenean jarduten duen kudeatzailearen kontrola eta ikuskapena aginduta dituen jatorriko estatuko agintariaren aldeko txostena, kudeatzailearen jarduerak egiteari dagokionez.

c) Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren, kudeatzailearen jatorriko herriko agintari eskudunen eta IKEa ezarrita dagoen Europar Batasunaz kanpoko estatuko gainbegiratze-agintarien eta, bidezkoa bada, IKEa ezarrita dagoen Europar Batasuneko estatu kideko gainbegiratze-agintarien artean lankidetzako akordio egokiak egotea, gutxienez informazio-elkartruke eraginkor bat bermatzeko, hala agintari eskudunek haien eginkizunak egin ahal izango baitituzte Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren arabera.

d) Kudeatzailea, eta bidezkoa bada, Europar Batasuneko kide ez den estatu batean ezarritako IKEa, ezarrita dauden herria (Europar Batasuneko kide ez dena) ez agertzea Kapital Zuriketari buruzko Nazioarteko Finantza Ekintzako Taldeak ezarritako herri eta lurralde ez-laguntzaileen zerrendan.

2. Alderdi horiek egiaztatu ondoren, IKEaren kudeatzaileak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalan informazio hau aurkeztu eta erregistratu beharko du:

a) Kudeatzaileak merkaturatu nahi dituen IKE-en identifikazioa, eta IKE horien ezarlekuarena ere bai.

b) Akzioak edo partaidetzak Espainian merkaturatzeko xedapen eta modalitateak, eta bidezkoa bada, partaidetza horien motei edo akzioen serieei buruz.

c) Inbertsio-funtsaren erregelamendua edo sozietatearen eraketa-agiriak.

d) Erakundearen liburuxka, edo agiri baliokidea, halakoa eskatu ahal bada, eta azken urteko txostena.

e) IKEaren gordailuzainaren identifikazioa.

f) IKEaren deskribapena, edo hari buruzko edozein informazio, inbertsiogileen eskura.

g) IKE nagusia ezarrita dagoen lekuari buruzko informazioa, merkaturatu nahi duen IKEa mendeko IKEa bada.

h) Bidezkoa denean, IKEa txikizkako inbertsiogileen artean merkaturatzea eragozteko hartutako neurriei buruzko informazioa.

i) Europar Batasuneko kide ez den estatu batean ezarritako kudeatzailea eta, bidezkoa denean, Europar Batasuneko kide ez den estatu batean ezarritako IKEa eta haren kapitala edo ondarea adierazten duten akzio, partaidetza edo baloreak aplika daitekeen araubide juridikoaren mendean daudela egiaztatzen duten agiriak.

paragrafo honetan eta aurrekoan aipatu diren agiri guztiak nazioarteko finantzen esparruan ohikoa den hizkuntza batean aurkeztu beharko dira.

3. Inbertsio Kolektiboko Erakundearen akzioak edo partaidetzak Espainian merkaturatzeko, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak helburu horretarako baimendu behar ditu, eta kudeatzaileak nahiz merkaturatu nahi diren IKEak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erregistroetan inskribatuta geratu behar dira.

Merkaturatzeko baimena zuhurtziazko arrazoiengatik ukatu ahal izango da, edo, IKEaren jatorriko herria Europar Batasuneko estatu kide bat ez bada, jatorriko herrian IKE-ei edo Espainiako kudeatzaileei tratu baliokidea ez emateagatik, Espainiako balore-merkatuetako antolamendu eta diziplina arauak beteko direla ziurtatuta ez geratzeagatik, Espainian bizi diren inbertsiogileen behar bezalako babesa bermatuta ez egoteagatik eta IKE horien eta Espainian baimendutako IKE-en arteko lehiaren baldintzetan nahasmenduak egoteagatik.

4. IKEak eta haien kudeatzaileak merkaturatzeko Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalen baimendu ondoren, kudeatzaileek, lege honetan eta legea garatzeko araudian ezarrita dagoenaren arabera, IKE horietako akziodun eta partaideei honako hauek erraztu beharko dizkiete: ordainketak; IKE-ek haien akzioak eskuratzea edo haien partaidetzak itzultzea; Espainian bizi diren akziodun eta partaideei eman behar dizkieten informazioak zabaltzea; eta, orokorrean akziodunek eta partaideek haien eskubideak baliatzea.

Espainian merkaturatzeari eta publizitatea egiteari buruz indarrean dauden xedapen arauemaileak errespetatu beharko dituzte IKE-ek eta haien kudeatzaileek. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ikuskatuko du betebeharrorik noraino betetzen diren.

5. 2.1.e) artikuluan aipatzen diren IKE-en akzioak edo partaidetzak merkaturatzeko baldintza gehigarri batzuk zehaztu ahal izango dira erregelamendu bidez.»

Zazpi. 15 quinquies artikulua berri bat gehitu da, eta honela idatzita geratu da:

«15 quinquies artikulua. 2.1.f) artikuluan aipatzen diren IKE-en akzio eta partaidetzak inbertsiogile ez-profesionalentzat Espainian merkaturatzea.

1. 2.1.f) artikuluan aipatu diren IKE-en akzioak eta partaidetzak Espainian inbertsiogile ez-profesionalentzat merkaturatzeko, aldezturik Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren aurrean egiaztatu beharko da 15 quater artikuluko 1. paragrafoko baldintzak betetzen direla.

2. Alderdi horiek egiaztatu ondoren, kudeatzaileak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalen agiri hauek aurkeztu eta erregistratu beharko ditu:

a) Kudeatzaileak merkaturatu nahi dituen IKE-en identifikazioa, eta IKE horien ezarlekuarena ere bai.

b) Akzioak edo partaidetzak Espainian merkaturatzeko xedapen eta modalitateak, eta bidezkoa bada, partaidetza horien motei edo akzioen serieei buruz.

c) Inbertsio-funtsaren erregelamendua edo sozietatearen eraketa-agiriak.

d) Informazio-liburuxka eta inbertsiogilearentzako funtsezko datuak biltzen dituen agiria; horiek biak –baita agirion argitalpena bera ere– Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak onetsi beharko ditu.

e) IKEaren gordailuzainaren identifikazioa.

f) IKEaren deskribapena, edo hari buruzko edozein informazio, inbertsiogileen eskura.

g) IKE nagusia ezarrita dagoen lekuari buruzko informazioa, merkaturatu nahi duen IKEa mendeko IKEa bada.

h) Europar Batasuneko kide ez den estatu batean ezarritako kudeatzailea eta, bidezkoa denean, Europar Batasuneko kide ez den estatu batean ezarritako IKEa eta haren kapitala edo ondarea adierazten duten akzio, partaidetza edo baloreak aplika daitekeen araubide juridikoaren mendean daudela egiaztatzen duten agiriak.

i) IKEaren finantza-egoerak eta horiei dagokien kontuen auditoretzako txostena, IKE horri aplikatu ahal zaion legeriaren arabera prestatuak.

3. Artikulu honetan azaldu diren agiri guztiak haien gaztelaniazko itzulpenarekin batera edo Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak onartutako beste hizkuntza batean aurkeztu beharko dira.

4. Inbertsio Kolektiboko Erakundearen akzioak edo partaidetzak Espainian merkaturatzeko, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak helburu horretarako baimendu behar ditu, eta kudeatzaileak nahiz merkaturatu nahi diren IKEak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erregistroetan inskribatuta geratu behar dira.

Merkaturatzeko baimena zuhurtziazko arrazoiengatik ukatu ahal izango da, edo, IKEaren edo kudeatzailearen jatorriko herria Europar Batasuneko estatu kide bat ez bada, jatorriko herri horretan IKE-ei edo haien Espainiako kudeatzaileei tratu baliokidea ez emateagatik, Espainiako balore-merkatuetako antolamendu eta diziplina arauak beteko direla ziurtatuta ez geratzeagatik, Espainian bizi diren inbertsiogileen behar bezalako babesa bermatuta ez egoteagatik eta IKE horien eta Espainian baimendutako IKE-en arteko lehiaren baldintzetan nahasmenduak egoteagatik.

5. IKEak eta haien kudeatzaileak merkaturatzeko Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalean baimendu ondoren, kudeatzaileek, lege honetan eta legea garatzeko araudian ezarrita dagoenaren arabera, IKE horietako akziodun eta partaideei honako hauek erraztu beharko dizkiete: ordainketak; IKE-ek haien akzioak eskuratzea edo haien partaidetzak itzultzea; Espainian bizi diren akziodun eta partaideei eman behar dizkieten informazioak zabaltzea; eta, orokorrean akziodunek eta partaideek haien eskubideak baliatzea.

Espainian merkaturatzeari eta publizitatea egiteari buruz indarrean dauden xedapen arauemaileak errespetatu beharko dituzte IKE-ek eta haien kudeatzaileek. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ikuskatuko du betebeharrak horiek noraino betetzen diren.

6. Ahalmenak dituen bitartekariak, II. tituluko III. kapituluaren xedatuta dagoenaren arabera, Espainian bizi diren atzerriko IKEko akziodun edo partaideei doan entregatu beharko die inbertsiogileentzat funtsezkoak diren datuak dituen agiria, edo antzeko agiri bat, eta IKEaren urteko eta sei hilekoko txostena, bai eta funtsaren kudeaketako erregelamendua edo, bidezkoa bada, sozietatearen estatutuak. Agiri horiek gaztelaniara itzulita edo Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak onartutako beste hizkuntza batean emango dira.

7. 2.1.f) artikuluan aipatzen diren IKE-en akzioak edo partaidetzak merkaturatzeko baldintza gehigarri batzuk zehaztu ahal izango dira erregelamendu bidez.»

Zortzi. 16. artikulua izenburua aldatu egiten da; aurrerantzean, honela egongo da idatzita:

«16. artikulua. *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/UE Zuzentarauak araututako Espainiako IKE-en akzioak eta partaidetzak Europar Batasuneko esparruan merkaturatzea.*»

Bederatzi. 16 bis artikulua berri bat erantsi da, eta hauxe dio:

«16 bis artikulua. *Europar Batasunaren eremuan Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/UE Zuzentarauak arautzen ez dituen eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren babespean Espainian baimenduta dauden sozietate kudeatzaileek kudeatzen dituzten IKEak merkaturatzea.*

1. Lege honen babespean baimendutako Espainiako IKESKek, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/UE Zuzentarauak arautzen ez dituen IKEen akzioak edo partaidetzak Europar Batasunaren eremuan merkaturatu nahi dituzte, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinarazpen-idazki bat bidali beharko diote. Idazki horretan informazio hau bildu beharko da:

- a) Merkaturatu nahi diren IKE-en identifikazioa, eta IKE horien ezarlekuarena ere bai.
- b) IKEaren akzioak edo partaidetzak merkaturatu nahi ditueneko estatu kideetan merkaturatzeko xedapen eta modalitateak, eta bidezkoa bada, partaidetza horien motei edo akzioen serieei buruz.
- c) Inbertsio-funtsaren erregelamendua edo sozietatearen eraketa-agiriak.
- d) Erakundearen liburuxka edo agiri baliokidea, eta azken urteko txostena.
- e) IKEaren gordailuzainaren identifikazioa.
- f) IKEaren deskribapena, edo hari buruzko edozein informazio, inbertsiogileen eskura.
- g) IKE nagusia ezarrita dagoen lekuari buruzko informazioa, merkaturatu nahi duen IKEa mendeko IKEa bada.
- h) IKEa inbertsiogile profesionalen artean merkaturatu nahi duen estatu kidearen zehaztapena.
- i) Bidezkoa denean, IKEa txikizkako inbertsiogileen artean merkaturatzea eragozteko hartutako neurriei buruzko informazioa.

2. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak egiaztatuko agiri guztiak daudela. 20 laneguneko epean, 1. paragrafoan azaldu den dokumentazio-espeditente osoa jasotzen denetik aurrera, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak espeditente hori IKEa merkaturatu nahi deneko edo direnoko estatuko edo estatuetako agintari eskudunei bidaliko die. Baliabide elektronikoen bitartez bidaliko dira.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak jakinarazpen-idazkiarekin batera egiaztagiria bat bidaliko du. Egiaztagiria horretan baieztatu egingo da sozietate kudeatzailea IKEak inbertsio-estrategia zehatz horrekin kudeatzeko baimenduta dagoela Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren arabera.

3. Jakinarazpen-espeditentea bidali ondoren, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak berehala sozietate kudeatzaileari jakinaraziko dio. Kudeatzaileak IKEa harrerako estatu kidean merkaturatzeari ekin ahal izango dio jakinarazpen horren datatik aurrera.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak IKEa ezarrita dagoen estatu kideko agintari eskudunei jakinaraziko die kudeatzaileak harrerako estatu kidean IKEaren partaidetzak merkaturatzeari ekin ahal diola.

1. paragrafoan aipatu den jakinarazpen-idazkia eta 2. paragrafoan aipatu den egiaztatzea nazioarteko finantzen esparruan ohikoa den hizkuntza batean gutxienez aurkeztu beharko dira.

4. 1. paragrafoaren arabera jakinarazitako datuetako bat nabarmen aldatuz gero, kudeatzaileak horren berri emango dio idatziz Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari, aldaketa benetan egin baino hilabete lehenago gutxienez, aldaketa aurreikusita badago, edo aldaketa hori gertatu eta berehala, ustekabeko aldaketa bat izanez gero.

Aurreikusitako aldaketaren ondorioz, kudeatzaileak IKEaren kudeaketa lege honetan aurreikusita dagoenaren arabera egiten ez badu, edo orokorrean, kudeatzaileak legea lehenagotik betetzen ez badu, agintari eskudunek justifikaziorik gabeko luzamendurik gabe kudeatzaileari jakinaraziko dio ezin duela aldaketa aplikatu.

Aurreikusitako aldaketa aurreko paragrafoei kalterik egin gabe aplikatzen bada, edo aldaketa bat eragin duen ustekabeko gertakari bat jazo bada, eta aldaketa horren ondorioz kudeatzaileak IKEaren kudeaketa lege honetan aurreikusita dagoenaren arabera egingo ez badu, edo kudeatzaileak lege hau betetzeari utzi ahal badio, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak egokiak diren neurri guztiak hartuko ditu; beharrezkoa bada, IKEa merkaturatu dadila espresuki debekatu ahal izango du.

Aldaketak onargarriak badira, kudeatzaileak IKEa kudeatzeko modua eta lege hau bat etortzeari dagokionez eraginik ez dutelako, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak justifikatu gabeko luzamendurik gabe aldaketa horien berri emango die harrerako estatu kideko agintari eskudunei.

Hamar. 17. artikuluko 4. eta 6. paragrafoak aldatu egin dira, eta honela geratu dira idatzita:

«4. Urteko txostena honakoez osatuta egongo da: urteko kontuak, kudeaketa-txostena, dagokion audiotre-txostena, 46 bis artikuluan aipatzen den ordainketei buruzko informazioa eta erregelamendu bidez zehazten diren beste informazio guztiak, informazio esanguratsu guztia biltzeko. Hala, inbertsiogileak jardueraren bilakaerari eta erakundearen emaitzei buruz iritzia eman ahal izango du, jakinaren gainean egonda.»

«6. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak artikuluko honetan azaltzen diren agiri guztien eredu normalizatuak ezarriko ditu.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak erregistro bat artatuko du, honakoak bilduko dituena: liburuxkak, inbertsiogileentzat funtsezkoak diren datuak dituzten agiriak, IKE-en urteko, sei-hilekoko eta hiruhilekoko txostenak. Jendeak erregistro hori eskuratzeko aukera izango du.

Aurreko paragrafoetan aipatu diren agiri guztiak, jendaurrean zabaltzen diren aldi berean, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari bidaliko zaizkio, aurreko paragrafoan aipatu diren erregistroak eguneratuta edukitzeko. Liburuxkaren eta inbertsiogilearentzako funtseko datuak biltzen dituen agiriaren kasuan, agiri horiek zabaltzeko Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak aurretiaz erregistratu beharko ditu, 10.6 artikuluan xedatuta dagoenaren arabera. Funtsen kasuan, inbertsiogilearentzako funtseko datuak biltzen dituen agiria erregistratzeko, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak aurretiaz egiaztatuko beharko ditu.

paragrafo honetako bigarren eta hirugarren paragrafoetatik eratortzen diren betebeharrak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/UE Zuzentarauaren eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren babespean Europar Batasuneko beste estatu kide batean baimendutako sozietate kudeatzaileei ere aplikatuko zaizkie, baldin eta Espainian baimendutako IKE baten kudeaketa-jardueran aritzen badira.»

Hamaika. Legearen 26. artikuluko 3. paragrafoa aldatu da; aurrerantzean honela egongo da idatzita:

«3. Inbertsio-sozietateen kasuan, bategite-prozesuek Merkataritza-sozietateen egitura-aldaketei buruzko apirilaren 3ko 3/2009 Legean xedatuta dagoena bete beharko dute, lege honetan eta lege hau garatzen duen araudian xedatuta ez dagoen guztian.

Bat egiteko prozedura hasiko da bategitean parte hartzen duen sozietate bakoitzeko administratzaileek bategiteko baterako proiektua adostu ondoren. Proiektu hori, erregelamenduz zehaztuko den gainerako informazioarekin batera, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari eman beharko diote, baimena eman dezan. Baimen hori Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari eskatuko zaio administrazio-kontseiluak bategitea erabaki ondoren, eta apirilaren 3ko 3/2009 Legean ezarrita dagoen bezala bategite-proiektuaren publizitateari buruzko baldintzak bete baino lehen.

Baimena, aurreikusitako bategitearen buruzko informazio egoki eta zehatzarekin batera (informazio hori erregelamendu bidez zehaztuko da), eraginpean dauden sozietate guztietako akziodunei jakinarazi beharko zaie apirilaren 3ko 3/2009 Legean ezarrita dagoen bezala bategite-proiektuaren publizitateari buruzko baldintzak bete ondoren. Horretarako prozedura jakin bat bete beharko da, jaso beharrekoa sozietatearen agirietan ageri den helbidean jasotzen dela bermatzeko.

Bategitea nahitaez adostu beharko du bategite horretan parte hartzen duen sozietate bakoitzeko batzar nagusiak, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak bategitea baimendu ondoren.

Behin betiko truke-ekuazioa kalkulatzeko, bategiteko eskritura publikoa egiletsi aurreko eguneko likidazio-balioak eta zirkulazioko akzioen kopurua hartuko dira oinarri. Ondorio horietarako, baliozkoa izango da inbertsio-sozietateko administrazio-kontseiluko idazkariak edo sozietate kudeatzaileko administrazio-kontseiluko idazkariak edo kontseilari eskuordetuak egindako egiaztagiria.

Bat egiteko proiektuaren edukia erregelamendu bidez garatuko da.»

Hamabi. III. tituluko I. kapituluko 1. atalaren izenburua aldatu da; honela geratuko da idatzita:

«1. atala. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/UE Zuzentaraua betetzen duten IKE-ei eta antzeko finantza-izaerako beste IKE batzuei aplikatu ahal zaizkien xedapen orokorrak»

Hamahiru. III. tituluko I. kapituluan 3. atala gehitu da; ondorengoa diote:

«3. atala. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/UE Zuzentaraua betetzen ez duten finantza-izaerako beste IKE batzuei aplikatu ahal zaizkien xedapen orokorrak»

Hamalau. III. tituluko I. kapituluan 3. atal berrian 33 bis artikulua berria gehitu da; honako hau dio:

«33 bis artikulua. Inbertsio Askeko IKEak.

Inbertsio Askeko IKEak dira 23. artikuluko printzipioak erregelamenduz zehazten den bezala betetzen dituzten finantza-izaerako IKEak.

Halaber, erregelamenduz zehaztuko dira gai diren aktiboak, inbertsioei buruzko erregelak, eta IKE horiek hirugarrenen aurrean dituzten betebeharrak.

Inbertsio Askeko IKE-ek hirugarrenei kredituak eman ahal izango dizkiete.

«Inbertsio Askeko Funtsa» edo «Inbertsio Askeko Sozietatea» izendapenak, edo haien siglak, «IAF» edo «IAS», lege honetan eta legea garatzeko araudian ezarrita dagoenaren arabera baimendutako, eraturako eta erregistratutako erakundeek soilik erabili ahal izango dituzte.»

Hamabost. III. tituluko I. kapituluan 3. atal berrian 33 ter artikulua berria gehitu da; honako hau dio:

«33 ter artikulua. *Inbertsio Askeko IKE-en IKEak.*

Lege honetan araututa dauden Inbertsio Askeko IKE-en IKEak dira finantza-izaerako IKEei buruzko arauen mendean dauden IKEak, erregelamendu bidez zehazten diren salbuespenekin.

«Inbertsio Askeko IKE-en IKEa» edo haren sigla, «IAIKEIKE», lege honetan eta legea garatzeko araudian ezarrita dagoenaren arabera baimendutako, eraturako eta erregistratutako erakundeek soilik erabili ahal izango dituzte.»

Hamasei. 34 artikulua aldatu eta honela geratu da idatzia:

«34. artikulua. *Kontzeptua.*

Finantza-izaera ez duten IKEak dira III. tituluko I. kapituluan aurreikusita ez daudenak.»

Hamazazpi. 40. artikuluko 1. eta 2. paragrafoak aldatu egin dira, eta honela geratu dira idatzita:

«1. IKESKak sozietate anonimoak dira. Haien sozietate-xedeak dira inbertsio-funtsen eta inbertsio-sozietateen inbertsioak kudeatzea, arriskuak kontrolatu eta kudeatzea, harpidetza eta itzulketak administratu, ordezkatu eta kudeatzea.

Gainera, sozietate kudeatzaileak honako jarduera hauek egiteko baimendu ahal izango dira:

a) Inbertsio-zorroren zuhurtziako eta banakako kudeaketa, barne direla pentsio-funtsei dagozkienak, inbertsiogileek edo legez baimendutako pertsona batek emandako aginduaren arabera, baldin eta zorro horien barruan Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 2. artikuluan aurreikusitako tresna bat edo batzuk badaude.

b) Arrisku-kapitaleko erakundeak, Inbertsio Kolektibo Itxiko Erakundeak, Europako Kapital Arriskuko Funtsak (EKAF) eta Europako Gizarte Ekintzailetzako Funtsak (EGEF) administratu, ordezkatu, kudeatu eta merkaturatzea, Arrisku-kapitaleko erakundeak, inbertsio kolektibo itxiko bestelako erakundeak eta inbertsio kolektibo itxiko erakundeen erakunde kudeatzaileak arautzen dituen eta azaroaren 4ko 35/2003 Legea –Inbertsio kolektiboko erakundeena– aldatzen duen azaroaren 12ko 22/2014 Legean ezarrita dagoen bezala.

2. Artikulu honetako 1. paragrafoan xedatuta dagoena gorabehera, sozietate kudeatzaileak honako jarduera osagarri hauek ere egiteko baimendu ahal izango dira:

a) Balore Merkaturari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 2. artikuluan aurreikusitako tresna bateko edo batzuetako inbertsioei buruzko aholkularitza.

b) Inbertsio-funtsetako partaidetzak eta, bidezkoa bada, EKAFen eta EGEFen inbertsio-sozietateen akzioak zaindu eta administratzea.

c) Bezeroen aginduak jaso eta transmititzea, finantza-tresna bati edo batzuei buruz.

Betiere, paragrafo honetako jarduerak egiteko baimena emateko, sozietate kudeatzaileak aurreko 1. paragrafoko a) idatzi-zatian aipatutako zerbitzuak emateko baimena izan behar du.»

Hemezortzi. 41. artikuluko 1., 2. eta 4. paragrafoak aldatu dira eta honela geratu dira idatzita:

«1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eman beharko du baimena, aurretiaz, IKESK bat sortzeko. Eratu ondoren, jarduerari ekiteko, Merkataritza Erregistroan eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erregistroan inskribatu beharko dira.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak Baloreen eta Merkatuaren Europako Agintaritzari emango dio emandako edo errebokatutako baimen bakoitzaren berri, erregelamendu bidez zehazten den aldizkakotasunarekin.

2. Baimenaren eskariarekin batera, ezartzen diren agiriak aurkeztu beharko dira, besteak beste –eta nahitaez– estatutuen proiektua, eta sozietatearen antolaketa-egitura zehaztasunez azalduko duen memoria bat, egin beharreko jardueren eta izango dituen baliabide teknikoek eta giza baliabideen zerrenda, erakundearen administrazio- edo zuzendaritzako karguak izango dituztenen zerrenda, bai eta pertsona horien ohorearen eta profesionaltasunaren egiaztapena, sozietatean partaidetza adierazgarria duten akziodunen nortasuna, akziodunak zuzenekoak zein zeharkakoak edo pertsona fisikoak edo juridikoak izan, partaidetza horren zenbatekoa aipatuta, eta orokorrean, kapitulu honetan ezarritako baldintza eta eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko egokitzat jotzen diren datu, txosten edo aurrekari guztiak.

Halaber, baimenaren eskarian, sozietate kudeatzaileek, erregelamendu bidez zehazten denaren arabera, informazio hau bildu beharko dute:

a) Goi-zuzendaritzako kideei, arriskuak beren gain hartzeko arduradunei, kontrol-zereginak egiten dituztenei eta aurrekoen ordainketa-talde berean dauden langile guztiei ordaintzeko politika eta jardunbideak. Politika eta jardunbide horiek arriskuaren kudeaketa arrazoizko eta eraginkorrekarekin bat etorri beharko dute; bide horretatik, kudeatzen diren bitartekoen arrisku-profilarekin bateragarriak ez diren arriskuak ez dira hartuko, 60. artikuluan xedatuta dagoenaren arabera.

b) Zereginak hirugarrenei eskuordetzeko eta azpieskuordetzeko hartutako xedapenei buruzko informazioa.

4. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren baimenaren ebazpena, kasu guztietan arrazoitua izan behar dena, hiru hilabeteren barruan jakinarazi beharko da, eskaria aurkezten denetik edo eska daitezkeen agiriak osatzen direnetik aurrera zenbatuta.

Epe horiek hiru hilabete luzatu ahal izango dira beharrezkotzat jotzen denean, IKESKari alde aurretik jakinarazi bazaio. Epe hori igarota, ebazpen espresurik eman ez bada, eskabidea onartutzat joko da administrazio-isilbidez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 92. artikuluan aurreikusitako ondorioekin.»

Hemeretzi. 41 bis artikulua berri bat erantsi da, eta hauxe dio:

«41 bis artikulua. *Salbuespen kasuak.*

1. IKESKak lege honen betebeharretako batzuk betetzeaz salbuetsita geratu ahal izango dira, erregelamendu bidez xedatzen denaren arabera, baldintza hauek betetzen direnean:

a) Inbertsio-erakundeak soilik kudeatzea eta haien kudeaketapeko aktiboak 100 milioi eurotik beherakoak izatea, palanka-efektua erabiliz eskuratutako aktiboak barne direla, edo

b) 500 milioi eurotik beherakoak, kudeatzen dituzten inbertsio-erakundeek palanka-efekturik jasan ez badute eta hasierako inbertsioaren datatik aurrera zenbatutako bost urteko epean baliatu ahal den itzulketa-eskubiderik ez badute.

Atalaseak kalkulatzeko, IKESKaren kudeaketapeko aktibo gisa konputatuko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren arabera eraturako inbertsio-erakundeetako aktibo guztiak, sozietate kudeatzaileak berak zuzenean kudeatzen dituenak nahiz zeharka, baterako kudeaketaren edo kontrolaren arrazoiengatik kudeatzailearekin harremana duen enpresa baten bitartez, edo zuzeneko edo zeharkako partaidetza handi baten bitartez.

2. Aipatu diren kudeatzaileek Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari kudeatzen dituzten IKE-en berri eman beharko diote, eta inbertsio-estrategiei buruzko informazioa ere eman. Halaber, aldian-aldian informazioa emango diote Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari inbertitzen duteneko tresnarik behinenei buruz, bai eta arrisku eta kontzentrazioerik behinenei buruz, lege hau garatzeko araudian ezarrita dagoen bezala.

3. Kudeatzaile horiek, 1. paragrafoan ageri diren baldintzak betetzeari uzten diotenean, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari horren berri eman beharko diote.

4. Artikulu honetako 1. paragrafoan aurreikusita dagoena ez zaie aplikatuko IKEak inbertsiogile ez-profesionalentzat merkaturatzen dituzten IKESKei.

Ondorio horietarako, IKESK-ek Batzordearen 2012ko abenduaren 19ko 231/2013 zenbakidun Erregelamendu Eskuordetuan (EB) ezarrita dagoena bete beharko dute.»

Hogei. Paragrafo berri bat eranstean zaio 46. artikuluari: 5. paragrafoa. Honela geratzen da idatzita:

«5. Horrez gain, eta Batzordearen 2012ko abenduaren 19ko 231/2013 zenbakidun Erregelamendu Eskuordetuan (EB) ezarrita dagoenari kalterik egin gabe, erregelamendu bidez sozietate kudeatzaileen betebeharrak ezarri ahal izango dira, besteak beste, honako arlo hauetan:

- a) Ordainketarako politika eta jardunbideak.
- b) IKEaren kudeaketan sortu ahal diren interes-gatazkek detektatzeko, saihesteko, kudeatzeko eta kontrolatzeko hartu beharko dituzten neurriak.
- c) Arriskuaren kudeaketa egokia. Bereziki, sozietate kudeatzaileak, IKE-en aktiboen kaudimena ebaluatzean, ez dira egongo Kreditu-kalifikazioko agentziei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko irailaren 16ko 1060/2009 Erregelamenduaren 3. artikuluko 1. paragrafoko b) idatzi-zatian definituta dauden kreditu-kalifikazioko agentziek emandako kreditu-kalifikazioen mende, ez eskusiboki, ez automatikoki.
- d) Likideziaren kudeaketarako sistema egoki bat bermatzeko neurriak.»

Hogeita bat. 46 bis artikulua berri bat erantsi da, eta hauxe dio:

«46 bis artikulua. *Ordainketa-politikei buruzko informazioa.*

1. IKESKek, urteko txostenean, honako informazio hau argitaratu beharko dute haien ordainketa-politikei buruz:

a) Sozietate kudeatzaileak bere langileei ordaindutako kopuru guztiak, honela banakaturik: ordainketa finko eta aldakorak, onuradunen kopurua eta, bidezkoa denean, IKESKak kudeaketatik konpentsazio gisa jasotako IKEaren etekinetako partaidetza oinarritzen diren ordainketak, eta bazter utzita IKESKak IKEan inbertitutako kapitalaren etekin gisa jasotako IKEaren etekinetako partaidetza guztiak.

b) Ordainketaren zenbateko agregatua, sozietate kudeatzaileko goi kargudunen eta langileen artean banakaturik, baldin eta horien jarduketak eragina badauka IKEaren arrisku-profilean.

2. Ordainketa arloko politika osoa finkatu eta aplikatzean, soldatak eta pentsioen zuhurtziazko hobariak ere kontuan izanik, langileriaren kategoria horietan, eta barnean direla goi-zuzendaritzako kargudunak, arriskuak hartzeko arduradunak eta kontrol-eginkizunak betetzen dituztenak, eta goi-zuzendaritzako kargudunen eta arriskuak hartzeko arduradunen ordainketa-talde berean sartzeko moduko ordainketa osoa jasotzen duten langile guztiak, baldin eta haien lanbide-jarduerak eragin garrantzitsua badute IKESKen edo haiek kudeatzen dituzten IKE-en arrisku-profilean, IKESKek jarraian azalduko diren printzipioei jarraituko diete, kontuan hartuta haien dimentsioak, haien barne-antolaketa eta haien jardueren izaera, norainokoa eta konplexutasuna:

a) Ordainketa arloko politika arriskuaren kudeaketa osasuntsu eta eraginkorrenekin bat etorriko da, mota horretako kudeaketa bideratuko du eta ez du pizgarririk eskainiko arrisku-profilekin, funtsen arauekin edo kudeatzen dituzten IKE-en estatutuekin bateraezinak diren arriskuak hartzeko.

b) Ordainketa arloko politika, haiek kudeatzen dituzten IKESKaren eta IKE-en enpresa-estrategiarekin, helburuekin, balioekin eta interesekin bateragarria izango da, eta interes-gatazkak saihesteko neurriak ere izango ditu.

c) Zuzendaritza-organoak, IKESKaren gainbegiratze-eginkizuna betez, ordainketa arloko politikaren printzipio orokorrak finkatuko ditu, aldizka berrikusiko ditu eta printzipioak aplikatzearen ardura ere izango du.

d) Gutxienez urtean behin, ordainketa arloko politikaren aplikazioaren barneko ebaluazio zentrala eta independentea egingo da, zuzendaritza-organoak gainbegiratze-eginkizuna betez ezarritako politikak eta ordainketa arloko prozedurak betetzen diren egiaztatzeko.

e) Arriskuen kudeaketan parte hartzen duten langileei haien eginkizunei lotutako helburuak lortzearen araberako konpentsazioa emango zaie, haiek kontrolatutako negozio-eremuetan lortzen diren emaitzak edozein direla ere.

f) Arriskuak kudeatzeaz arduratzen diren eta bete beharreko helburuak dituzten goi-zuzendaritzako kideen ordainsariak zuzenean ikuskatuko ditu ordainsari-batzordeak.

g) Ordainketa emaitzei lotuta dagoenean, ordainketaren zenbateko osoa ateratzeko oinarri gisa bi ebaluazio dira. Ebaluazio batean pertsonaren emaitzak eta negozio-unitatearenak edo eraginpeko IKE-enak eta IKESKaren emaitza orokorrak konbinatuko dira, eta beste ebaluazioan emaitza indibidualak hartuko dira kontuan, finantza arloko zein finantzaz bestelako irizpideei jarraituz.

h) Emaitzen ebaluazioa zenbait urtetako esparruaren arabera egingo da, IKESKak kudeatzen duen IKEaren bizitza-zikloaren arabera, ebaluazio-prozesua epe luzeko emaitzetan oinarritzen dela bermatzeko. Halaber, bermatuko da emaitzetan oinarritutako ordainsari-osagaien likidazio eraginkorra kudeatzen duen IKEaren itzulketa-politika eta inbertsio-arriskuak kontuan hartzen dituen epealdian.

i) Ordainketa aldakorra salbuespenezko kasuetan soilik bermatu ahal izango da, langile berrien kontratazioa egonez gero, eta lehenengo urtean soilik.

j) Ordainketa osoan, osagai finkoak eta osagai aldakorrak behar bezala orekatuta egongo dira; osagai finkoa ordainketa osoaren zati nahiko handia izango da; horrela, ordainketaren osagai aldakorren politika erabat malgua izango da, non eta ordainketaren osagai aldakor bat ere ez ordaintzea gerta daitekeen.

k) Kontratuak aurretiaz etenez gero egin beharreko ordainketak denboran zehar lortutako emaitzetan oinarrituko dira, eta ez dira emaitza txarrak sarituko.

l) Emaitzak neurtzean, ordainketaren osagai aldakorrak edo ordainketaren osagai aldakorren loteak kalkulatzeko, doikuntzarako mekanismo oso bat txertatuko da oraingo eta etorkizuneko arrisku mota guztiak integratzeko.

m) IKEaren legezko egituraren eta eraketako erregelamendu edo agirien arabera, zati nabarmen bat, gutxienez edozein ordainketa aldakorren % 50, dena delako IKEaren partaidetzak izango dira, edo jabetzaren interes baliokideak, edo akzioei lotutako tresnak, edo eskudirua ez diren tresna baliokideak, baldin eta

IKEaren kudeaketa ez bada IKESKak kudeatutako zorro osoaren % 50 gutxienez; hala izanez gero, ez da aplikatuko gutxieneko % 50 hori.

Tresna horiek atxikipen-politika egoki baten mendean daude. Politika horren helburua da pizgarriak eta kudeatzen dituzten IKESKen eta IKE-en interesak eta IKE-en kudeatzaileak lerrotzea da.

n) Zati nabarmen bat, gutxienez ordainketa aldakorreko osagaiaren % 40, egokia den epe batean geroratuko da, dena delako IKEaren bizitza-zikloaren eta itzulketako politikaren arabera, eta dena delako IKEaren arriskuen izaerari behar bezala egokituko zaio.

Aurreko paragrafoan hizpide den epea hiru eta bost urte bitartekoa izango da gutxienez, baldin eta dena delako IKEaren bizitza-zikloa laburragoa ez bada; ordaindu beharreko ordainketa geroratze-xedapenen arabera ez da hartuko azkarrago, modu proportzionalan baino; kopuru nabarmen handia duen ordainketa aldakorreko elementu baten kasuan, gutxienez % 60 geroratuko da.

ñ) Ordainsari aldakorra, geroratutako zatia barnean hartuta, ordainduko da edo eskuratuko da soilik iraunkortasuna badu, IKESKaren finantza-egoera orokorrari erreparatuta, eta IKEaren negozio-unitatearen eta dagokion pertsonaren emaitzen arabera justifikatuta badago.

Ordainketa aldakor osoa orokorrean modu nabarmenean murriztuko da IKESKak edo IKEak finantza-emaitza kaskarrak edo negatiboak lortzen badituzte, kontuan hartuta gaur egungo ordainketa eta lehenago lortutako zenbatekoen ordainketen murrizketa, baita penalizazio- edo berreskurapen-xedapenen bitartez ere.

o) Pentsio-politika bateragarria izango da IKESKaren eta kudeatzen dituen IKE-en enpresa-estrategiarekin, helburuekin, balioekin eta epe luzeko interesekin.

Enpleguak erretiroa hartu aurretik uzten badu IKESKa, pentsio-onura diskrezionalak beretzat gordeko ditu IKESKak bost urtez, m) idatzi-zatian definitutako tresna gisa. Enplegu bat erretiroa hartzeko adinera iritsiz gero, pentsio-onura diskrezionalak ordainduko zaizkio, m) idatzi-zatian adierazitako tresna gisa, bost urteko atxikipen-aldia lotuta.

p) Langileek hitz emango dute ez dutela erabiliko arriskuen estaldurako estrategia pertsonalik edo erantzukizunarekin zerikusia duen aseguruari, haien ordainketa-araubidean txertatuta dauden arriskuen lerrotzeko ondorioak ahalizeko helburuz.

q) Ordainketa aldakorra ez da ordainduko lege honetan eta legearen erregelamendu-garapenak ezartzen dituzten baldintzak izurtzeko tresna edo metodoen bidez.

3. 2. paragrafoan azaldu diren printzipioak honako hauei aplikatuko zaizkie: IKIESKak ordaintzen duen edozein ordainketa-motari; IKEak zuzenean ordaindutako edozein zenbatekori, interes metatuak barnean direla; eta langileriaren kategoria jakin batzuen alde egiten diren IKEaren partaidetzen transferentzia guztiei; langileriaren kategoria horien barnean daude goi-zuzendaritzako kargudunak, arriskuak hartzeko arduradunak eta kontrol-eginkizunak betetzen dituztenak, eta goi-zuzendaritzako kargudunen eta arriskuak hartzeko arduradunen ordainketa-talde berean sartzeko moduko ordainketa osoa jasotzen duten langile guztiak, baldin eta haien lanbide-jarduerek eragin garrantzitsua badute IKIESKaren edo haiek kudeatzen dituzten IKE-en arrisku-profilean.

4. IKIESK garrantzitsuek, haien tamaina edo kudeatzen dituzten IKE-en garrantzia edo haien barneko antolaketa eta haien jardueren garrantzia, norainokoa edo konplexutasuna kontuan hartuta, ordainketen batzordea eratuko dute. Batzorde hori eratzean, kontuan hartuko da ordainketa arloko arau eta jardunbideak eta arriskuen kudeaketarako ezarritako pizgarriak gaitasunez eta independentziaz ebaluatzeko gai izan behar dela.

Ordainketen batzordea arduratuko da ordainketei buruzko erabakiak prestatzeaz, barnean direla dena delako IKIESKaren edo IKEaren arriskurako edo

arriskuen kudeaketarako ondorioak dituztenak. Erabaki horiek zuzendaritza-organok hartu beharko ditu, gainbegiratze-eginkizuna betez. Ordainsari-batzordeko burua dena delako IKESKean betearazpen-eginkizunik egiten ez duen zuzendaritza-organoko kide bat izango da. Ordainsari-batzordeko kideak zuzendaritza-organoko kideak izango dira, eta dena delako IKESKean ez dute betearazpen-eginkizunik beteko.

5. Erregelamendu bidez garatu ahal izango dira artikulua honetan jasotako printzipioak.»

Hogeita bi. 47 bis artikulua berri bat erantsi da, eta hauxe dio:

«47 bis artikulua. *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren babespean baimendutako sozietate kudeatzaileek kudeatutako IKE-ek sozietateen partaidetza adierazgarriak eta kontrola eskuratzearen ondoriozko betebeharrak.*

1. IKESKak, gehienez 10 laneguneko epean, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinarazi beharko dio emaitza gisa atera den boto-eskubideen ehunekoa, IKE batek kotizatu gabeko sozietate baten akzioak edo partaidetzak eskuratzen edo zuzenean nahiz zeharka eskualdatzen baditu, bai banaka bai akordio bat oinarri hartuta beste IKE batzuekin edo haien IKESKekin batera, eta baldin eta negozio juridiko horien emaitza gisa daukaten boto-eskubideen proportzioa % 10, % 20, % 30, % 50 edo % 75eko atalaseetara heltzen edo horietatik gora igotzen bada edo atalase horietatik behera murrizten bada.

2. Haien kudeaketapeko IKE batek kotizatu gabeko sozietate baten akzioak edo partaidetzak eskuratzen edo zuzenean nahiz zeharka eskualdatzen baditu, bai banaka bai akordio bat oinarri hartuta beste IKE batzuekin edo haien IKESKekin batera, eta baldin eta eskurapen horren emaitza gisa kotizatu gabeko sozietatearen boto-eskubideen % 50 baino gehiago lortzen badu, IKESKak betebeharrak bete beharko ditu:

a) Horren berri eman beharko dio Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari, kotizatu gabeko sozietateari, bai eta bazkideei ere, haien nortasunak eta helbideak badakizki edo eskuratutako sozietatearen edo erregistro baten bitartez horien berri badu. Jakinarazpena gehienez 10 languneko epean egin beharko da. Jakinarazpen horretan informazio hau bildu beharko da:

1.a Ondorioz sortu den egoera, boto-eskubideei dagokienez.

2.a Kontrola eskuratu deneko baldintzak, honako hauek azalduta: eraginpean dauden bazkideen nortasuna, haien izenean boto-eskubidea baliatzeko ahalmena duten pertsona fisiko edo juridiko guztiena eta, bidezkoa bada, boto-eskubideak beten baliatzeko bitarteko gisa erabiltzen diren sozietateen katea.

3.a Kontrola hartu den data.

b) Informazio hori Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari eman beharko dio, kotizatu gabeko sozietateari, bai eta bazkideei ere, haien nortasunak eta helbideak badakizki edo eskuratutako sozietatearen edo erregistro baten bitartez horien berri badu.

1.a Nortasuna.

2.a Interes-gatazkak prebenitu eta kudeatzeko politika, bereziki, IKEaren eta kotizatu gabeko sozietatearen arteko interes-gatazkei dagokienez, barnean dela beraren, IKEaren eta kotizatu gabeko sozietatearen artean egindako akordio guztiak elkarrekiko independentzia-egoeretan egin dela bermatzeko ezarritako babes espezifikoetako buruzko informazioa.

3.a Kotizatu gabeko sozietateari dagokion kanpoko eta barneko komunikazio-politika, bereziki, langileei dagokienez.

c) Eskurapenaren finantzaketari buruzko informazioa eman beharko die Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari eta IKEko akziodun eta partaideei.

d) Bermatu beharko du IKEak, edo berak, horien kontura jarduten duenean, kotizatu gabeko sozietateari eta haren bazkideei informazioa eman diezaiela kotizatu gabeko sozietatearen etorkizuneko jardueri dagokienez dituen asmoei buruz eta jarduera horiek enpleguan izango duten eraginari buruz, enpleguaren baldintzen aldaketa guztiak barne direla.

e) Kontrola eskuratu duen IKEaren urteko txostenean kotizatu gabeko sozietateari buruz informazio hau bildu beharko du:

1.a Ekitaldia amaitu ondoren sozietatearentzat garrantzia izan duten gertakarien azalpena,

2.a Sozietatearen negozioen bilakaeraren azalpen fidela. Azalpen horretan, txostenaren xede den ekitaldiaren amaieran dagoen egoera azalduko da,

3.a Sozietateak izan dezakeen bilakaera.

4.a Akzio propioak eskuratu badira, uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 148.d) artikuluan aipatzen den informazioa.

3. Aurreko paragrafoaren kasuan, IKESKak, kotizatu gabeko sozietateari jakinarazpena bidaltzean, administrazio-kontseiluari eskatuko dio langileen legezko ordezkariari informazioa eman diezaiela IKEak kontrola eskuratu izanari buruz eta paragrafo horretako a), b), d) eta e) idatzi-zatietan aurreikusitako informazioa haien eskura jar dezala.

4. 2. paragrafoan aurreikusitako kasuan, gainera, IKESKak ondoko muga hauek bete beharko ditu kotizatu gabeko sozietateari dagokionez 24 hilabeteko epean, IKEak kontrola eskuratzen duenetik aurrera:

a) Ezin egingo du kapital-murrizketako eragiketarik, harpidetutako sozietate-kapitala murriztuz galerak konpentsatzea edo erreserba eskuragarriak handitzea helburu duten eragiketak bazter utzita, baldin eta eragiketa horren ostean handitutako erreserbaren zenbatekoa gehienez murriztu ondoren harpidetutako kapitalaren % 10etik gorakoa bada.

b) Ezin erabakiko du dibidenduen banaketa honako egoera hauetako bat gertatzen bada:

1.a Azken ekitaldia amaitzean, ondare garbiaren zenbatekoa harpidetutako kapitala baino txikiagoa bada edo emaitzen banaketaren ondorioz kapital hori (gehi legearen eta estatutuen arabera eskuragarriak diren erreserbak) baino txikiagoa bada. Ondorio horietarako, harpidetutako eta ordaindu gabeko kapitala balantzearen aktiboan konputatu ez bada, bere zenbatekoa harpidetutako kapitaletik kendu beharko da.

2.a Dibidenduen banaketa amaitutako azken ekitaldiko emaitzen zenbatekoa gehi banatu gabeko etekinak eta helburu hori duten erabilera askeko erreserbei egotzitako gastuak ken metatutako galerak eta legearen eta estatutuen arabera eskuragarriak diren erreserben kargurako zuzkidurak baino handiagoa bada.

c) Ezin erabakiko du akzio edo partaidetza propioak bazkideentzako itzulketen bidez eskuratzea edo amortizatzea, baldin eta eskurapenaren ondorioz ondare garbiaren zenbatekoa aurreko b) idatzi-zatiko 1. zenbakian aurreikusitako zenbatekotik behera geratzen bada. Ondorio horietarako, sozietateak lehenago eskuratutako akzio edo partaidetak eta bere izenean baina sozietatearen kontura jarduten duen pertsona batek eskuratutakoak ere konputatuko dira. Akzio edo partaidetza propioak eskuratu ahal badira, eskurapen horrek uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 140.1 eta 144.b), c) eta d) artikuluetan xedatutakoa bete beharko du.

5. IKESKak beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko ditu kotizatu gabeko sozietateak aurreko paragrafoan azaldu diren eragiketak egin ditzala eragozteko, eta administrazio-kontseiluan ordezkari badauka, boto-eskubidea baliatuko du eragiketa horiek saihesteko.

6. 2.b) paragrafoan aurreikusitako informazio-betebeharra eta 4. eta 5. paragrafoetan bildutako debeku eta betebeharrak ere aplikatu beharko dira baldin eta IKE batek bigarren mailako merkatu arautu batean edo Europar Batasunean helbideratutako beste merkatu arautu batean onartutako balioak dituen jaulkitzaile baten kontrola eskuratzen badu bai banaka bai akordio bat oinarri hartuta beste IKE batzuekin edo haien IKESKekin batera. Ondorio horietarako, kontrolaren eskurapena Balore Merkatuei buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen arabera zehaztuko da.

7. Aurreko paragrafoetan ezarritako boto-eskubideen ehunekoak kalkulatzeko, boto-eskubideak ematen dituzten akzio edo partaidetza guztiak ere konputatuko dira, eskubide horiek baliatzeko aukera etenda badago ere, bai eta akzioak eskuratzeko eskubidea ematen duten beste finantza-tresna batzuk ere, baldin eta horiek boto-eskubidea ematen badute.

8. Artikulu honetan ezarritako betebehar eta murriztapenak egoera hauetan ez dira aplikatuko:

a) IKEa Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/UE Zuzentarauaren arabera baimendu bada.

b) Kotizatu gabeko sozietateak edo jaulkitzaileak honako hauek direnean:

1.a Mikroenpresen eta enpresa txiki eta ertainen definizioari buruzko Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioaren eranskineko 2. artikuluko 1. paragrafoaren arabera enpresa txiki eta ertain gisa hartzen diren erakundeak, edo

2.a ondasun higiezinak eskuratu, eduki edo administratzeko sortutako helburu bereziko erakundeak.

9. Erregelamendu bidez zehaztuko da artikulu honetan aurreikusitako betebeharren eta mugen norainokoa.

Hogeita hiru. 50. artikulua aldatu egin da, eta honela idatzita geratuko da:

«50. artikulua. *Errebokatzeko prozedura.*

1. Baimena errebokatzeko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean aurreikusita dagoen prozedura erkidea hartuko da kontuan, berezitasun hauekin:

a) Hasteko eta bideratzeko erabakia Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak hartu beharko du. Hark beharrezkotzat jotzen dituzten behin-behin-behineko neurri guztiak hartu ahal izango ditu, besteak beste kudeatutako IKE-en kudeaketa beste IKIESK bati agintzea.

b) Espedientea Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ebatzi behar du.

c) Espedientea sei hilabeteko epean ebatziko da gehienez.

2. Dena dela, errebokatzeko kausa aurreko artikuluko a), b) edo c) idatzi-zatietan aurreikusita daudenetako bat bada, nahikoa izango da erakunde interesdunari entzunaldia ematea. g) idatzi-zatian aurreikusitako kasuetan lege honetan aurreikusita dauden prozedura espezifikoek jarraitu beharko zaie.

3. Errebokatzeko erabakitzen duen ebazpena berehala beteko da. Jakinarazi ondoren, sozietate kudeatzaileak ezin egingo du bere sozietate-xedearekin lotutako jarduketari gehiago. Ebazpena Merkataritza Erregistroan inskribatu beharko da, eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren erregistroan. Halaber, Estatuko

Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta une horretatik aurrera ondorioak sortuko dira hirugarrenei dagokienez.

4. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak erabaki ahal izango du errebokatzearen ondorioz erakundea nahitaez desegitea. Kasu horietan, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, inbertsiogileak babesteko, egokitzat jotzen dituen kautelazko neurri guztiak erabaki ahal izango ditu, eta bereziki honako hauek:

a) Eskudiruaren, balore negoziagarrien eta gainerako finantza-tresnen, ondasunen eta kudeatutako eskubideen kudeaketa beste sozietate bati intsuldatzeko erabakia hartu.

b) Likidatzaileak izendatu.

c) Bazkideei edo sozietateak izendatutako likidatzaileei berme espezifikoren bat eskatu.

d) Likidazio-eragiketetan esku hartu. Agindu honetan edo lege honen beste agindu batzuetan aurreikusitakoaren arabera, likidazio-eragiketan likidatzaileak edo kontu-hartzaileak izendatu behar badira, lege honen VI. tituluko III. kapituluan aurreikusten dena aplikatu beharko da.

5. Sozietate kudeatzaile batek desegitea erabakitzen badu Kapital Sozietateen Legean aurreikusitako kausetariko batengatik, baimena errebokatu dela ulertuko da, eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, behar bezala likidatzeko, artikuluko 4. paragrafoan azaltzen diren neurrietako bat erabaki ahal izango du.

6. Helbidea Europar Batasuneko estatu kide batean duen sozietate bati emandako baimena errebokatuz gero, Espainian jarduten duen sukurtsalaren baimena ere errebokatuko da.

7. Helbidea Europar Batasuneko estatu kide batean duen sozietate kudeatzaile bati emandako baimena errebokatzearen ondorioz, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak berehala egokiak diren neurriak hatuko ditu, erakundeak Espainian jarduera gehiago ez hasteko eta inbertsiogileen interesak gordetzeko, bai eta, bidezkoa bada, agintari gainbegiratzaile eskudunarekin –eta haren ahalmenei kalterik egin gabe– likidazioa agintzeko egokiak diren aurreikuspenak hartuko ditu.»

Hogeita lau. 54. artikulua izenburua aldatu egin da; aurrerantzean, honela egongo da idatzita:

«54. artikulua. *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/UE Zuzentarauak arautzen dituen eta Espainian baimenduta dauden sozietate kudeatzaileen mugaz haraindiko jarduera.*»

Hogeita bost. 54 bis artikulua berri bat erantsi da, eta hauxe dio:

«54 bis artikulua. *Espainian baimendutako sozietate kudeatzaileek inbertsio kolektiboko erakundeak mugaz haraindi kudeatzeko baldintzak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentaruaren arabera.*

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentaruaren arabera Espainian baimenduta dauden IKESKek beste estatu kide batean ezarritako IKEak kudeatu ahal izango dituzte, zuzenean edo sukurtsal bat ezarriz, baldin eta IKESKa mota horretako IKEak kudeatzeko baimenduta badago.

2. Kudeatzaile batek, beste estatu kide batean ezarritako IKEak lehenengo aldiz kudeatzeko asmoa badu, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari informazio hau jakinaraziko dio:

- a) IKEa zuzenean edo sukurtsal bat ezarriz zein estatu kidean kudeatu nahi duen eta
- b) jardueren programa bat. Programa horretan, eman nahi diren zerbitzuak adieraziko dira, bereziki, eta kudeatu nahi diren IKEak identifikatuko dira.

3. Kudeatzaileak sukurtsal bat ezarri nahi badu, informazio hau emango du, 2. paragrafoan aurreikusita dagoenaz gain:

- a) Sukurtsalaren antolaketa-egitura,
- b) IKEaren jatorrizko estatu kideko helbidea, zeinetan agiriak lortu ahal diren, eta
- c) sukurtsalaren kudeaketaz arduratzen diren pertsonen izena eta harremanetarako xehetasunak.

4. 2. paragrafoan azaldu diren agiriak osorik jaso eta hilabeteko epean, edo agiriak 3. paragrafoarekin bat etorri osorik jaso eta bi hilabeteko epean, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak agiri horiek harrerako estatu kideko agintari eskudunei bidaliko dizkie. Hori egingo du baldin eta kudeatzaileak lege honen xedapenen arabera kudeatzen baditu IKEak, eta hala egiten jarraitzen badu eta kudeatzaileak lege honen xedapenak betetzen baditu.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak egiaztagiri bat erantsiko du. Egiaztagiri horretan azalduko du kudeatzailea Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren arabera baimendu dela. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak berehala kudeatzaileari emango bidalketa horren berri.

Bidalketaren jakinarazpena jaso ondoren, kudeatzailea bere zerbitzuak harrerako estatu kidean ematen hasi ahal izango da.

5. 2. paragrafoaren eta, bidezkoa bada, 3. paragrafoaren arabera jakinarazi diren datuetako bat aldatzen bada, kudeatzaileak aldaketa horren berri idatziz emango dio Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari, aldaketa hori benetan egin baino hilabete lehenago gutxienez, edo berehala, aldaketa ustekabekoa bada.

Aurreikusitako aldaketaren ondorioz, kudeatzaileak IKEaren kudeaketa lege honen xedapen baten edo gehiagoren arabera egingo ez badu, edo orokorrean, kudeatzaileak lege honen bat edo gehiago betetzen ez badu, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak justifikaziorik gabeko luzamendurik gabe kudeatzaileari jakinaraziko dio ezin duela aldaketa aplikatu.

Aurreikusitako aldaketa lehenengo eta bigarren paragrafoen kalterako aplikatzen bada, edo aldaketa bat eragin duen ustekabeko gertakari bat jazo bada, eta aldaketa horren ondorioz kudeatzaileak IKEaren kudeaketa lege honetan aurreikusita dagoenaren arabera egingo ez badu, edo kudeatzaileak lege hau betetzeari utzi ahal badio, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak egokiak diren neurri guztiak hartuko ditu.

Aldaketak onargarriak badira, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak luzamendurik gabe aldaketa horien berri emango die harrerako estatu kideko agintari eskudunei.»

Hogeita sei. 55. artikulua izenburua aldatu egiten da; aurrerantzean, honela egongo da idatzita:

«55. artikulua. 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EE Zuzentarauak Europar Batasuneko beste estatu kide batean baimendutako sozietate kudeatzaileak.»

Hogeita zazpi. 55 bis artikulua berri bat erantsi da, eta hauxe dio:

«55 bis artikulua. *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauak araututako eta Europar Batasuneko beste estatu kide batean baimendutako sozietate kudeatzaileek Espainiako IKEak kudeatzeko baldintzak.*

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren babespean Europar Batasuneko estatu kide batean baimenduta dauden sozietate kudeatzaile guztiek IKEak Espainian kudeatu ahal izango dituzte, zuzenean edo sukurtsal bat ezarriz, baldin eta kudeatzailea mota horretako IKEak kudeatzeko baimenduta badago.

2. Europar Batasuneko beste estatu kide batean baimendutako sozietate kudeatzaileak jarduerak Espainian lehenengo aldiz egiten hasi ahal izango dira Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak sozietate kudeatzailearen jatorriko estatu kideko agintari eskudunaren jakinarazpena jaso duenean, lege honen 54 bis.2 eta 3 artikuluan azaltzen den bezala.

3. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak Espainiako lurraldean sukurtsalak dauzkaten edo zerbitzugintza askearen araubidean jarduten duten sozietate kudeatzaileei eskatu ahal izango die informazioa eman diezaiotela, kudeatzaileek lege honen eta legea garatzen duen araudiaren arabera aplikatu ahal zaizkien arauak betetzen dituzten kontrolatzeko. Europar Batasuneko beste estatu kide batean baimenduta dauden eta jarduera Espainian sukurtsal baten bitartez egiten duten sozietate kudeatzaileek betiere VI. tituluan eta garapen-araudian ezarritako jokabide-arauak errespetatuko dituzte. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala arduratuko da xedapen horiek noraino betetzen diren gainbegiratzeaz.

4. Europar Batasuneko beste estatu kide batean baimenduta dauden eta jarduera Espainian zerbitzugintza askearen araubidean egingo duten sozietate kudeatzaileek zerga-egoitza Espainian duen ordezkari bat izendatu beharko dute, Espainiako lurraldean egiten dituzten jarduerengatik bete behar dituzten zerga-betebeharren ondorioetarako ordezkari ditzan.

5. IKEan arazoren bat badago, sozietate kudeatzaileak legezko edo erregelamenduzko betebeharrak behar bezala betetzeko duen ahalmenari kalte egingo diona, eta arazo horrek Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren gainbegiratze-esparruan eragina badu, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak horren berri emango die sozietate kudeatzailearen jatorriko estatu kideko agintari eskudunei luzamendurik gabe.

6. Europar Batasuneko beste estatu kide batean baimenduta dauden eta jarduera Espainian sukurtsal baten bitartez egiten duten sozietate kudeatzaileen agintari eskudunek, beren kabuz edo ondorio horretarako izendatzen dituzten bitartekarien bidez, eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinarazi ondoren, Espainian tokian bertan egiaztapenak egin ahal izango dituzte. Egiaztapena sozietate kudeatzaileen kudeaketari eta jabetzaren egiturari buruzko informazio guztiari buruz egingo da, baldin eta informazio horrek gainbegiratzea errazten badu, eta kontrola erraztu ahal duen informazio guztiari buruz ere bai.

Aurreko paragrafoa gorabehera, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak Espainian ezarrita dauden sukurtsalen egiaztapenak tokian bertan egin ahal izango ditu, legeek esleitzen dizkieten erantzukizunak bete aldera.»

Hogeita zortzi. 56. artikulua aldatu egin da, eta honela idatzita geratuko da:

«56. artikulua. *Helbidea Europar Batasunean ez duten sozietate kudeatzaileak.*

1. Helbidea Europar Batasunean ez duten sozietate kudeatzaile batek Espainian sukurtsala ireki nahi badu, titulu honetako II. kapituluaren aurreikusitako aurretiazko baimen-prozedura aplikatuko zaio, erregelamendu bidez ezartzen diren egokitzapenekin. Zerbitzuak sukurtsalik gabe eman nahi baditu, erregelamendu

bidez ezartzen diren modu eta baldintzetan baimendu beharko da. Kasu bietan baimena ukatu edo baldintzatu ahal izango da, zuhurtziazko arrazoiengatik, Espainiako erakundeei jatorriko herrian tratu baliokidea eman ez zaielako, edo lege honetan eta legea garatzeko erregelamenduan ezarritako araudia betetzen dela ziurtatuta geratu ez delako, haien funtzionamenduan lege hori bete behar baitute.

2. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak aurretzako baimena ere eman beharko du Espainiako sozietate kudeatzaile bat sortzeko, edo Espainiako sozietate kudeatzaileen talde batek atzerriko sozietate kudeatzaile bat sortzeko, edo lehendik dagoen sozietate kudeatzaile baten partaidetza eskuratzeko, baldin eta atzerriko sozietate kudeatzaile hori Europar Batasuneko kide ez den estatu batean erata edo helbideratuta badago. Eskabidean bildu behar den informazioa erregelamendu bidez zehaztuko da.

3. Erkidegoaz kanpoko sozietate kudeatzaileak baimentzeko baldintzak erregelamendu bidez zehaztuko dira erreferentzia-estatua Espainia bada.»

Hogeita bederatzia. 56 bis artikulua berri bat erantsi da, eta hauxe dio:

«56 bis artikulua. *Hirugarren estatu batean ezarrita dauden eta Europar Batasuneko estatu kideetan merkaturatzen ez diren inbertsio kolektiboko erakundeak kudeatzen dituzten inbertsio kolektiboko erakundeen sozietate kudeatzaileei aplikatu beharreko baldintzak.*

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren babespean baimenduta dagoen IKESK batek helbidea Europar Batasuneko kide ez den estatu batean duen eta Europar Batasunean merkaturatzen ez den IKE bat kudeatu ahal izango du, baldintza hauek betetzen baditu:

a) IKESKak lege honetan ezarritako baldintza guztiak betetzea, IKE horiei dagokienez gordailuzaina izendatzeko betebeharra –11.1 f) artikuluan aipatzen dena– eta urteko txostenaren auditorerantz egiteko betebeharra –17. artikuluan aipatzen dena– izan ezik.

b) Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren eta IKEa ezarrita dagoen Europar Batasunaz kanpoko estatuko gainbegiratze-agintarien artean lankidetzakordioak egotea, gutxienez informazio-elkartruke eraginkor bat bermatzeko, hala Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eginkizunak egin ahal izango baititu lege honetan ezarrita dagoenaren arabera.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentzuan ezarrita dagoenaren arabera, kudeatzaile horiek legearen zein beste baldintzatatik salbuetsi ahal diren zehaztu ahal izango da erregelamendu bidez.»

Hogeita hamar. 58. artikulua aldatu egin da, eta honela idatzita geratuko da:

«58. artikulua. *Izendapena eta bateraezintasunak.*

1. Bankuak, aurrezki-kutxak, kreditu-kooperatibak sozietateak eta balore-agentziak izan ahal izango dira gordailuzain. Eragiketak zein merkaturatzen egingo dituzten, merkatu horietan horiek guztiak konpentsazio-, likidazio- eta erregistro-sistemetan erakunde partaideak izan beharko dira, berez partaide gisa edo beste erakunde partaide baten bitartez. Azken kasu horretan, erakunde partaideak hirugarrenen kontua banakatuta izan beharko du.

Gordailuzainak bere sozietate-helbidea edo, bidezkoa bada, sukurtsal bat, Espainian izan beharko du.

Hirugarren herrietan ezarritako IKE-en gordailuzainek bete behar dituzten baldintzak erregelamendu bidez zehaztuko dira.

Gordailuzainak kreditu-kalifikazioko agentzia batek emandako kreditu-kalifikazioa badauka, hori agerraraziko da seihilekoko eta hiruhilekoko txostenetan, eta azalduko da agentzia hori Europar Batasunean ezarrita eta Kreditu-kalifikazioko

agentziei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko irailaren 16ko 1060/2009 Erregelamenduan xedatuta dagoenaren arabera erregistratuta dagoen, edo, Europar Batasuneko kide ez den estatu batean ezarrita egonez gero, baliokidetzan oinarritutako egiaztapena jaso duen, aipatu den erregelamenduaren arabera.

2. Erakunde bakoitzak gordailuzain bakarra izango du. Erakunde bat ezin izango da aldi berean erakunde berberaren kudeatzailea eta gordailuzaina, aukera hori salbuespenez onartzen den arauzko kasuetan izan ezik.

3. Gordailuzaina izendatzeko kontratu idatzi bat egingo da. Kontratuak hainbat gauza arautuko du, besteak beste gordailuzainak zein sozietate edo funtserako izendatu den gordailuzain, sozietate edo funts horrentzat eginkizunak betetzeko beharrezkotzat jotzen den informazio-fluxua, lege honetan ezarrita dagoen bezala.»

Hogeita hamaika. Legearen 60. artikulua g) eta h) idatzi-zatiak aldatuko dira; aurrerantzean honela egongo dira idatzita:

«g) IKE-en jabetzako aktiboen gordailutze- edo administrazio-eginkizunak betetzea, eta eginkizun horiek zuzenean betetzen ez dituztenean erantzukizuna hartzea. Zaindu ahal diren finantza-tresnen berezko betebeharrak edo zaintza-eginkizunaren modua erregelamendu bidez garatuko dira. Betebehar horiek eta modu hori, gordailuzainaren liburuetan irekitako finantza arloko tresnen kontu batean agerrarazten direnak izango dira, bai eta gordailuzainari fisikoki entregatzen zaizkion guztiak. IKEaren jabetzako beste aktibo batzuk gordailutzeko eginkizuna ere egingo du, eta gordailuzainak horietarako jabetzaren egiaztapena egingo du eta erregistro batean mantenduko du, baita IKE-en atzerriko balioen gordailua egiten duten erakundeek bete behar dituzten eskakizunak ere.

h) Beste edozein eginkizun egitea babes eta zaintza eginkizunak ahalik eta ondoen betetzeko edo eginkizun horien osagarri gisa, besteak beste diruzaintzako fluxuen kontrola bermatzea eta likidazio-balioaren kalkulua aplikatu daitekeen legediarekin eta erregelamenduekin edo funtsaren edo sozietatearen eraketa-agiriekin bat etorritik egiten dela egiaztatzea.»

Hogeita hamabi. Aldatu egiten da 60 bis artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«60 bis artikulua. *IKE-etako gordailuzainen gordailutze-eginkizunak eskuordetzan ematea.*

IKEaren gordailuzainak hirugarrenei eskuordetzan eman ahal izango die IKEaren aktiboak gordailutzeko eginkizuna, 60.g) artikuluan definitzen dena, eta hirugarren horiek era berean eginkizun hori azpieskuordetzan eman ahal izango dute, baldin eta hirugarrenak lege honetan eta legea garatzeko araudian ezarrita dauden gordailuzainaren eskakizun guztiak betetzen baditu, erregelamenduz zehaztu ahal doiren salbuespenekin, eta gordailuzainak erregelamendu bidez zehaztu ahal izango diren baldintza batzuk errespetatzen baditu, besteak beste eskuordetzan emateko arrazoi objektibo bat dagoela frogatu ahal izatea.»

Hogeita hamahiru. 62. artikulua aldatu eta honela geratu da:

«62. artikulua. *Gordailuzainen erantzukizuna.*

1. Gordailuzainek beti modu independentean jardungo dute, IKE-en inbertsiogileen interesen alde, eta haien betebeharrak prestutasunez bete beharko dituzte, enpresaburu ordenatu eta ordezkari leial baten moduan.

Gordailuzainek haien eginkizunak betetzeko behar duten informazio guztia eskatu ahal izango diote sozietate kudeatzaileari.

Gordailuzainak zaintzan dituen aktiboen jabe diren erakundeen kudeaketan anomaliarik ikusten badu, horien berri eman beharko dio nahitaez Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari.

Gordailuzainak bere eginkizunak betetzean lortu duen informazio guztia Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari bidali beharko dio, eskaria egin ondoren, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak informazioa behar badu IKEak indarreko araudia betetzen duen gainbegiratzeko.

2. Legezko betebeharrak nahita ez betetzeagatik edo zabarkeriaz jokatzegatik partaideei edo akziodunei kaltea eragiten bazaie, gordailuzainak arduradun izango dira. Gordailuzainak sozietate kudeatzaileari nahitaez erantzukizuna exijitu beharko dio bere zereginak partaideen izenean egitean.

Gordailuzainak arduratuko dira IKE-en aktiboak gordailutzeaz, aktiboen zati bat edo aktibo guztiak gordailutzea hirugarrenen baten eskura jarri arren.

Gordailuzainak berak edo zaintza-eginkizuna eskuordetzan eman dion hirugarren batek zaindu daitezkeen finantza-aktiboak galdu baditu, partaideen edo akziodunen aurrean gordailuzainak erantzungo du.

3. Galerak zaindutako finantza-tresnei eragiten badie, gordailuzainak berandutu gabe itzuli beharko dio IKEari antzeko ezaugarriak dituen finantza-tresna bat, edo dagokion kopurua. Galera hori arrazoizko kontroletik kanpo dagoen kanpoko gertakari batengatik gertatu dela eta saihesteko ahaleginak eginagatik ondorioak saihestezinak zirela frogatu ahal bada, gordailuzainak ez du erantzukizunik izango.

Erregelamendu bidez, paragrafo hau aplikatzeko baldintzak zehaztu ahal izango dira.»

Hogeita hamalau. 62 bis artikulua berri bat erantsi da, eta hauxe dio:

«62 bis artikulua. *Gordailuzainaren erantzukizunaren transferentzia.*

1. Gordailuzainaren erantzukizunari ez diote kalterik egingo 60 bis artikulua arabera egin daitezkeen eginkizunen eskuordetzek. Hala ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EE Zuzentarauaren arabera baimendutakoez bestelako IKE-en gordailuzaintzat, 60 bis artikulua arabera hirugarren batek zaindutako finantza-tresnak galduz gero, gordailuzainak ez du erantzukizunik zango hau frogatu ahal bada:

a) Bere zaintza-eginkizunak eskuordetzan emateko baldintza guztiak betetzen direla, 60 bis artikuluan aurreikusten den bezala.

b) Gordailuzainaren eta hirugarren horren artean kontratu idatzi bat dagoela eta kontratu horren bidez gordailuzainaren erantzukizuna espresuki hirugarren bati transferitzen zaiola eta IKEa –edo bidezkoa bada, kudeatzailea– baimentzen dela hirugarrenaren aurka erreklamazio bat aurkezteko finantza-tresnen galerarengatik, edo gordailuzaina baimentzen dela haren izenean erreklamazio hori aurkezteko.

c) Gordailuzainaren eta IKEaren edo, bidezkoa bada, kudeatzailearen artean kontratu idatzi bat dagoela eta kontratu horren bidez gordailuzaina erantzukizunetik salbuesten dela eta erantzukizunaren salbuespen hori sinatzeko arrazoi objektiboa ezartzen dela.

Aurreko c) idatzi-zatian azaldu diren arrazoi objektiboei dagokienez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011/61/UE Zuzentaruua salbuespenei, jardueran aritzeko baldintza orokorrei, palanka-efektuari, gardentasunari eta gainbegiratzeari buruz osatzen duen Batzordearen 2012ko abenduaren 19ko 231/2013 zenbakidun Erregelamendu Eskuordetuan xedatuta dagoenari men egingo zaio.

2. Hirugarren herri bateko legeriak exijitzen badu finantza-tresna jakin batzuk tokiko erakunde batek zaindu ditzala eta lege honetan eta legea garatzeko araudian benetako arauketa baten eta zuhurtziazko gainbegiratze baten mendean egoteari eta finantza-tresnak eta gainerako balioak bere jabetzapean daudela egiaztatzeko modua ematen duten aldizkako kanpoko auditoretzen mendean egoteari dagokionez –nahitaezko gutxieneko kapitala barne dela, dena delako eremuan–

gordailuzainari eskatu ahal zaizkion baldintzak betetzen dituen erakunde bat ere ez badago, gordailuzaina erantzukizunetik salbuesita geratu ahal izango da baldintza hauek betetzen badira:

a) Erregelamenduak, estatutuek, edo IKEaren eraketa-agiriek erantzukizun-salbuespen hori espresuki baimentzea.

b) Inbertsioa egin aurretik IKEko inbertsiogilek informazioa behar bezala jasotzea erantzukizun-salbuespen horri eta salbuespena justifikatzen duten inguruabarrei buruz.

c) IKEak, edo, bidezkoa bada, IKESKak, gordailuzainari eskatu izana finantza-tresna horien zaintza tokiko erakunde baten esku utz dezala.

d) Gordailuzainaren eta IKEaren edo, bidezkoa bada, IKESKaren artean kontratu idatzi bat egotea, erantzukizun-salbuespen hori espresuki baimentzen duena.

e) Gordailuzainaren eta hirugarren horren artean kontratu idatzi bat egotea eta kontratu horren bidez gordailuzainaren erantzukizuna tokiko erakunde horri espresuki transferitzea eta IKEa –edo bidezkoa bada, IKESKa– baimentzea tokiko erakunde horren aurka erreklamazio bat aurkezteko finantza-tresnen galerarengatik, edo gordailuzaina baimentzea haren izenean erreklamazio hori aurkezteko.

Erregelamendu bidez, artikulua hau aplikatzeko baldintzak zehaztu ahal izango dira.»

Hogeita hamabost. Legearen 71. artikuluko 1. paragrafoa aldatu da; aurrerantzean honela egongo da idatzita:

«1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak 55. artikuluan eta 55 bis artikuluan bilduta dauden erakundeen artean zerbitzugintza askearen araubidean jarduten dutenei eta haien sukurtsalei beharrezkoa den informazioa eskatu ahal izango die, aplikatu ahal den araudia betetzen dela egiaztatzeko. Informazioa besterik gabe estatistika arloko helburuetarako ere eskatu ahal izango die.»

Hogeita hamasei. Aldatu egiten da 71 bis artikulua, eta honela idatzita geratzen da:

«71 bis artikulua. *Mugaz haraindiko merkataritza egiten duten IKE-en gainbegiratzea.*

1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak zentzuzko arrazoiak baditu uste izateko Europar Batasuneko beste estatu kide batean baimenduta dagoen eta 15. edo 15 bis artikuluen arabera akzio edo partaidetzak Espainian merkaturatuta dauzkan IKE edo IKESK batek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/UE Zuzentarautik eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarautik eratorritako betebeharrak hausten dituela, eta horiek gainbegiratzea Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren ardura ez bada, horren berri emango die IKEaren jatorriko estatu kideko agintari eskudunei.

IKEaren edo IKESKaren jatorriko estatu kideko agintari eskudunek hartutako neurriak ezarri arren, edo neurri horiek desegokitzat direlako, edo Estatu kide horrek arrazoizko epe batean ezer ere egin ez duelako, IKEak edo IKESKak IKEaren Espainiako inbertsiogileen interesetarako agi eta garbi kaltegarria den jarduera egiten jarraitzen badu 15. edo 15 bis artikuluen arabera, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak honela jokatu ahal izango du:

a) IKEaren edo IKESKaren jatorriko estatu kideko agintari eskudunei informazioa eman ondoren, inbertsiogileak babesteko egokiak diren neurri guztiak hartu; alde horretatik, aztertu den IKEari edo IKESKari Espainian akzioak edo partaidetzak merkaturatzen jarraitzea eragotzi ahal izango dio.

b) Beharrezkoa izanez gero, auzia Baloreen eta Merkatuen Europako Agintaritzari aurkeztea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren azaroaren 24ko 1095/2010 zenbakidun Erregelamenduaren (EB) –zeinak gainbegiratzeko Europako Agintaritzaren (Baloreen eta Merkatuen Europako Agintaritzaren) sortzen, 716/2009/EE Erabakia aldatzen eta Batzordearen 2009/77/EE Erabakia indargabetzen baitu– 18. artikulua arabera.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak luzamendurik gabe emango die a) idatzi-zatiaren arabera hartutako neurrien berri Europako Batzordeari eta Baloreen eta Merkatuaren Europako Agintaritzari.

2. Espainian baimenduta dagoen eta 16. edo 16 bis artikuluan aipatzen den Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren jakinarazpena jaso duen IKE bati edo sozietate kudeatzaile bati dagokionez, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak Europar Batasuneko estatu kide bateko agintari eskudun batek bidalitako jakinarazpenaren bidez jakiten badu arrazoi sendoak daudela IKE edo kudeatzaile horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/UE Zuzentarautik eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarautik eratorritako betebeharrak hausten dituela, eta horiek gainbegiratzeko Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren ardura bada, egokiak diren neurriak hartuko ditu.»

Hogeita hamazazpi. 71 ter artikuluko 1. eta 2. paragrafoak aldatu dira, eta honela geratu dira idatzita:

«1. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala Europar Batasuneko estatu kideetako agintari eskudunekin lankidetzan arituko da beharrezkoa den bakoitzean, ezarrita dauden eginkizunak betetzeko edo lege honen bidez emandako ahalmenak baliatzeko. Halaber, agintari eskudun horiekin lankidetzan arituko da beharrezkoa denean, ezarrita dauden eginkizunak egiteko edo araudi nazionalak agintari eskudun horiei emandako ahalmenak baliatzeko, araudi nazional horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/UE Zuzentaraua eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentaraua bertako araudira egokitu baditu.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak laguntza emango die gainerako estatu kideetako agintari eskudunei. Bereziki, agintari horiek beren zereginak egin ditzaten beharrezkoa den informazioa emango du berehala, eta ikerketa- edo gainbegiratzeko jardueretan laguntza emango du. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak elkarlan-helburuetarako erabil ditzake bere botereak; baita ikertutako jokabidea Espainian indarrean den araudian arau-hauste ez den kasuetan ere.

Era berean, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala Baloreen eta Merkatuen Europako Agintaritzarekin lankidetzan arituko da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko azaroaren 24ko 1095/2010 zenbakidun Erregelamenduaren (EB) –zeinak gainbegiratzeko Europako Agintaritzaren (Baloreen eta Merkatuen Europako Agintaritzaren) sortzen, 716/2009/EE Erabakia aldatzen eta Batzordearen 2009/77/EE Erabakia indargabetzen baitu– arabera, eta Agintaritzaren horri haren zereginak betetzeko beharrezkoa den informazio guztia emango dio, atzeratu gabe, Erregelamendu horren 35. artikulua arabera.

2. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak zentzuzko arrazoiak baditu susmatzeko berak gainbegiratu behar ez dituen erakundeek Europar Batasuneko beste estatu kide bateko lurraldean Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/UE Zuzentaraua eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentaraua bertako araudira egokitzen dituzten xedapen nazionalen aurkako jarduerak egin dituztela, ahalik eta modu zehatzenean horren berri emango die Baloreen eta Merkatuen Europako Agintaritzari eta estatu kide horretako agintari eskudunei. Balore Merkatuaren

Batzorde Nazionalak erabil ditzakeen eskumenei kalterik egin gabe egingo da jakinarazpen hori.»

Hogeita hemezortzi. 71 sexies artikulua berri bat gehitu da, eta honela idatzita geratu da:

«71 sexies artikulua. *Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren arabera baimendutako sozietate kudeatzaileen jardueraren ondorio sistemikoei buruzko informazioa elkartrukatzea.*

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, egokia denean, eta sozietate kudeatzaileen jardueraren ondorioz sor daitezkeen ondorioak zaintzeko eta ondorio horien aurrean ekiteko, beste estatu kideetako agintari eskudunei informazioa emango die, bai banaka bai taldeka, garrantzi sistemikoa duten finantza-erakundeen egonkortasunerako eta kudeatzaileek haien jardura egiten duten merkatuen funtzionamendu ordenaturako. Baloreen eta Merkatuen Europako Agintaritzari eta Arrisku Sistemikoko Europako Batzordeari ere emango zaie informazio. Haien informazio hori gainerako estatu kideetako agintari eskudunei bidaliko diote. Ondorio horietarako, Batzordearen 2012ko abenduaren 19ko 231/2013 zenbakidun Erregelamendu Eskuordetuan araututa dagoena aplikatuko da. Erregelamendu Eskuordetu horrek 2011/61/UE Zuzentaria garatzen du salbuespenei, jardueran aritzeko baldintza orokorre, gordailuzainari, palanka-efektuari, gardentasunari eta gainbegiratzeari buruz.»

Hogeita hemeretzi. 71 septies artikulua berri bat gehitu da, eta honela idatzita geratu da:

«71 septies artikulua. *Palanka-efektuaren mugak eta kreditu-ebaluazioko prozesuen egokitzapena gainbegiratzea.*

1. Lege hau aplikatuz jasotzen duen informazioa oinarri hartuta eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentariak araututako IKEak kudeatzen dituzten IKESKei dagokienez (berak gainbegiratzen baditu), Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak zehaztuko du erakundeen palanka-efektuak zein neurritaraino laguntzen duen hainbat arrisku sortzen, hala nola arrisku sistemikoa finantza-sisteman, edo merkatuak nahasteko arriskuak edo ekonomia-erakundearen epe luzerako hazkunderako arriskuak.

2. Aurreko paragrafoan aipatu den informazioa gainerako estatu kideetako agintari eskudunen, Baloreen eta Merkatuen Europako Agintaritzaren eta Arrisku Sistemikoko Europako Batzordearen eskura jarri beharko da ezarrita dauden gainbegiratzeko lankidetzako prozeduren bitartez. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentariak araututako IKEak kudeatzen dituzten IKESK batek (Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak horiek gainbegiratu behar baditu), edo IKESK horrek kudeatzen dituen IKE batek, kontrako aldearen arrisku handia sorrarazi ahal badu kreditu-erakunde batentzat edo beste estatu kide batzuetako ondorio sistemikoetarako garrantzitsuak diren beste erakunde batzuentzat, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak luzamendurik gabe informazioa emango du gainbegiratzearen arloko lankidetzako prozeduren bitartez, eta alde bitan, beste estatu kide batzuetako agintari eskudunei zuzenean.

3. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentariak araututako IKEak kudeatzen dituen IKESKak frogatu beharko du kudeatzen dituen bitarteko bakoitzetako palanka-efektuaren mugak arrazoizkoak direla eta berak ezarritako muga horiek uneoro betetzen dituela. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ebaluatuko ditu sozietate kudeatzaile batek berak kudeatzen dituen bitartekoei dagokienez palanka-efektua erabiltzeak ekar ditzakeen arriskuak, eta finantza-sistemaren egonkortasunerako eta

osotasunerako beharrezkotzat jotzen bada, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, Baloreen eta Merkatuen Europako Agintaritzari, Arrisku Sistemikoko Europako Batzordeari eta, bidezkoa bada, IKEaren jatorriarengatik eskudunak diren agintariei jakinarazi ondoren, IKESK batek erabili ahal duen palanka-efektuaren mugak ezarriko ditu, edo beste murriztapen batzuk, kudeaketaren arloan, kudeatzen dituen bitartekoei dagokienez, palanka-efektuak finantza-sistemako arrisku sistemikoa edo merkatuak nahasteko arriskuak sortzeko izan dezakeen eragina mugatzeko. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak Baloreen eta Merkatuen Europako Agintaritzari, Arrisku Sistemikoko Europako Batzordeari eta IKEaren jatorriarengatik eskudunak diren agintariei arlo horretan hartutako neurrien berri emango die behar bezala, gainbegiratzearen arloan ezarrita dauden lankidetzako prozeduren bitartez.

4. 3. paragrafoan azaldu den jakinarazpena proposatutako neurria indarrean jarri edo berritu baino hamar lanegun lehenago gutxienez egingo da. Jakinarazpenean hauek bildu beharko dira: proposatutako neurriaren xehetasunak, neurri hori justifikatzen duten arrazoiak eta neurriak indarrean jartzeko aurreikusitako data. Salbuespenezko inguruabarretan, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak erabaki ahal izango du proposatutako neurria aipatu den hamar laneguneko epearen barruan indarrean jar dadila.

5. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak erabakitzen badu bere jarduera Baloreen eta Merkatuen Europako Agintaritzak aurreko paragrafoetan xedatuta dagoenaren ondorioetarako eta bidali dioten informazioa oinarri hartuta egiten duen gomendioaren aurka egingo duela, horren berri eman beharko du, arrazoiak azalduta.

Ondorio horietarako, sozietate kudeatzaileek Batzordearen 2012ko abenduaren 19ko 231/2013 zenbakidun Erregelamendu Eskuordetuan (EB) ezarrita dagoena bete beharko dute.

6. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak zainduko du IKESKen kreditu-ebaluzioaren prozesuen egokitasuna, haien inbertsio-politiketan kreditu-kalifikazioen erreferentzien erabilera baloratuko du, 46.5 artikuluan ezarrita dagoenaren arabera, eta bidezkoa denean, erreferentzia horien eragina arintzea sustatuko du kreditu-kalifikazio horien mendekotasun eskusibo eta automatikoa murrizte aldera. Ondorio horietarako, IKE-en jardueren izaera, maila eta konplexutasuna kontuan izan beharko ditu.»

Berrogei. 80. artikuluko a, ñ, z quinquies eta z sexies idatzi-zatiak aldatu dira; aurrerantzean honela egongo dira idatzita:

«a. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari ez bidaltzea legean eta legea garatzeko arauetan xedatuta dagoenaren arabera bidali behar zaizkion agiri, datu edo informazioak —edo batzordeak bere zereginak betetzean eskatzen dituenak—, arauetan ezarritako edo batzordeak berak emandako epean, ezkutatzeko edo zabarkeriaz jokatzekeo interesa dagoenean, kontuan hartuta egin ez den komunikazioa eta gertatu den berandutza, eta horren ondorioz eragozten bada erakundearen kaudimena edo, bidezkoa bada, kudeatutako AKE edo IKIE-en ondare-egoeraren azterketa.

Era berean arau-hauste oso larria da Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari informazio osatugabea edo zehaztugabeak edo benetakoak ez diren datuak bidaltzea, kasu horietan okerra nabarmena bada. Okerraren garrantzia zehaztean irizpide hauek hartuko dira kontuan, besteak beste: Ondarearen balorazioan eta erakundearen iguripenetan eragina izan ahal duten inguruabarrak publikoki jakin ahal izatea, bereziki egon daitezkeen berezko arriskuak, eta erakundeak aplikatu daitezkeen araudia betetzen duen ala ez jakin ahal izatea.»

«ñ. Gordailuzainek V. tituluan aurreikusitako eginkizun eta betebeharrak ez betetzea, baldin eta horrela IKE baten partaideei edo akziodunei kalte larria egiten bazaie.»

«z quinquies. IKESKak 54.5 ter eta 54 bis artikuluetan ezarritako betebeharrak ez betetzea, horren ondorioz partaideei edo akziodunen kalte larria egiten bazaie.»

«z sexies. Europar Batasuneko beste estatu kide batean baimendutako IKE-ek 15. eta 15 quinquies bitarteko artikuluetatik eratorritako betebeharrak urratzea, horrek inbertsiogileei edo akziodunei kalte larria eragiten badie.»

Berrogeita bat. 81. artikuluko h, k, z ter eta z quater idatzi-zatiak aldatuko dira; aurrerantzean honela egongo dira idatzita:

«h. Gordailuzainak V. tituluan aurreikusitako eginkizun eta betebeharrak ez betetzea, hori arau-hauste oso larritzat kalifikatu behar ez denean.»

«k. Arau-hauste arinak egitea, baldin eta hori gertatu aurreko bi urteetan egileak administrazio bidean arau-hauste mota beragatik zehapen irmoa jaso badu.»

«z ter. IKESKak 54.5 ter artikuluan aurreikusitako eginkizun eta betebeharrak ez betetzea, eta 54 bis artikulukoak, hori arau-hauste oso larritzat kalifikatu behar ez denean.

z quater. Beste estatu kide batean baimendutako IKE-ek 15. eta 15 quinquies bitarteko artikuluetatik eratorritako betebeharrak urratzea, hori arau-hauste oso larritzat kalifikatu behar ez denean.»

Berrogeita bi. Aldatu egin da 85. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

«85. artikulua. *Zehapenak arau-hauste oso larriak egiteagatik.*

1. Arau-hauste oso larriengatik, zehapen hauetako bat edo gehiago ezarriko zaio arau-hausle den sozietate kudeatzaileari:

a) Isuna, arau-haustea osatu duten egintzen edo ez-egiteen ondorioz lortutako etekin gordinaren zenbatekoa baino gehiago edo gehienez zenbateko hori halako bost egiten duen zenbatekoan. Egindako arau-haustearen ondorioz lortutako etekina kuantifikatu ez denean, gehienez 300.000 euroko isuna.

b) Baimena errebokatzea eta erregistro berezietatik behin betiko baztertzea. Atzerriko erakundeen edo Europar Batasuneko beste estatu kide batzuek baimendutako kudeatzaileen kasuan, errebokatzeko zehapenaren orde, bidezkoa bada, Espainian eragiketarik egiteko edo merkaturatua izateko debekua ezarriko da.

c) Araua hautsi duen erakundea erregistro berezietatik aldi baterako baztertzea, gutxienez bi urtean eta gehienez bost urtean.

d) Arau-hausleak egin ditzakeen eragiketa edo jarduerak bost urteko epean, gehienez jota, etetea, edo haien bolumena mugatzea.

e) AKEaren edo IKIEaren gordailuzaina nahitaez ordeztzea.

2. Sozietate kudeatzaileari arau-hauste oso larriak egiteagatik jar dakioken zehapenez gain, honako zehapen hauek ezarri ahal zaizkie administrazio- edo zuzendaritza-kargudun izanik arau-haustea egiten dutenei, 91. artikulua kontuan hartuta:

a) 300.000 € arteko isuna bakoitzari.

b) Kargutik kentzea eta erakunde berean edo beste finantza-erakunde batean administrazio- edo zuzendaritza-karguak betetzeko 10 urtez desgaitzea, gehienez ere.

c) Gehienez hiru urteko epean karguaz gabetzea.

3. Aurreko paragrafoko b), c) edo d) idatzi-zatietan aurreikusitako zehapenak ezarri gero, aldi berean a) idatzi-zatian aurreikusita dagoen zehapena ezarri ahal izango da.

4. Aurreko paragrafoetan aurreikusitako zehapenez gain, ohartarazpen publikoa egin ahal izango da, eta «Estatuko Aldizkari Ofizialean» (BOE) arau-

hauslearen izena, arau-haustearen izaera eta ezarritako zehapenak argitaratuko dira.»

Berrogeita hiru. Legearen 86. artikuluko 3. paragrafoa aldatu da; aurrerantzean honela egongo da idatzita:

«3. Erakundeari arau-hauste larriak egiteagatik jar dakioken zehapenaz gain, honako zehapen hauek ezarri ahal zaizkie administrazio- edo zuzendaritza-kargudun izanik arau-haustea egiten dutenei, 89. artikulua kontuan hartuta:

- a) Publikoki ohartaraztea, «Estatuko Aldizkari Ofizialean» gertatutakoaren berri emanda.
- b) 150.000 € arteko isuna bakoitzari.
- c) Erakundeko zuzendaritza-kargu guztietatik urtebetez kentzea, gehienez ere.»

Berrogeita lau. Aldatu egin da 87. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

«87. artikulua. *Zehapenak arau-hauste arinak egiteagatik.*

Arau-hauste arinak egiteagatik, gehienez 60.000 euroko isuna jarriko zaio sozietate kudeatzaileari.»

Berrogeita bost. 92. artikuluko c) idatzi-zatia aldatu da; aurrerantzean honela egongo da idatzita:

«c) Arau-hauste oso larriak egiteagatik zehapenak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ezarriko ditu.»

Berrogeita sei. Seigarren xedapen gehigarria gehituko da, honako hau dioena:

«Seigarren xedapen gehigarria. *Sozietate kudeatzaileak araudi berrira egokitzea.*

1. 2009/65/UE Zuzentarauaren arabera baimenduta ez dauden eta lege hau indarrean jarri baino lehen baimendutako IKE-en sozietate kudeatzaileek Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari legea indarrean jartzen denetik hiru hilabeteko epean deklarazio bat bidali beharko diote. Deklarazio horretan adierazi beharko dute erakundea aplikatu behar zaizkion legearen eskakizunetara egokitu dutela, eta bidezkoa bada, egokitzapen hori agerrarazten duen jardueren programaren aldaketa ere bidali beharko dute, 44.2.c) artikulua arabera.

Lege hau indarrean jarri aurretik 2009/65/EE Zuzentarauaren arabera baimendutako sozietate kudeatzaileek, legea indarrean jarri baino sei hilabete geroago beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko dituzte lege honetan xedatuta dagoena betetzeko. Egokitzapen horretarako beharrezkoak diren sozietate-estatutuen eta jarduera-programaren aldaketak ez dute aurretiazko baimenik behar izango, baina Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari jakinarazi beharko zaizkio 44. artikuluko 2. paragrafoko c) idatzi-zatiaren arabera. Jakinarazpen horretan adierazi beharko dute erakundea lege honen eskakizunetara egokitu dutela.

2. Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eta, bidezkoa bada, Merkataritza Erregistroak, haien erregistroak ofizios egokituko dituzte kudeatzaileen sozietate-estatutuen aldaketa biltzeko, lege honetara egokitze aldera.

3. Arrisku-kapitaleko erakundeak, inbertsio kolektiboko bestelako erakunde itxiak eta inbertsio kolektiboko erakunde itxien erakunde kudeatzaileak arautzen dituen eta azaroaren 4ko 35/2003 Legea –Inbertsio kolektiboko erakundeena– aldatzen duena azaroaren 12ko 22/2014 Legea indarrean jartzen denetik, kudeatzaileek 12 hilabeteko epea izango dute Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak lege honen arabera eduki behar duen gainerako informazioa eguneratzeko eta batzordeari bidaltzeko.

4. 15 bis eta 16 bis, 54 bis eta 55 bis artikuluetan mugaz haraindiko merkaturatzeari buruz xedatuta dagoena ez da aplikatuko Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen arabera egindako eta argitaratutako liburuxka baten babespean lege hau indarrean jarri aurretik indarreko eskaintza publiko batean eskaintzen diren IKE-en partaidetzak 2011/61/UE Zuzentarauaren arabera merkaturatzean, liburuxka horren indarraldiak irauten duen bitartean.

5. Lege hau indarrean jarri aurretik Inbertsio Kolektibo Itxiko Erakundeak 2011/61/UE Zuzentarauaren arabera kudeatzen dituzten sozietate kudeatzaileek, baldin eta lege hau indarrean jarri ostean inbertsio gehiago egiten ez badituzte, IKE horiek kudeatzen jarraitu ahal izango dute lege honen eskakizunetara egokitu behar izan gabe. Horretarako, ondorio horretarako deklarazioa aurkeztu beharko dute.

6. Sozietate kudeatzaileek, 2011/61/UE Zuzentarauaren arabera baimenduta dauden eta inbertsiogileentzako harpidetza-epea lege hau indarrean jarri baino lehen iraungita duten Inbertsio Kolektibo Itxiko Erakundeak kudeatzen dituzten heinean eta beranduenez 2016ko uztailaren 22an iraungitzen den epe batean eratuta dauden heinean, IKE horiek kudeatzen jarraitu ahal izango dute lege honetan ezarrita dagoena bete behar izan gabe, ez bada urteko txostena argitaratzeko betebeharrari dagokionez eta sozietateetan partaidetza adierazgarriak eta kontrola eskuratzearen ondorioz sortutako informazio-betebeharrak –47 bis artikuluan ezarrita dagoen bezala– betetzeari dagokionez.

7. 15 ter.1 artikuluko d) idatzi-zatian ageri den baldintza aplikatuko da Europako Batzordearen egintza eskuordetuaren unean, egintza horretan ezartzen diren baldintzetan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentarauaren 67.6 artikuluan arabera. Halaber, Europar Batasunetik kanpoko IKEak merkaturatzeko aurrerantzean ez da bete behar izango 15 ter.1 artikuluko a) idatzi-zatian ezarritako baldintza, ezta Espainian merkaturatzeko baimena eta erregistroa ere, –biak 15 ter artikuluko 4. eta 5. paragrafoetan aurreikusita daude–, Europako Batzordeak aipatu den zuzentarauaren 68.6 arabera erabakitzen duen egintza eskuordetuan hala zehazten denean.»

Azken xedapenetako bigarrena. *Azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Pentsio Planak eta Funtzak Arautzeko Legearen testu bategina aldatzea.*

Azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Pentsio Planak eta Funtzak Arautzeko Legearen testu bategina honela aldatu da:

Bat. 7. paragrafo berria erantsi zaio 16. artikuluari. Honela egongo da idatzita:

«7. Betiere, kudeatutako pentsio-funtsen inbertsio-politikan kreditu-kalifikazioen mendekotasun eskusibo eta automatikoa saihestuko da.

Sozietate kudeatzaileen betebeharrak erregelamendu bidez ezarri ahal izango dira, arriskua behar bezala kudeatzeko. Bereziki, kudeatzaileak, pentsio-funtsen aktiboen kaudimena ebaluatzean, ez dira egongo Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko irailaren 16ko 1060/2009 Erregelamenduaren 3.1. b) artikuluan definituta dauden kreditu-kalifikazioko agentziek emandako kreditu-kalifikazioen mendean, ez eskusiboki, ez automatikoki.»

Bi. 4. artikuluan 20. paragrafoa aldatu egiten da; aurrerantzean, honela egongo da idatzita:

«4. Erregelamendu bidez zehaztuko da pentsio-funtsen erakunde kudeatzaileek hirugarren erakundeekin eta pentsio-funtsen beste erakunde kudeatzaile baimendu batzuekin administratzen dituzten pentsio-funtsen inbertsioen kudeaketa zein baldintzatan kontratatu ahal izango duten. Hirugarren erakunde horiek baimenduko dituzten arauak honako hauen dira: balore higigarrietako

inbertsio kolektiboko erakunde jakin batzuei buruzko lege, erregelamendu eta administrazio arloko xedapenak koordinatzeko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko uztailaren 13ko 2009/65/EE Zuzentaraua; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentaraua, finantza-tresnen merkatuei buruzkoa, Kontseiluaren 85/611/EE eta 93/6/EEE Zuzentarauak eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/12/EE Zuzentaraua aldatzen dituen eta Kontseiluaren 93/22/EEE Zuzentaraua indargabetzen dituen; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko azaroaren 5eko 2002/83/EE Zuzentaraua, bizi-asegurari buruzkoa; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko martxoaren 20ko 2000/12/EE Zuzentaraua, kreditu-erakundeek jardura hasteari eta horretan aritzeari buruzkoa, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentaraua, inbertsio-funts alternatiboen kudeatzaileei buruzkoa, 2003/41/EE eta 2009/65/EE Zuzentarauak eta Europar Batasunaren 1060/2009 eta 1095/2010 zenbakidun Erregelamenduak aldatzen dituen.»

Azken xedapenetako hirugarrena. *Hazkuntzaren, lehiakortasunaren eta eraginkortasunaren aldeko premiazko neurriak onartzeko urriaren 15eko 18/2014 Legea aldatzea.*

Hazkuntzaren, lehiakortasunaren eta eraginkortasunaren aldeko premiazko neurriak onartzeko urriaren 15eko 18/2014 Legea aldatu da eta honela geratuko da:

Bat. 9.1. artikulua aldatu egiten da, eta honela geratzen da idatzita:

«Kapitulu honen xedea truke-tasen gehieneko mugak arautzea da, Espainian kokatuta dauden saltokietako terminaletan zordunketa- edo kreditu-txartelaren bidez egiten diren ordainketa-eragiketetan eska daitezkeen truke-tasei dagokienez, merkaturatzeko edozein bide erabilita ere, eta betiere agindu-emaielaren ordainketa-zerbitzuen hornitzailea zein onuradunaren ordainketa-zerbitzuen hornitzailea Espainian ezarrita badaude.»

Bi. 13. artikuluari 4. paragrafoa gehitu zaio, eta honela geratzen da idatzita:

«4. Halaber, Espainiako Bankuak ordainketa-zerbitzuen hornitzaileei beharrezkoa den informazio guztia eskatu ahal izango die, 14. artikuluan aurreikusita dagoenaren arabera Ekonomia eta Lehiakortasuneko Ministerioari informazioa emateko.»

Hiru. 14. artikulua aldatu da, eta honela geratzen da idatzita:

«Txartel Elektronikoko bidezko Ordainketen Behatokia 2006ko ekainaren 2ko Ministroen Kontseiluaren Erabaki bidez sortu zen; Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak, Behatoki horren barruan, kapitulu honetan aurreikusitakoaren aplikazioari jarraipena egingo dio eta, bereziki, zenbateko txikiko eragiketetan duen eraginari. Era berean, kapitulu honetan aurreikusitako truke-tasaren mugak kostuetan, hau da, ordainketa-zerbitzuen hornitzaileek ordainketa-zerbitzuen erabiltzaile diren kontsumitzaileei eta dendei egotzen dizkieten kostuetan izan dezakeen eraginari ere erreparatu behar zaio. Ondorio horietarako, Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministerioak, bere kabuz edo Behatokiak proposatuta, Espainiako Bankuari beharrezkoa den informazio guztia eskatu ahal izango dio, eta informazio hori argitaratzea agindu ahal izango du.»

Azken xedapenetako laugarrena. *Hornitzaileei egin beharreko ordainketak finantzatzeko funtsa aldatzeari buruzko uztailaren 14ko 13/2014 Legearen II. eranskina aldatzea.*

Hornitzaileei egin beharreko ordainketak finantzatzeko funtsa aldatzeari buruzko uztailaren 14ko 13/2014 Legearen II. eranskina honela geratuko da idatzita:

«II. ERANSKINA

Desagertutako Hornitzaileei egin beharreko ordainketak finantzatzeko funtsaren zorpetze eragiketak, Estatuko Administrazio Nagusiak bere gain hartu dituenak

Zor mota	ISIN	Onartutako zenbatekoa (Eurotan)	Erreferentzia-tasa	Lehenengo amortizazio-epea edo amortizazio-epe bakarra	Azken amortizazio-epea
Estatuaren Mailegua HOFFrentzat I		11.897.810.428,06	% 2,64	2015	2022
HOFF Bona I 2014/11/30	ES0302762002	2.579.070.000,00	Eur 3H + 498 op	2014	
HOFF Bona I 2015/05/31	ES0302762010	2.579.070.000,00	Eur 3H + 498 op	2015	
HOFF Bona I 2015/11/30	ES0302762028	2.579.070.000,00	Eur 3H + 498 op	2015	
HOFF Bona I 2016/05/31	ES0302762036	2.579.070.000,00	Eur 3H + 498 op	2016	
HOFF Bona I 2016/11/30	ES0302762044	2.579.070.000,00	Eur 3H + 498 op	2016	
HOFF Bona I 2017/05/31	ES0302762051	2.579.070.000,00	Eur 3H + 498 op	2017	
HOFF Mailegua sindikatua FFPPII II		111.425.000,00	Eur 3H + 295 op	2015	2018
HOFF Bona II 2015/11/30	ES0302762069	171.752.000,00	Eur 3H + 295 op	2015	
HOFF Bona II 2016/05/31	ES0302762077	171.752.000,00	Eur 3H + 295 op	2016	
HOFF Bona II 2016/11/30	ES0302762085	171.752.000,00	Eur 3H + 295 op	2016	
HOFF Bona II 2017/05/31	ES0302762093	171.752.000,00	Eur 3H + 295 op	2017	
HOFF Bona II 2017/11/30	ES0302762101	171.752.000,00	Eur 3H + 295 op	2017	
HOFF Bona II 2018/05/31	ES0302762119	171.752.000,00	Eur 3H + 295 op	2018	
HOFF Mailegua III Bankinter		912.000.000,00	% 2,95	2018	
HOFF Mailegua III Sabadell		650.000.000,00	% 4,334	2022	
HOFF Mailegua III Popular		3.000.000.000,00	Eur 6H + 222 op	2021	2023
HOFF Mailegua III Colonia		4.000.000,00	% 2,74	2017	
HOFF Mailegua III Kooperatiboa		90.000.000,00	% 3,172	2018	
HOFF Mailegua III Kooperatiboa		560.000.000,00	% 3,004	2018	
HOFF Mailegua III Sabadell		600.000.000,00	% 4,121	2023	
HOFF Mailegua III Liberbank		100.000.000,00	Eur 6H + 129 op	2017	
HOFF Mailegua III Crédit Agricole		150.000.000,00	Eur 3H + 185 op	2017	
HOFF Mailegua III Société Générale		300.000.000,00	Eur 3H + 185 op	2017	
HOFF Mailegua III Caja España		250.000.000,00	Eur 6H + 143 op	2017	
HOFF Mailegua III Unicaja		300.000.000,00	Eur 3H + 163 op	2017	
HOFF Mailegua III Sabadell		750.000.000,00	% 3,930	2023	
HOFF Mailegua III BBVA		900.000.000,00	Eur 3H + 187,9 op	2020	
HOFF Mailegua III Caja Ingenieros		8.000.000,00	% 2,271	2018	
HOFF Mailegua III Caja Ingenieros		8.000.000,00	% 2,932	2020	
Estatuaren Mailegua HOFFrentzat		5.367.527.894,79	% 3,040	2016	2023»
BOFF Bona III La Caixa 2018/10/31	ES0302762127	750.000.000,00	% 2,450	2018	
BOFF Bona III La Caixa 2022/01/31	ES0302762003	250.000.000,00	% 3,820	2022	

Azken xedapenetako bosgarrena. *Eskumen-tituluak.*

Lege hau Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluko 6., 11. eta 13. paragrafoetan aurreikusitakoaren arabera eman da, berorietan, Estatuari egozten baitzaio merkatulegeriari buruzko eskumen eskusiboa, baita kreditu, banketxe eta aseguruak antolatzearen gaineko oinarriari buruzkoak eta jardura ekonomikoaren plangintza orokorraren gaineko oinarriari eta haren koordinazioari buruzkoak ere.

Azken xedapenetako seigarrena. *Europar Batasuneko zuzenbidea txertatzea.*

Lege honen bitartez, Europar Batasuneko zuzentarau hauek txertatzen dira Espainiako Zuzenbidean:

a) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko ekainaren 8ko 2011/61/UE Zuzentaraua, inbertsio-funts alternatiboen kudeatzaileei buruzkoa, 2003/41/EE eta 2009/65/EE Zuzentarauak eta Europar Batasunaren 1060/2009 eta 1095/2010 zenbakidun Erregelamenduak aldatzen dituena.

b) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 21eko 2013/14/UE Zuzentaraua estatuko legeriara ekartzeko baldintzak biltzen dira. Zuzentarau horrek aldatu egiten ditu enplegu-pentsioen funtsen jardueri eta gainbegiratzeari buruzko 2003/41/EE Zuzentaraua, balore higigarrietako inbertsio kolektiboko erakunde jakin batzuei buruzko lege, erregelamendu eta administrazio arloko xedapenak koordinatzeko 2009/65/EE Zuzentaraua, eta inbertsio-funts alternatiboen kudeatzaileei buruzko 2011/61/UE Zuzentaraua, kreditu-kalifikazioekiko mendekotasun handiegia dagokionez.

Azken xedapenetako zazpigarrena. *Arauk onartzeko gaikuntza.*

1. Gobernua edo, haren berariazko gaikuntzarekin, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala baimenduta daude kasuan kasu beharrezkoak diren neurriak hartzeko eta xedapenak emateko, lege hau behar bezala betearazi eta beteko bada.

2. AKE-ei, IKISei eta haien sozietate kudeatzaileei dagokienez, eta Merkataritza Kodearen I. liburuko III. tituluaren ezarritako dagoenari kalterik egin gabe, Ekonomia eta Lehiakortasuneko ministroari edo, berariazko gaikuntzarekin, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari ahalmena eman zaie erakunde horien urteko kontuetan bete beharko dituzten kontabilitate-arauak eta ereduak ezartzeko eta aldatzeko, Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuak aurretiaz egin behar duen txostenari men eginda. Kontu horietan aintzat hartu beharko da erakundeek egiten dituzten inbertsioen heldze-epe luzea. Halaber, ezartzen diren koefizienteak betetzeari dagozkionak ere ezarriko dira. Ondorio horietarako, koefizienteak betetzen direla egiaztatzeko beharrezkoak diren informazio guztiak edo finantza arloko gainbegiratzearen ondoriozko informazio guztiak urteko kontuen memorian txeratu beharko dira paragrafo espezifiko batean. Halaber, egokiak diren datuak Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari emateko edo erakundeek beraiek orokorrean argitaratzeko maiztasuna eta xehetasuna ezarriko dira.

Azken xedapenetako zortzigarrena. *Indarrean sartzea.*

Lege hau Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.

Horrenbestez,

Lege hau betetzeko eta betearazteko agintzen diet espainiar guztiei, norbanakoei eta agintariei.

Madrilen, 2014ko azaroaren 12an.

FELIPE E.

Gobernuko presidentea,
MARIANO RAJOY BREY